

**SAHARAKO GAZTEAK:
ERRESISTENTZIAK,
EGOKITZAPENAK ETA ZERUMUGA
BERRI BATEN BILAKETA**



SAHARAKO GAZTEAK: ERRESISTENTZIAK, EGOKITZAPENAK ETA ZERUMUGA BERRI BATEN BILAKETA

SARRERA	5
Sarrera	7
Helburuak eta metodologia	10
ABIAPUNTUA	21
Amaitu gabeko nazio-askapenerako prozesua	23
Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuak	34
Saharar gazteria: bi diskurtso	42
Pentsamoldeak	54
Hezkuntza-, prestakuntza- eta lan-ardatza	60
Legez kanpoko kontsumoak eta jarduerak	74
Migrazioa	79
Familia eta ezkontza	89
Erlijioa	95
Sare sozialak	99
Parte-hartzea	103
Gerraren itzulera	110
SAHARAKO GAZTERIAREN ARGAZKIA	113
Gazteria eta gizarte-ongizatea	115
Prestakuntza eta enplegua	126
Familia eta etxea	132
Osasunaren pertzepzioa eta irudi pertsonala	136
Aisialdia eta parte-hartzea	139
Balioak eta identitatea	142
AZKEN GOGOETAK	149
BIBLIOGRAFIA	157
ERANSKINAK	161



SEADeko Gazteria
eta Kirol Ministerioa

CIP. Biblioteca Universitaria

Saharako gazteak [Recurso electrónico]: erresistentziak, egokitzapenak eta zerumuga berri baten bileketa / [realizado por el equipo de investigación de la Fundación Begirune, Ikuspegi y el Observatorio Vasco de la Juventud, Andrea Ruiz Balzola ...(et al.)]. - Datos. - [Leioa] : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, 2024. - 1 recurso en línea : PDF (180 p.)

Modo de acceso: World Wide Web.

ISBN: 978-84-9082-920-2.

1. Juventud – Sahara Occidental. 2. Campos de refugiados – Sahara Occidental. 3. Sahara Occidental – Condiciones sociales. I. Fundación Begirune. II. Ikuspegi, Observatorio Vasco de Inmigración. III. Observatorio Vasco de la Juventud.

(0.034)316.346.32(64)

LAN HONEN EGILEAK BEGIRUNE FUNDAZIOKO, IKUSPEGIKO ETA GAZTERIAREN EUSKAL BEHATOKIKO IKERKETA TALDEAK DIRA: ANDREA RUIZ BALZOLA, ANE ESTEBARANZ DELGADO, IRUNE RUIZ CIARRETA, MAITE FOUASSIER ZAMALLOA, OSKAR LONGO IMATZ, JOSE ANTONIO DE OLEAGA PÁRAMO.

ARABAKO SEAD-EN LAGUNEN ELKARTEAREKIN ETA SEAD-EKO GAZTERIA ETA KIROL MINISTERIOAREKIN BATERA.

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ETA GASTEIZKO UDALAREN DIRULAGUNTZAREKIN EGIN DA.



© Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 978-84-9082-920-2

Esker onak

Eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu Saharako gazteen egoerari buruzko diagnostikoa egiten parte hartu duten guztiei. Proiektu hau ez zen posible izango parte hartzen duen pertsona bakoitzaren ahalegin, dedikazio eta konpromisorik gabe.

Eskerrak eman nahi dizkiegu RASDeKO Gazteria eta Kirol Ministerioko Gazteria Zuzendaritzari eta tokiko ikerketa-taldeari: Salama Lehvio, Aziza Mrabih, Limam Chrif, Enguia Bani, Gabbal Lahsan, Saleh Slut, Muna Fal eta Abderrahman Sidahmed.


Euren ekarpen estimagarria funtsezkoa izan da Saharako gazteen ikuspegi sakonagoa eta errealistagoa izateko, baita aurrean dituen erronkak hobeto ezagutzeko ere. Haiek emandako denborari, ezagutzei eta partekatutako esperientziei esker, analisi zorrotza eta oinarritua garatu ahal izan dugu, komunitate honen ulermena eta babesa hobetzeko gako garrantzitsua, alegia.

Espero dugu diagnostiko honen emaitzek balio izatea irtenbide justu eta iraunkorrak bilatzeko bidean aurrera egiteko.



1

SARRERA



Sarrera

Tindufeko saharar errefuxiatuen kanpamentuetako gazteen egoerak berebiziko garrantzia du, bai maila humanitarioan, baita maila soziologikoan ere. 1975ean ezarri zirenetik, kanpamentu horiek milaka sahararren babesleku izan dira, Marokok Mendebaldeko Sahara legez kanpo okupatu zuelako. Babesleku izan badira ere, bizi-baldintza zailek eta aukera faltak erronka handiak dakartzate, batez ere gazteentzat, horiek kanpamentuetako biztanleriaren zati handia baitira.

Tindufeko gazte sahararrek hainbat arazori egin behar diete aurre: hezkuntza eta enplegua eskuratzeko aukera mugatua dute, etorkizun garbirik ez, eta beste arazo batzuen aurrean ere kalteberak dira oso. Eta funtsezkoa da kolektibo hau ondo zaintzea; izan ere, gaurko oraina izateaz gain, saharar komunitatearen etorkizuna ere badira.

Gai horiei modu eraginkorrean heltzeko, funtsezkoa da Saharako gazteen gizarte-errealitatearen ezagutzazehatza izatea, datu objektibo eta fidagarrietan oinarrituta. Azterketa soziologikoek funtsezko zeregina dute gazteen bizi-baldintzei, premiei eta asmoei buruzko informazio zehatza biltzeko eta aztertzeko, egoerari buruzko ikuspegi argia eta osoa ematen baitute. Horrek, esku-hartze eraginkorrako diseinatzeaz gain, asko errazten du nazioarteko komunitatea sentsibilizatzea eta politika publiko egokiak formulatzea.

Hori dela eta, Arabako SEADen Lagunen Elkartea beharrak zehatz identifikatzen eta politika publiko eraginkorrak formulatzen laguntzen ari da, 2014tik, Tindufeko errefuxiatu sahararren kanpamentuetako gazteen egoerari buruzko lehen azterketa soziologiko espezifikoa egin zenetik, Carlos Vilches NUPeko irakaslearen eskutik.

Diagnostiko horretan lortutako datuetatik abiatuta, esparru integral bat ezartzeko beharra ikusi zen, abian diren politikak eta ekintzak bateratu eta koherentziaz joka zitzan, eta politika eta ekintza horiek kolektibo horren ongizate handiagoa eta etorkizuneko itxaropenak ekar zitzaten.

Horrenbestez, 2017an eta 2018an, SEADeko Gazteriaren Batzorde Nazionalak, SEADeko Gazteria eta Kirol Ministerioak koordinatuta, 2019-2022ko Gazteria Plana egitea sustatu zuen, Arabako Foru Aldundiak finantzatuta eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta profesionalen talde baten laguntzarekin:

Xabier Aierdi, Jose A. Oleaga (orain biak daude Begirune Fundazioan) eta Gorka Moreno.

2019-2022ko Gazte Plan horrek esparru estrategiko bat irudikatu nahi zuen, zeinak, antzemandako behar eta eskaeretatik abiatuta, ekintza politikorako gomendio batzuk eskaini eta planteatu ahalko baitzituen, eta, aldi berean, SEADeko erakundeentzat gazteriaren alorreko etorkizuneko lan-gida bat eskaini.

2019-2022ko Gazte Plana Tindufeko kanpamentuetan aurkeztu zitzaion saharar komunitateari, bertan zelarik Brahim Gali jauna -Fronte Polisarioeko idazkari nagusia eta Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko presidentea-. Aurkezleak, berriz, hauek izan ziren: SEADeko Gobernuak, orduko Gazteria eta Kiroleko Ministroa, SEADeko Gobernuako Kirol Zuzendaritzako teknikariak, eta aipatutako Euskal Herriko Unibertsitateko taldea.

Plan honek hartzen duen aldian, Gazteria eta Kirol Ministerioak eta haren Gazteria Zuzendaritzak hainbat ekimen egin dituzte Tindufeko kanpamentuetan bizi diren gazteen egoera dinamizatu eta hobetzeko. Hala ere, plan hori gauzatzeko, bi gertakari garrantzitsu izan dira: batetik, COVIDaren pandemia eta haren ondorioak, ez soilik osasun-arlokoak, baita finantza-arlokoak ere, 2020 eta 2021 urteetan, funtsean; eta, bestetik, Fronte Polisarioaren eta Marokoren arteko su-etena, 2020ko azaroan. Gorabehera horiek izugarri zaildu dute Gazteria Plana betetzea eta garatzea.

2021ean, Arabako SEADen Lagunen Elkarteak Begirune Fundazioari eskatu zion 2019-2022 Gazteria Plan horren tarteko ebaluazio bat egiteko, 2023 eta 2024 urteetara zabalduz eman zitekeelakoan, plan berri baten faltan. Ebaluazioaz gain, tresna analitikoak eta ebaluaziorako tresnak eman nahi zitzaizkien Gazteria eta Kirol Ministerioako teknikariei, SEADeko Gazteria Planaren arduradunak. Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak ere finantzatu zuten enkargu hori.

2019-2022ko Gazte Planaren tarteko ebaluazio horretarako, SEADeko Gobernuako Gazteria Zuzendaritza arduratu zen informazioa biltzeaz, kanpamentuekiko aire-konexioak etenda zeudelako eta ezin zirelako bisitatu, Begirune Fundazioko talde tekniko baten gidaritzapean.

Gazteria Zuzendaritzaren talde teknikoa arduratu zen elkarrizketak eta eztabaida-taldeak egiteaz, eta planean jasotako ekintzak kontrastatzeaz, horiek lantzeko eta garatzeko ardura zuten ministerioetako arduradunekin.

Gazteria Zuzendaritzako talde teknikoa trebatzeko, online prestakuntza-tailerrak egin ziren, Begirune Fundazioko teknikariek zuzenduak.

Begirune Fundazioak egindako ebaluazio-txostenaren emaitzarik garrantzitsuenen artean, gauzatzeari dagokionez, planeko ekintzen % 43,2 egin ziren (% 58,2, informazioa ebidentziekin lortu zuten ekintzak soilik kontuan hartuta). Garrantzitsua da ehuneko hori plana garatu zen testuinguruan kokatzea, berez konplexua den testuinguru batean, Tindufeko kanpamentuetan, aurrez aipatutako bi gertaerek, zalantzarik gabe, erabat baldintzatu baitzuten: COVID-19ak eta Fronte Polisarioaren eta Marokoren arteko liskarrak berrabiatzeak. Hala, positibotzat jo zen bai % 43,2ko egikaritze hori (% 58,2), bai urte horietan SEADeko ministerioek Plana bultzatzeko egindako ahalegina.

Ebaluazio-txostena Tindufeko kanpamentuetan aurkeztu zen, Saharako Gazteriaren III. Konferentziaren esparruan. Konferentzia hori Aaiungo wilayan egin zen (Tindufeko kanpamentuak), 2022ko azaroaren 13tik 15era. Jardunaldi horietan gazte sahararren egoera, haien beharrak eta aurre egin beharreko erronkak eztabaidatu ziren, eta ondorioztatu zen beharrezkoa dela gazte sahararren benetako egoeraren diagnostikoa eguneratzea, Gazteria Plan berri bat egiteko aurretiazko urrats gisa.

SEADen Lagunen Elkartea, Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren finantzaketarekin, SEADeko Gobernuko Gazteria eta Kirol Ministerioaren esanetara jarri zen, Saharako Gazteriaren Esparru Estrategiko eta Plan berri batera eramango duen prozesu bat martxan jartzen laguntzeko.

Horretarako, Begirune Fundazioko talde teknikoarekin harremanetan jarri zen proiektua diseinatu eta gauzatzeko. Begirune Fundazioko teknikariez gain, Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiko ikertzaileek eta Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzako teknikari batek ere parte hartzen dute lantalde horretako arduradunek.

Proiektu osoak hiru fase ditu:

- 1) Saharako gazteen egoerari buruzko diagnostiko eguneratua egitea;
- 2) 2019-2022ko Gazteria Planaren azken ebaluazio-txostena egitea; eta
- 3) horiek abiapuntutzat hartuta, 2025 2030eko Gazteria Plan berria egitea.

Txosten hau Saharako Gazteen Egoeraren Diagnostikoari buruzkoa da.

Helburuak eta metodologia

Zalantzarik gabe, plan baten indargunea Plan berriak landu nahi duen gizarte-errealitatearen diagnostiko on bat egitean datza. Ildo horretan, Saharako gazteen egoerari buruz egindako azken diagnostikoa 2014koa da, eta balio handiko dokumentua izanik, nahikoa denbora igaro da —eta baita gertatu ere— horri buruzko beste ikerketa bat egiteko.

Aipatu dugun bezala, 2014ko irailetik 2015eko maiatzera bitartean, UPNko Carlos Vilches doktoreak koordinatutako talde batek lan soziologiko parte-hartzaile bat egin zuen, “Saharako errefuxiatuen egoera” txostena ekarri zuena. Arabako Foru Aldundiak finantzatu zuen proiektu hori. Ondoren, 2017an, eta txosten horietan oinarrituta, honako hauek argitaratu ziren: “Gazte errefuxiatuak saharar kanpamentuetan. Linboaren ziurgabetasunean harrapatuta”.

Balio zientifiko handiko dokumentua da, ikerketa zorrotz eta serio batean oinarritua, batez ere Tindufeko kanpamentuetan, gazte sahararren orduko egoera marrazten duena. Hala ere, diagnostiko hori eguneratu egin behar da, jakiteko zein den Saharako gazteen gaur egungo egoera, arazoak, beharrak eta erronkak.

Zehazki, ikerketa honekin berariazko helburu hauek lortu nahi izan ditugu:

- Saharako gazteak kezkatzen eta haiengan eragiten dituzten gaur egungo arazoak ezagutzea.
- SEADen errealitate sozialean gertatzen ari diren prozesuak eta horiek gazteriarengan duten eragina ulertzea.
- Saharako gazteen sentimenduak, ideiak, erronkak, asmoak eta nahiak aztertzea.
- Saharako gazteriari zer faktorek eta nola eragiten dioten aztertzea (sexua, ikasketa-maila, gizarte-estatusa, enplegua, etxeko baldintzak, etab.).

- Saharako gazteen bizitzari buruzko informazioa lortzea SEADen eta SEADetik kanpo.
- Saharako gazteen diskurtso nagusia, narratibak, bizipenak eta beste diskurtso batzuk ateratzea, eta haien gaiak, motak eta ikuspegiak aztertzea.
- Sexu/generoak saharar gizartean duen eragina zehaztea eta diagnostiko honetan zehar genero ikuspegia kontuan hartzea.

Hori guztia egiteko, kontuan hartu dugu hainbat dimentsiotan duen eragina: familia eta etxea, enplegua, lana, aisia, osasuna, identifikazio-prozesuak, parte-hartzea, autoirudia, gizarte- eta familia-hezkuntza, prestakuntza, integrazio militarra, teknologia berriak, Intifada, kirola eta denbora libre, migrazio-lekualdatzeak, substantzien kontsumoa, etab.

Gazte sahararren egoerari buruzko diagnostikoa egiteko hartu dugun lan-metodologia ezartzeko, oso kontuan izan ditugu gaur egun Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuetan dauden inguruabarrak.

Kanpamentuetan landa-lana egiteak ohiko ezaugarriak ez dituela betetzen jakinda, ekintza guztiak modu egokian eta koordinatuan planifikatu behar izan ditugu, Begirune Fundazioko, Ikuspegiko eta Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzako kideek osatutako ikerketa-taldearen eta SEADeko Gobernuko Gazteria Zuzendaritzako teknikariek osatutako lan-taldearen artean, Tindufeko kanpamentuetan bertan. Talde hauek Arabako SEADen Lagunen Elkartearekin eta SEADeko Gobernuko Gazteria eta Kirol Ministerioko arduradunekin etengabe koordinatuta aritu dira.

Ikerketa diagnostikoaren azken diseinuak diseinu metodologiko misto, kualitatibo eta kuantitatiboa du, eta, ondorioz, gure bi helburu publikoetara zuzendutako ikerketa-tresna edo -teknika kuantitatibo eta kualitatiboak erabili ditugu:

1. Tindufeko kanpamentuetako gazte sahararrei buruzko funtsezko informatzaileen kolektiboa: elkarrizketa fokalizatuen teknikan oinarritutako zundaketa kualitatiboa egin dugu.

2. Bi sexuetako gazteak, 15 eta 45¹ urte bitartekoak eta Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuetan bizi direnak: inkesta pertsonalaren teknikaren bidez zundaketa kuantitatibo bat egin dugu, eta eztabaida taldearen eta tailer parte-hartzaileen tekniketari oinarritutako zundaketa kualitatibo bat (Philips 66 estiloa).

WKalitatezko informazio-bilketa bermatze aldera, Begirune Fundazioaren, Ikuspegiren eta Eusko Jaurlaritzaren ikerketa-taldeak SEADeko Gazteria Zuzendaritzaren taldea entrenatu du landa-buruaren lanak (inkestak behar bezala betetzen direla kontrolatu eta ikuskatzeaz arduratzen den pertsona), inkestaren lanak eta eztabaida-taldeen eta tailerren antolaketa eta dinamizazioa behar bezala egiteko.

Zehazki, 2023ko urrian, Begiruneko, Ikuspegiko eta Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzako ikerketa-taldeko kide batzuk Tindufeko kanpamentuetara joan ziren, SEADeko Gazteria Zuzendaritzako taldea zenbait gai metodologikotan prestatzeko, informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa biltzeko:

- Landa-buruarekin eta inkestatzaileen taldearekin egindako prestakuntza-modulu bat: modulu hori hobeto aprobetxatzeko eta kalitatezko informazioa biltzeko helburu nagusiarekin, Begirune, Ikuspegi eta Eusko Jaurlaritzako ikertzaile-taldeak Inkesta Eskuliburu bat egin zuen. Eskuliburu horretan, xehetasunez azaltzen ziren inkestako galdera guztiak, informazioa biltzeko helburuak, galdera kudeatzeko modua eta erantzunak jasotzeko modua. Modulu horretan, informazioa biltzeko dinamika, wilaya bakoitzean adinaren eta sexuaren arabeko kuotak dituzten ibilbideen sistema eta wilayetako dairen arabeko inkesten banaketa ere azaldu ziren;
- Prestakuntza-modulu bat eztabaida-taldeak antolatu eta egiteko: era berean, kanpamentuetako egonaldi horretan, mintegi bat egin zen SEADeko Gobernuko Gazteria Zuzendaritzaren taldearekin,

1 Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoan gaztetzat hartzen dira 15 urtetik 45 urtera bitarteko biztanleak. Gazteria aztertzean adin-tartea hainbeste zabaltzea oso ohikoa ez den arren, Saharako gizartearen kasuan, gertaera hori erronka sozioekonomikoen konbinazioari, babes- eta gatazka-egoera luzeari eta gazteriaren politiken ikuspegi inklusiboari egotz dakieke, biztanleriaren talde handiago bati gizartearen garatzen eta parte hartzen laguntzeko. 2014ko ikerketan, 15-30 urte bitarteko gazteen egoera ezagutzeari izan zen helburua. Oraingo honetan, Gazteria eta Kirol Ministerioko arduradunek adin-tartea 15 eta 45 urte bitarteko gazteei zabaltzea eskatu dute.

eztabaida-taldeak antolatzeneko estrategia eta taldeak dinamizatzeko modua lantzeko, ahalik eta informaziorik eta kalitaterik onena lortzeko;

- Tailerrak antolatzeneko eta egiteko prestakuntza-modulua: azkenik, kanpamentuetako egonaldia ere aprobetxatu zen, bai tailerrak antolatzeneko estrategia lantzeko, bai tailerrak dinamizatzeko modua lantzeko, ahalik eta informazio eta kalitate onena lortzeko.

Elkarrizketak

Elkarrizketa dokumentalak egin dizkiegu funtsezko informatzaileei. Batez ere arlo politikoko pertsoneri buruz ari gara, eta hainbat erakunde eta elkartetako arduraduneri buruz. Era berean, Saharako gazteen egoera sakon ezagutzen duten gazteak bilatu eta elkarrizketatu ditugu, gizarte-erakundeekin edo lan-kontuekin kolaboratzen dutelako.

Guztira 31 elkarrizketa egin dira, honako erakunde edo entitate hauetako adituekin:

1. TAULA. ELKARRIZKETATUTAKO ENTITATE ETA ERAKUNDEEN ZERRENDA

1	Lehen Ministerioa
2	Barne Ministerioa
3	Gazteria eta Kirol Ministerioa (Ministroa)
4	Gazteria eta Kirol Ministerioa (Gazteria zuzendaria)
5	Gazteria eta Kirol Ministerioa (Gazteria Planaren arduraduna)
6	Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa
7	Justizia eta Erljio Gaietarako Ministerioa
8	Osasun Ministerioa
9	Gizarte Gaietako eta Emakumearen Emantzipazioko Ministerioa
10	Kultura Ministerioa
11	Ekonomia Garapenerako Ministerioa
12	Saharako Herri Askapenerako Armada

13	Fronte Polisarioaren Idazkaritza Nazionala (Arduraduna)
14	Fronte Polisarioaren Idazkaritza Nazionala (Ikerketa eta Azterlanen idazkaria)
15	Fronte Polisarioaren Idazkaritza Nazionala (Gizarte Zibileko arduraduna)
16	Fronte Polisarioaren Idazkaritza Nazionala (pertsonezko aditua)
17	UJSARIO (Gazteria Batasuna) (Idazkari Nagusia)
18	UJSARIO (Gazteria Batasuna) (Miliziako arduraduna eta Kultura eta Kirol arduraduna)
19	UNMS (Saharako Emakumeen Batasun Nazionala) (Idazkaritza Nagusia)
20	UNMS (Emakume Sahararren Batasun Nazionala) (kidea)
21	UESARIO (Ikasleen Batasuna)
22	Emakume Gazteen Erakundea
23	CONASADH (Saharako Giza Eskubideen Batzorde Nazionala)
24	Mendebaldeko Saharako NOVA taldea (INDARKERIA-EZA)
25	Saharako eskaut eta haurren erakundea
26	Saharako talde feminista
27	Gobernacia Auserd-eko wilaya
28	Ekologian aditua
29	Aaiun wilayako Imama
30	Nidal Sáhara elkarteak
31	Diaspora


Elkarrizketa fokalizatu horiek Begirune Fundazioaren, Ikuspegiren eta Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzaren talde teknikoak egin zituen Tindufeko kanpamentuetan bertan, eta, horretarako, Tindufera joan ziren 2023ko maiatzean. Elkarrizketa horietan hainbat gai jorratu ziren, hala nola, udalekuetako gazteen errealitate soziala, azken urteetan gazteei zuzenduta martxan jarri diren ekintzak eta neurriak, eta gazteria plan berri batek erantzun beharreko erronkak eta beharrak.

Saharako gazteei egindako inkesta

Inkesta kuantitatibo bat egin dugu, eta SEADeko 1.000 gazteren iritzia jaso dugu. Laginketa-mota probabilitate-laginketa estratifikatu bat izan da, afijazio proportzionalaren bidez geruzatua, sexu- eta adin-kuotak, bizileku diren wilaya eta daira kontuan hartuta, Saharako gazteen adierazgarri diren emaitzak lortzeko.

Laginaren tamaina horrekin, gehienez +/-% 3,10eko lagin-errorearekin lan egingo dugu lagin osorako, eta gehienez +/-6,92ko lagin-errorearekin wilaya bakoitzerako (asmoa da 200 inkesta egitea bost wilayetako bakoitzean: Auserd, Smara, Dajla, Aaiun eta Bojador). Betiere, konfiantza-maila estatistikoa % 95ekoa izanik (kasurik okerreanean, non $p=q=0,5$ baita).

1.GRAFIKOA. Tindufeko kanpamentuetako wilayak



Ondoren, wilaya bakoitzaren azpilaginak haztatu ditugu populazioaren tamainaren arabera, laginaren datu eta ondorio globalak lortzen ditugunean, eta Tindufeko kanpamentuetan dauden gazte sahararrei buruz hitz egiten dugunean. Lagin bakoitzean zenbat pertsona bizi diren adierazten duen

errola ofizialik ez dagoen arren, azpilaginak eta haien lagin-erroreen zifrak kalkulatzeko, gure proposamena zifra hauetatik abiatuta lortu dugu²:

2. TAULA. WILAYEN GUTXI GORABEHERAKO TAMAINA

	HERRIA	DAIRAK
Smara	50.700 biztanle	7
Dajla	19.500 biztanle	7
Bojador	16.500 biztanle	3
Auserd	36.400 biztanle	6
Aaiun	50.500 biztanle	6
Guztira	173.600 biztanle	29

Begirune Fundazioaren, Ikuspegiren eta Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzaren talde teknikoak, Gazteria eta Kirol Ministerioko talde teknikoak eta Arabako SEADeko lagunen elkarteak egindako inkesta honi esker, saharar gazteek kanpamentuetan duten egoerari buruzko informazio kuantitatiboa lortu dugu. Galdetegian (ikus eranskina) hainbat gai jorratu ditugu, hala nola, udalekuetako gazteen errealitate soziala, azken urteotan martxan jarri diren ekintzak eta neurriak, gazteen itxaropenak, beharrak, gazteria plan berri batek erantzun beharreko erronkak eta, ahal den neurrian, etorkizunean egin daitezkeen ekintzak, udalekuetako gazteen errealitate soziala hobetzeko.

Galdetegi-mota erdiegituratutako inkesta pertsonala izan da, aurrez kodetutako galdera itxiekin eta inkestatutako pertsonen zuzendutako galdera irekiekin. Inkesta etxez etxe egin dute, eta etxeen hautaketa ausaz egin dute, wilaya eta dairen azalera guztia hartzeko asmoz.

Landa-lana, esan bezala, SEADeko Gobernuko Gazteria Zuzendaritzako inkestatzaile-talde batek egin du, landa-buru batek gainbegiratuta eta kontrolatuta. 2023ko azaroaren eta 2024ko urtarrilaren artean egin zen.

Inkestak beteta, datu-prozesuaren alorreko euskal enpresa profesional batek informazioa grabatu du, eta datu-base bat sortu du, ondoren prozesu estatistikoa egiteko. Begiruneko, Ikuspegiko eta Eusko Jaurlaritzako

² Zifra horiek Mendebaldeko Saharari begirada bat ekimenaren webgunean daude eskuragarri, esteka honetan: <https://saharaoccidental.es/sahara/campamentos-refugiados-saharais/>

Gazteria Zuzendaritzako ikerketa-taldeak egindako prozesu-planean eta tabulazioan, aldagai bakarreko eta biko ohiko estatistika deskribatzaileak erabili ditugu (maiztasunak, ehuneko horizontalak, ehuneko bertikalak, proba parametrikoak eta ez-parametrikoak, batez bestekoen arteko aldeak, *chi square* testak), baita aldagai anitzeko analisi egokiak ere, lehen analisi deskribatzailea egin ondoren.

Eztabaida taldeak

Galdeketan jaso dugun informazio kuantitatiboarekin batera, hurbilketa metodologiko kualitatibo bat egin da, eztabaida-taldearen teknikaren bidez, hasieran, eta tailer parte-hartzaileen bidez, ondoren.

15 eta 45 urte bitarteko gazte sahararrekin 10 talde dinamika egin ditugu. Bi dinamika egin ditugu wilaya bakoitzeko.

Talde-dinamika edo eztabaida-talde klasikoa talde-dinamikako teknika bat da, 6-10 pertsona inguruk osatua. Areto batean bilera informal bat izan daitekeena erreproduzitzen du, bilera egiteko baldintzek eguneroko bizitzan gertatzen direnak ahalik eta ondoen erreproduzi ditzaten saiaturaz.

Zehazki, 3. taulan jaso ditugu eztabaida-taldeen datak, lekuak eta osiera:

3. TAULA. EZTABAIDA TALDEAK

DATA	WILAYA	PARTE-HARTZAILEEN KOPURUA
2023/11/13	Aaiun	6 gizon
2023/11/13	Aaiun	6 emakume
2023/11/13	Auserd	5 gizon
2023/11/13	Auserd	5 emakume
2023/12/05	Smara	6 gizon
2023/11/13	Smara	6 emakume
2023/11/15	Bojador	7 gizon
2023/11/15	Bojador	6 emakume
2023/11/17	Dajla	6 gizon
2023/11/17	Dajla	7 emakume

Wilaya taldeak bi taldetan banatu dira, bat emakumezkoek eta bestea gizonezkoek osatua, adin eta profil desberdinak jasotzeko asmoz, eta horrela, laginaren unibertsoa irudikatu dute.

Talde dinamikak SEADeko Gazteria Zuzendaritzako langileek egin dituzte, Begiruneko, Ikuspegiko eta Eusko Jaurlaritzako ikertzaile taldeak entrenatu ondoren. 2023ko azaroa eta 2024ko apirila bitartean egin zituzten, kanpamentuetan.

Talde dinamika horiek Bachir M. Rayaa itzultzaile profesional saharar batek itzuli ditu. Ondoren, Begirune Fundazioko, Ikuspegiko eta Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzako teknikariek aztertu dute informazioa.

Bertan, hainbat gai jorratu dira, hala nola, udalekuetako gazteen errealitate soziala, azken urteotan gazteei zuzenduta martxan jarri diren ekintzak eta neurriak, eta gazteria plan berri batek erantzun beharreko erronkak eta beharrak.

Fase horren osagarri gisa, talde-dinamika bat egin dugu Espainiara emigratutako 15 eta 45 urte bitarteko gazteekin, haien perspektibak, esperientziak, proposamenak eta iritziak jasotzeko. Dinamika hori Gasteizen egin zen, 2024ko otsailean.

Tailer irekiak

Eztabaida-taldeen gain, deialdi irekiak ere egin ziren wilaya bakoitzean, tailer parte-hartzaileak egiteko. Nahi zuen edozein gazte joan zitekeen tailer horietara. Tailer horietan, lehen azaldutako taldeetan bezala, hainbat gai jorratu dira, hala nola, udalekuetako gazteen errealitate soziala, azken urteotan martxan jarri diren ekintzak eta neurriak, eta gazteria plan berri batek erantzun beharreko erronkak eta beharrak.

Gisa horretako bost tailer egin dira (Philips 66 teknikan oinarritutako tailer parte-hartzaileak, parte-hartzaile kopuru handi batek osatutako lantaldeak dinamizatzeko), bat wilaya bakoitzean.

Zehazki, 4. taulan jaso ditugu eztabaida-taldeen datak, lekuak eta osaera:

4. TAULA. TAILER IREKIAK

DATA	WILAYA	PARTE-HARTZAILEEN KOPURUA
2023/11/14	Aaiun	8 gizon eta 2 emakume
2023/11/14	Auserd	16 emakume eta 10 gizon
2023/11/14	Smara	9 emakume eta 5 gizon
2023/11/16	Bojador	9 emakume eta 8 gizon
2023/11/17	Dajla	6 gizon eta 12 emakume

Tailer parte-hartzaileak SEADeko Gazteria Zuzendaritzako langileek egin dituzte, Begirune Fundazioko, Ikuspegiko eta Eusko Jaurlaritzako ikertzaile-taldearen entrenamendua jaso ondoren. 2023ko azaroaren eta 2024ko apirilaren artean egin ziren.

Tailerretan lortutako informazioa itzultzaile profesional saharar batek itzuli du, Bachir M. Rayaak. Ondorengo informazioaren azterketa Begirune Fundazioko, Ikuspegiko eta Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzako teknikariek egin dute.

Tailer hauek prozesuan zehar jasotako informazioaren kalitatea aberastu dute eta profil ezberdinetako pertsonen parte hartzea ahalbidetu dute.

Tailerrak, elkarrizketak eta eztabaida taldeak gainbegiratuta egon dira, nolana ere, eta horretaz arduratu dira Begirune Fundazioko, Ikuspegiko eta Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzako taldekideak.

Tresna metodologiko horien bidez, gazte sahararren egoera ez ezik, aurreko planari buruz duten iritzia ere aztertu da, aukerari, egokitzapenari, ekintzen garapenari, hobetzeko aukerei eta abarri dagokienez.

2

ABIAPUNTUA



Amaitu gabeko nazio-askapenerako prozesua

Ezin dugu saharar gazteriari buruz hitz egiten hasi, alde zaurerik ez badugu azaltzen gazteria hori zer testuingurutan garatu zen, zer testuingurutan hazi zen, zeinetan utzi zion gazte izateari, eta zer testuingurutan eman zion bidea gerora beste gazteria batek ordezkaturiko zuen gazteriari. Bakoitza oso bestelako testuinguru soziopolitiko eta ekonomikoetan izan zen, eta arazo ezberdinei heldu behar izan zien (eta die). Hala ere, belaunaldi batzuen eta besteen arteko haustura-lerroez gain, badaude jarraipena adierazten duten lerroak ere. Hori dela eta, atzera begiratzea proposatzen dugu, orduko eta oraingo gazteen egoera testuinguruan jartzeko. Labur bada ere, sahararren nazio-askapenerako prozesuari zein saharar gizarteak bizi izan zuen barne-iraultza sozialari buruz hitz egitea oso komenigarria da gazteriaren gaur egungo egoera ulertu eta irakurri ahal izateko.

1973an, Fronte Polisarioa sortu zen, nazio-askapenerako aurreko beste mugimendu batzuen jarraipen gisa, eta gaur egun Saharako gatazka gisa ezagutzen dena hasi zen orduan. Espainiak 1975ean utzi zuen Mendebaldeko Saharako lurraldea, Marokori eta Mauritaniari hura inbaditzen utzi ostean. Baina, nor ziren sahararrak? 1844ko Berlingo Konferentzian Europako potentziek Afrikako kontinentea beren artean banatu aurretik, Sahararen mendebaldeko zerrendan artzain nomadak bizi ziren batez ere, eta hizkuntza bera hitz egiten zuten guztiek: hassania.

Artzain nomada horien gizarte-antolaketa bi printzipioren inguruan egituratzen zen: banaketa-printzipioa eta estratifikazio-printzipioa. Alde batetik, pertsona bakoitza talde politiko bateko kide zen, eta talde bakoitzak jaiotzaren edo itunen bidez errekrutatzen zituen bere kideak; talde politiko

bateko kide izateak zenbait eskubide eta betebeharrak zekartzan berekin¹. Beste alde batetik, pertsona hassania bat zenbait estatus-mailatako kide izan zitekeen: elite militar eta erlijiosoetako kide, zerga-eliteetako, bai eta eskulangilea, esklabo eta esklabo askatua ere. Ez zegoen izen bakar bat talde politiko eta estatus talde guztiak bildu, eta biztanleriak bere burua definitzeko erabiltzen zuenik. Elitea eta zergalariak kategoria berean sartzen ziren, *bīdān* (zuria) kategorian. Kategoria horretatik kanpo zeuden eskulangileak, esklaboak eta esklabo askatuak. Horrez gain, hasani “beltzak” (*sūdān*) eta hassania hitz egiten zen eskualdekoak ez ziren beltzak (*kwār*) bereizten zituzten.

Garai aurrekolonialetan, hainbat neurritakoak ziren eta ataletan eta azpiataletan banatuta zeuden talde politiko horiek indar- eta botere-harremanen bidez banatzen zituzten baliabideak; batez ere, ura eta larreak. Talde bakoitzak baliabide horiek lehentasunez eskuratzeko eskubidea zuen. Talderik ahulenek, nagusitzeko indarrak ez zutenek, babes-zerga bat ordaintzen zieten talde indartsu eta nagusiei. Pertsonak talde politikoko kide ziren odolkidetasun-ahaidetasunaren ondorioz, hau da, arbaso komun bat jatorrian zuen ondorengotza maskulinoko lerro baten bidez. Praktikan, talde batean jaiotzeagatik nahiz talde politikoak itun baten bidez pertsona bat errekrutatzeagatik izan zitezkeen talde bateko kide. Estatus-taldeei dagokienez, ezkontza-arauek debekatu egiten zuten maila baxuagoko talde bateko pertsona batekin ezkontzea. Eskulangileen kasuan, debekatuta zuten beren estatus taldetik kanpo ezkontzea. Horrela, arau eta debeku horiek guztiek indartu egiten zuten biztanleriaren estratifikazioa. Hala ere, azpimarratu behar da praktikan malgutasun handia zegoela kide-tasun-sistema horren guztiaren baitan.

Talde politikoak gobernatzeko, gatazkak eta liskarrak konpontzeko, eta baliabideak bereganatzeko eta banatzeko zenbait erakunde politiko zituzten, hala nola *jamā'ah* -taldeko kide jakintsu eta errespetatuenek osatutako kontseilua-, *shaykh* -lider moduko bat- eta *ait arba'īn* -kontsultarako eta erabakiak hartzeko tribu-arteak erakundeak-.

Espainiaren kolonia izan zen garaian, bai eta deskolonizazio garaian ere, kide-tasun-sistema horrek guztiak malgutasuna galdu zuen eta askoz

1 Antolaketa politikorako modu horri “tribu” esan izan zaio tradizionalki, edo, Afrika iparraldearen kasuan, kabila. Hala ere, “tribu” terminoak konnotazio gutxiesgarria duenean baino ez du esanahia, eta beraz, nahiago dugu ez erabili. Testuan pertsona informatzaile baten edo literatura espezializatuaren hitzetan agertzen bada, termino hori komatxoaren artean jarriko dugu.



zurrunagoa bihurtu zen politika kolonialen eraginpean. Adibide gisa, eta Afrikako menderatze kolonialetako hainbat prozesutan bezala, administrazio kolonialetan egindako inkestek identitate finko eta aldaezin bihurtu zituzten praktikan gizarte-egituraren barruan mugitzeko eta eraldatzeko aukera ematen zuten harreman askoz konplexuagoak. Mendebaldeko Saharan Erreferenduma Antolatzeko Nazio Batuen Misioak (MINURSO) laurogeita hamarreko hamarkadan balizko autodeterminazio erreferendum baten testuinguruan boto-emaeleak erregistratzea erabaki zuenean, “tribu” bateko kide izatea egiaztatzea behar zuten boto-emaeleek, eskakizun hori baitzen nagusi garai kolonialean.

1844ko Berlingo Konferentzian, Espainiak Bojador lurmuturraren eta Lurmutur Zuriaren arteko eskualdea eskatu zuen. 1885ean, Villa Cisneros (gaur egungo Dajla) eraikitzen hasi ziren, eta Rio de Oron eta Bahía Blancan fabrikak ezartzen. 1900ean, Frantziak eta Espainiak modu ezberdinean banatu zuten lurralde hori beren artean, 1904an eta 1920an hurrenez hurren egindako itunei esker. Azkenik, Mendebaldeko Sahararen iparraldeko muga 27º 40´ paraleloan ezarri zen. Orduan, Espainiak bi administrazio-barruti independentetan banatu zituen bere jabetza kolonialak: Rio de Oro

hegoaldean eta Sakia-el-Hamra iparraldean. 1958an, batu egin zituen, eta hala, Sahara Espainiarra probintzia sortu zuen.

Egungo gatazka 1975ean hasi zen, Espainiak lurralde hori utzi, eta Marokori eta Mauritaniari hura inbaditzeko bidea zabaldu zienean. Hamarkada bat lehenago, Nazio Batuek Espainiak Mendebaldeko Saharan autodeterminazio-erreferenduma egin zezala eskatu zuten. 1975ean, Nazioarteko Justizia Auzitegiak ezarri zuen Marokok eta Mauritaniak ezin zutela erreferendum hori eragotziko zuen lurralde-anexiorik egin. Hala ere, eta inbasioetatik oso egun gutxira, Espainiak Madrilgo Hiruko Akordioak sinatu zituen Marokorekin eta Mauritaniarekin, eta akordio horien bidez bi herrialdeei utzi zien Mendebaldeko Sahararen administrazioa.

1973ko maiatzaren 10ean sortu zen, Mauritaniako Zuerat herrian, Sakia-el-Hamra eta Rio de Oro Askatzeko Herri Frontea, Fronte Polisario izenez ezaguna, saharar herriaren independentziaren alde borrokatzeko helburuarekin. Hiruko Akordioak sinatu ostean, Polisarioak Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zuen 1976an. 1979an Polisarioak erretiratzera behartu zuen Mauritania, eta 1991n su-etena sinatu zuen Marokorekin. Hemezortzi urteko gerraren ostean, eta Gerra Hotzaren amaierako nazioarteko testuinguru politikoan, bakearen aldeko apustua egin zen, eta Nazio Batuek autodeterminazio-erreferenduma antolatuko zela hitz eman zuten.

1991n onartu zen Bake Plana; bi aldeek negoziatu zuten, eta Segurtasun Kontseiluak onartu zuen. Bake Planean, sei hilabeteko epean autodeterminazio-erreferenduma egingo zela jaso zen. Erreferendum horretarako errolda Espainiak 1974an egindakoa izango zen, eguneraketa txiki batzuekin. Baina MINURSOk, 2000. urtean, errolda publiko egin eta handik gutxira, Marokok bere iritzia eman zuen: NBERi partzialtasuna leporatu zion, eta esan zuen ez zuela inoiz onartuko Sahararentzako autodeterminazio-erreferendumik.

Gatazka konpontzeko ondorengo saiakerek -bereziki, James Baker AEBko Estatu idazkari ohiak (I. eta II. Baker Planak) egindakoek- porrot egin dute, planak Marokoren interesen alde egin arren. Hori izan zen negoziazioen amaiera. Harrezkero, Segurtasun Kontseiluaren ebazpenek negoziazioei berriro ekiteko aholkatzen diete aldeei, Bake Plan bat badagoela alde batera utzita. Bi aldeek onartutako Bake Plan hori ezin da gauzatu Marokoren ezezkoaren eta Frantziak, Ameriketako Estatu Batuek eta Espainiak hari emandako baldintzarik gabeko babesaren ondorioz, Segurtasun Kontseiluari planaren aplikazioa inposatzeko aukera eragozten baitiote.

Gerra garaian, saharar biztanleriaren zati handi batek ihes egin zuen Aljeriako basamortuan barrena. 1976. urteaz geroztik, Aljeriako *hamadan*² dauden errefuxiatuen kanpamentuetan bizi dira errefuxiatu gisa, Tinduf hiritik gertu. Biztanleria hori, 173.600³ pertsona inguru, bost kanpamentutan banatuta dago: Smara, Aaiun, Auserd eta Dajla (Mendebaldeko Saharako hiri nagusien izenak), gaur egun Bojador⁴ izeneko kokalekua, Emakumeen Eskola Nazionaletik sortua, eta Rabuni hiri administratiboa. Nazio Batuen ikuskaritzapean dauden beste errefuxiatuen kanpamentuak ez bezala, Polisarioak eta SEADek kudeatzen eta kontrolatzen dituzte kanpamentu horiek.

Saharako biztanleriaren beste zati bat lurralde okupatu eta lurralde liberatu esaten zaien artean bizi da. Espainiako Mendebaldeko Saharako antzinako lurraldea, 260.000 kilometro koadro gutxi gorabehera, “lotsaren harresia”⁵ izenez ezagutzen den harresi batek zatitzen du gaur egun. Harresiaren mendebaldean dagoen lurraldea, guztizkoaren % 75, Marokok kontrolatzen du, eta han daude baliabide nagusiak (Bukraako fosfato-meategiak, Tarfayaren hegoaldeko uretako arrain sardak, eta izan litezkeen petrolio-hobiak eta gas naturaleko hobiak), azpiegiturak eta hiriak. Ekialdean, Fronte Polisarioaren kontrolpean, saharar herri nomada bizi da. Kokaleku txikiak daude, horietan handiena Tifariti izanik.

Nazioarteko zuzenbidearen arabera, Marokok kontrolatzen duen lurraldearen baliabideen ustiapena saharar herriaren adostasunarekin egin behar da. Hala ezarri zuen Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak (EJJA) 2018ko otsailean. Europar Batasunak, ordea, Marokorekin negoziatzen du, EBJAk eta nazioarteko zuzenbideak ezarritakoa urratuz.

Ez da ahaztu behar Marokok indarra egin dezakeela Europar Batasunaren eta Espainiaren aurrean, EBk azken hamarkadetan garatu dituen mugak kanporatzeko politiken ondorioz⁶. Politika horien oinarria, neurri handi

2 Aljeria mendebaldeko basamortu harritsuak.

3 173.600 pertsonako biztanleria honela dago banatuta kanpamentuetan: Smara: 50.700; Aaiun: 50.500; Dajla: 19.500; Auserd: 36.400; eta Bojador: 16.500. Sexuaren arabera, % 49 emakumeak dira eta % 51 gizonak. Hori guztia UNHCRen 2017ko martxoko datuen arabera. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da UNHCRek biztanleria zibil zaugarriaren errolda egiten duela, eta, beraz, biztanleriaren zati bat – militarrek, adibidez – errolda horretatik kanpo dagoela. Gainera, kontuan hartu behar da biztanleria oso mugikorra dela. Horregatik guztiagatik, ziurrenik zenbaki errealek handiagoak izango dira.

4 Lehen “27 de Febrero” kanpamentua.

5 Egungo harresia, egiaz, Marokok 1980tik 1986ra bitartean Israelgo ingeniariarekin, Saudi Arabiako finantzaketarekin eta AEBko armamentuarekin eraikitako harresien perimetroak osatzen du. Hareazko eta harrizko eraikuntzak dira, eta minak dituzte kanpoaldean.


6 Eta horrez gain, AEBren eta Frantziaren babesa ere badu gatazkaren hasieratik.



batean, beste batzuek mugak bere ordeztzatzea da, eta migrazioa instrumentalizatzea eramatean dute ezinbestean, arma politiko boteretsu bihurtuz. Aldaketak eragiteko edo EBetik kontzesioak lortzeko arma. Hala ikusi zen 2021ean. Orduan, Marokok 10.000 pertsona baino gehiago Ceutan modu irregularrean sartzea ahalbidetu zuen, bi eguneko epean. Brahim Ghali Polisarioko liderra ospitaleratu izanaren errepresalia gisa ari zen jokatzeko herrialde alaiua; izan ere, Espainiaren aldetik leialtasun faltatzen gertaera hori. Eta Marokok gertaera hori baliatu zuen Espainia Marokoren alde jartzeko, hau da, Mendebaldeko Sahararen burujabetza Marokorena dela onartzera behartzeko⁷.

7 2022ko ekainean, Espainiako Gobernuak presidente Pedro Sanchezek Marokoren autonomia-proposamena onartu zuen, oinarri "serioena, errealistena eta sinesgarriena" zela esanez. Marokok 2007ko apirilean aurkeztu zuen Mendebaldeko Sahararentzako autonomia-plana ("Saharako autonomia-estatutua negoziatzeko Marokoren ekimena"). Proposamen horrek aurrekariak ditu 1985ean, 2001ean eta 2003an.

Testuinguru horretan, Saharako gainerako biztanleriaren zati bat inguruko herrialdeetan bizi da, batez ere Aljerian eta Mauritania, eta beste bat Europan, batez ere Espainian eta Italian.



WESTERN_SAHARA_WALLS_MOROCCAN_MAP-EN.SVG: *WESTERN_SAHARA_WALLS_MOROCCAN.PNG: USER:ROKEWESTERN_SAHARA_LOCATION_MAP.SVG: NORDNORDWESTDERIATIVE WORK: MOTTY (TALK) DERIVATIVE WORK: ROBOT8A (TALK) - WESTERN_SAHARA_WALLS_MOROCCAN_MAP-EN.SVG, CC BY-SA 3.0. [HTTPS://COMMONS.WIKIMEDIA.ORG/W/INDEX.PHP?CURID=17523829](https://commons.wikimedia.org/w/index.php?curid=17523829)

Hemendik aurrera, eta aurrerapen gisa, garrantzitsua da azpimarratzea azterketa honetako konstanteetako bat dela jakitea biztanleria hori guztia puntu geografiko horien artean mugitzen dela. Beraz, gaur egun, sahararren eta, bereziki, gazteen dinamikak eta prozesuak ulertzeko, kontuan hartu behar da bai mugikortasun hori, bai biztanleria horren gizarte-espazioa puntu geografiko horietan guztietan eta horien bidez eraikitzen dela. Saharar herriaren bizitza ekonomikoa, soziala eta politikoa *nazioz gaindiko espazio sozial* batean egituratzen da.

Barne-iraultza soziala

Polisarioa agertu zenean, askapen nazionalaren aldeko borrokarekin batera, subjektu nazional bat sortzeko eta eratzeko barne-iraultza soziala ere gertatu zen. Horrek eraldaketa eta aldaketa ugari ekarri zituen iraultzaren aurreko saharar gizartean. 1975ean Saharako talde politiko ezberdinek eta Polisarioko buruzagi gazteek Batasun Nazionalako ituna sinatu zuten. Itun horren bidez, aurretik zegoen antolaketa politikoa indargabetu egin zen eta *saharar herria* eratu zen saharar nazio politikoaren oinarri gisa. Herri horrek Mendebaldeko Sahararen gainean subiranotasun nazionalerako eskubidea aldarrikatzeak berekin zekarren, halaber, taldeek artzain-baliabideen gainean zituzten eskubide zaharrak desagertzea, eta horrek, era berean, haien arteko hierarkiak markatzen zituzten ordainketen eta transferentzien amaiera zekarren.

Caratiniren arabera (2006), prozesu horren alderdirik deigarrienetako eta apurtzaileenetako bat izan zen protagonistak, lehen aldiz, nagusien aurrean botere-posizioan zeuden gazteak zirela. Gertaera horrek iraultzaren aurreko saharar gizartearen egiturazko printzipioetako bat hausten zuen: adinekoaren nagusitasunaren printzipioa.

Esan bezala, Saharako gizarte tradizionalan, taldeak ahaidetasun-harremenez eratuta zeuden, aitaren lerroari jarraituta, eta prestigio handiko arbaso komun bat zuten. Sistema hartan, taldearen nortasun politikoa ondorengotza patrilineal komuna izatean oinarritzen zen. Talde bakoitzean, erabakiak gizonezkoen batzar batek hartzen zituen. Baina, nahiz eta hasiera batean gizon guztiak berdinak izan eskubideei zegokienez, harreman sozialak hierarkizatuta zeuden, adinez zaharrena zen pertsonaren agintepean. Hala, familia bakoitzean, gizonezko senide zaharrenaren autoritatearen nagusitasuna zen araua⁸. Arau hori, Caratiniren arabera: “... *erabat barneratuta zegoen. Indargabetu nahi zuenak, ezin izaten zuen egin deserosotasunaren eta ezin erreprimitzeko lotsaren indarrak jota. Heziketa nomadak, nolabait, pultsioen autoerresio-mekanismo bat eraiki zuen banakoen egitura psikikoan, eta, mekanismo horren bidez, ezohiko bihurtu zen adinekoen mende ez jartzea*” (2006: 6). Autore honek arau edo, nahi izanez gero, *habitus* horren indarra azaltzeko dio, estaturik ezean, gizarte-antolaketak bakea eta gizarte-kohesioa bermatu behar zituela.

8 Hierarkia hori ahaide zaharragoen agintepean geratzen ziren emakumeen kasuan ere gertatzen zen, batez ere aitaren aldekoen ahaideen agintepean geratzen baziren. Pertsona batek amaren aldeko senideekin zituen harremanak ziren hierarkizatu gabeko bakarrak.



Nor ziren independentziaren aldeko borroka aurrera eramateaz arduratu ziren eta sahararren ordezkari legitimoztat onartu zituzten gazte horiek? Iragan mendeko berrogeiko eta berrogeita hamarreko hamarkadan jaiotako belaunaldia zen, eta, lehen aldiz, inguru hurbiletik atera ziren, Espainiako hezkuntza-sisteman eta Magrebeko eskoletan eta unibertsitateetan eskolatuak izateko. Belaunaldi hori ideologia antikolonialistaz eta sozialistaz inguratuta heldu zen, eta sozialismoaren arabiar formak eta gizarte nomadaren berezko balioak uztartuko zituen nazio-askapenerako proiektu propio batekin,. Alde horretatik, antolaketa tradizionalak saharar herriaren batasuna oztopatzen zuen. Gazteek buruzagi ohien aukera baketsuari aurre egin behar izan zioten, eta borroka horrek izaera estrategikoa -bakea ala gerra- zein soziopolitiko -nazioa ala “tribua”- izan zituen (Ruiz Miguel, 2022). Dena dela ere, nazioaren aldeko hautuak ez zituen desagerrarazten leinu edo talde politiko baten kide izatearen sentimendua eta indarra; izan ere, elkartasun-harremanen eta abegikortasun-senaren oinarri ere baziren, eta horiei eutsi nahi zieten.

Sistema tradizionalaren abolizioaren ondorioz, sahararrek ezin zituzten jada beren jatorrizko taldeak aipatu. Ahaztu egin behar izan zituzten arbasoak, edo, hobeto esanda, odolaren bidezko ondorengotzaren eta kidetasunaren

ideia. Sistema tradizionalaren abolizioaz gain, eta berdintasun- eta askatasun-printzipioaren izenean, esklabotza ere abolitu zen, eta gizonei eta emakumeei eskubide berberak eman zitzaizkien. Boto-eskubidea eskuratzeaz gain, une horretatik aurrera emakumeek beren baimena eman behar zuten ezkontzeko, ezkonsaria⁹ desagertu egin zen, bai eta ablazioa eta neskatilak gizentzeko praktikak ere¹⁰.

Hala ere, sistema hura desmuntatzeko eta desegiteko prozesuaren eta estatu-boterearen eraikuntzaren arteko harremanak konplexuak dira. Hasiera batean “tribua” debekatuta bazegoen ere, denborarekin sistema tradizionalan eraikitako harreman sozialak balio handikoak izan ziren estatu-boterea eraikitzeko. Itxurazko kontraesan konplexu hori sakon aztertu du Wilsonek (2016), eta palimpsesto baten irudia proposatzen digu ulertzeko; eskuizkribu horrek aurreko beste idazkera baten aztarnak gordetzen ditu, baina berriaz eta etengabe berrinterpretatu da, orain dagoenari lekua egiteko. Gizarte-sistema tradizionalaren harremanak nolabait birziklatu egin ziren subiranotasun-proiektu berri bat sortzeko, estatu-boterearena. Hastapenetan, egia da antolaketa politiko tradizionala botere hori sendotzeko aurkari gisa ikusi zutela. Horregatik debekatu zuten, eta horregatik iruditu zitzairen beharrezkoa hura ezabatzea. Hala ere, antzinako kontzejua edo *jamā`ah* birmoldatu egin zuten nahita, botere berriari zilegitasuna emango zion herentzia demokratikoa argudiatu ahal izateko. Epe luzera, eta kanpamentuen testuinguruan, ekonomiaren merkantilizazioak eta hauteskundeetan botoa emateak aukera berriak sortu ditu, batzuetan leialtasun tradizionalak helburu iraultzaileen ginetik jartzeko. Hortaz, ez da harreman tradizionalen eta estatu-boterearen arteko aurkakotasun soil bat. Izan ere, Wilson-ek (2002) ondorioztatzen duenez, prozesu osoaren azterketak agerian uzten du bi erlazio motak batera egon daitezkeela, gainjarrita.

9 Testu askotan ezkonsaria aipatzen den arren, egiaz ezkongaien familien arteko truke-sare konplexu bat zegoen. Eta, edozein kasutan, truke horien parte nagusia *sadāqa* zen, hau da, emaztegaiaren truke ematen den ordaina (senargaiaren familiaren ondasunak emaztegaiaren familiari ematea), eta horrek, besteak beste, emaztearengandik jaiotako seme-alabak senarraren filiazio taldeko eskubide osoko kide izatea eragiten du.

10 Bost eta hemeretzi urte bitarteko neskatoei jaten ematea, ezkontzeko aukera gehiago izan zitzairen; izan ere, gorputzen bolumenak aberastasuna, desiragarritasuna eta ugalkortasuna adierazten zituen. Praktika hori errotik kendu bazen ere, emakumezkoen gorputzari buruzko estereotipoak badirau oraindik, eta, horren ondorioz, emakume batzuek kortikoideak erabiltzen dituzte pisua hartzeko, eta larruazala koloregabetzen duten kremak erabiltzen dituzte. Hala diote Vilchesek eta Esparzak (2017), eta horixe ohartarazi zuten emakumeen osasunean dituzten eraginei buruzko diagnostikoan. *Wilaya* guztietako osasun- eta psikologia-taldeen praktika horien prebentzioan dihardute.



Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuak

Gerra-garaiak

Aljeriako *hamadan* hirurogeita hamarreko hamarkadan, gerraren eta biztanleria zibilaren ihesaren testuinguruan, presaka ezarritako kokalekua antolatzeko, hiru kanpamentu handi edo *wilaya* sortu ziren: Aaiun, Smara eta Dajla; 1985ean, Auserd batu zitzairen. *Wilaya* horietako bakoitza hainbat *daira* edo udalerritan banatu zen. *Daira* bakoitza lau auzotan edo denda multzotan *-haima-* banatzen zen. Auzo bakoitzean, emakumeak auzo-batzordetan antolatzen ziren (hezkuntza, osasuna, ekoizpena, elikagaien banaketa eta justizia). Auzo-batzorde horietako arduradunek *dairerako* (udalerririak) eta *wilayerako* (eskualdeak) batzordeak osatzen zituzten. Eskualde-batzordeetako arduradunek izendatzen zituzten, halaber, nazio-mailan haiek ordezkaturiko zituztenak. Antolaketa-egitura horrek koordinazio horizontala –oinarrizko batzordeak *wilayaren* eremuan– eta bertikala bermatzen zituen, eskualdeen eta estatuko kupularen artean. Geroago, gune administratibo bat sortu zen Rabunin, eta han daude zentralizatuta SEADeko ministerioetako organoak, bai eta bertan diharduten erakunde humanitarioak ere.

Emakumezkoak aipatu ditugu, eta, zalantzarik gabe, emakumeak izan ziren etapa horretako protagonista nagusiak. Gerrarako gai ziren gizonezko guztiei horretarako dei egin zirenez, emakumeak egin ziren bizimodu zibilaren erantzule, ardurak hartu zituzten eta kanpamentuak antolatzeaz ere arduratu ziren. Caratiniren arabera (2006), emakumeek zeregin horiek beren gain hartzea ez zen arraroa izan; izan ere, bizimodu nomada zaharrean ohikoa zen bakarrik gelditzea eta eguneroko bizitza kudeatzea, gizonik ez zegoenean.

1974an Polisarioak Saharar Emakumeen Batasun Nazionalaren (SEBN) sorrera bultzatu zuen, eta beste hainbat ekintzaren, artean emakumeentzako

prestakuntza-zentro bat antolatu zuen: Otsailaren 27ko Eskola¹¹. Batzordeen buru izateaz gain, emakumeak gehiengoa ziren Langileen Batasun Orokorrean eta Gazteriaren Batasun Nazionalean; erakunde horiek piramidalak ziren, eta batzordeen gainera zeuden. Oraindik denbora falta zen emakume saharar batek gobernuan kargua izateko, baina, zalantzarik gabe, emakumearen eginkizuna erabat funtsezkoa izan zen hasiera-hasieratik, bai kanpamentuen garapen materialari dagokionez, bai familia- eta gizarte-loturak eraikitzeari eta mantentzeari zegokionez, lotura horiek behar-beharrezkoak baitira babeslekukoa bezain egoera larrian (Dubois *et al.* 2011). Aldaketa esanguratsu horren ondorioz, emakumearen definizio sozial eta publiko berria eta kolektiboaren barruan duen rol tradizionala gainjartzen dira, hau da, egitura formal berria versus egituraketa informal historikoa.

Lehen urte horietan, Polisarioa hezkuntza- eta osasun-sistema baten oinarriak ezartzen joan zen, herritar guztiek zerbitzu horietara sarbidea izan zezaten bermatzeko¹², eta gaur egun dirauen egitura politiko eta administratiboa sortu zen. Prestakuntzari dagokionez, 1977. urterako bazegoen jada hiru urteko hezkuntza programa bat. 80ko hamarkadatik aurrera, honela egituratu zen hezkuntza-sistema: haurtzaindegiak, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza, azken hori Lanbide Heziketako eta Batxilergoko adarrekin. Batxilergoa, Aljerian egin ohi zuten-eta dute-, edota eraiki ziren barnetegietan. Unibertsitate-hezkuntza atzerrian egin ohi da, besteak beste Aljeriarekin, Libiarekin eta Kubarekin dituzten lankidetzeta-hitzarmenei esker. Egitura horri guztiari esker, Saharako gazte unibertsitatearen belaunaldi bat prestatu ahal izan zen, eta, kanpamentuetara itzultzean, bertako zerbitzuetan hasi ziren lanean: eskolak, ospitaleak, ministerioak eta abar. (Dubois *et al.*, 2011).

Ekonomikoki, diru-sarrerei dagokienez, SEAD nazioarteko laguntzaren mende zegoen, bizirauteko bai eta estatuari berari eusteko ere. Laguntza horrek izaera politiko nabarmena izan zuen hasieran, baina laurogeiko hamarkadaren amaieran nazioarteko politikan izandako aldaketek geroztik¹³, nazioarteko erakunde humanitarioek hartuko dute protagonismoa, hala nola Iheslarietako Nazio Batuen Goi Mandatariak (UNHCR) eta Munduko Elikadura Programak (MEP). Denborarekin, Europako zenbait herrialdeetako

11 Gaur egungo Bojador.

12 Hamar urtean, analfabetismo-tasa % 72,55ekoa izatetik, 3 eta 16 urte bitarteko biztanleria osoa (baita emakumezkoak ere) eskolatzera igaro zen. Osasunaren arloan, herritarrek beren burua antolatu zuten, eta prebentzio-sistema bat ezarri zen, higie- eta nutrizio-neurriak hartuta (Dubois *et al.*, 2011).

13 Hain zuzen ere, Aljeria geroago Gerra Zibila ekarriko zuen krisi bete-betean zegoen; Libiak ituna egin du Marokorekin; Kubak atzera egin du AEBren blokeoaren ondorioz; eta ekialdeko herrialdeak eraldaketa betean daude.

Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeen (GGKE) parte-hartzea ere handitu da, Italiako eta Espainiako erakundeena, besteak beste.

Laguntza humanitarioari dagokionez, kontuan hartu behar da, halaber, saharrek berek iragankortzat hartzen dutela bizi duten egoera, eta hura aldatzea espero dutela, jatorrizko lurraldera itzultzeko. Ez zituzten begi onez ikusten izaera egonkorragoa zuten edo epe luzeagora begira antolatutako lankidetzaren proiektuak, horiek martxan jartzeak ilundu egiten baitzuen haien errefuxiatu, nomada eta behin-behineko egoera. Gainera, bizi zuten gerra-testuinguruak markatzen zituen bai herritarren bai Polisarioaren lehentasunak eta ahaleginak.



Ez bake, ez gerra

1991ko su-etenarekin, sahararrek berehala beren herrialdera itzultzeko aukera ikusi zuten. Azpiegitura batzuk desegiten hasi ziren kanpamentuetan, eta UNHCR biztanleria jatorrira eramateak zer gastu izan zitzakeen ebaluatzen hasi zen (Caballero Macarro, 2015). Hala ere, laster ikusi zen su-etenak ez zuela itzulera esan nahi, eta erreferenduma antolatzekeo prozesua nekeza eta korapilatsua izango zela. Horrek ezintasun, etsipen eta frustrazio handia eragin zituen biztanleriarengan.

Su-etenaren ondorio logikoetako bat gizonak kanpamentuetara itzultzea izan zen. Ordura arte emakumeak izan baziren antolaketaren eta kudeaketaren arduradunak, gizonen itzulerarekin haien presentzia handitu egin zen erabaki-organoetan.

Hamarkada horretako beste fenomeno izan zen kanpamentuetan kanpoko dirua sartzen hasi zela, hainbat bidetatik: Espainia erretiroak ordaintzen hasi zen, 1975 baino lehen harentzat lan egin zuten pertsonei; diru-bidalketak egiten ziren Oporrak Bakean¹⁴ programaren onuradun ziren neska-mutilen bidez; dirua sartzen zen programa horretako harrera-familiek kanpamentuetara egindako bidaien bidez; beste herrialde batzuetara migratu eta han finkatutakoak diru-bidalketa egiten hasi ziren.

Diru-sarrera horiek familia askori lagundu zieten, eta, ordutik aurrera, laguntza humanitarioak emandako elikagaien oinarritzko saskia osatu ahal izan zuten. Saski horrek, urteen joanarekin eta nazioarteko beste gatazka batzuen agerpenarekin, murriztuta ikusi zuen edukia. Izan ere, kanpotik datozen diru-sarrerak hain dira garrantzitsuak, ezen MEPk (Munduko Elikadura Programa) “etxe oso kalteberak” izendatzen baititu halakorik ez duten familiak (Caballero Macarro, 2015). Testuinguru horretan, diru-sarrek bereizketa eta desberdintasun sozioekonomikoa eragin zituzten ezinbestean, eta prozesu hori aurretik zeuden beste arazo batzuekin lotu zen, hala nola generoari eta azalaren koloreari zegozkionekin.

14 1979an iritsi ziren lehen aldiz Saharako haurrak Espainiara, Polisarioaren eta PCEn lankidetzari esker. Helburua haurrak basamortuko bizi-baldintza gogorretatik aldentzea zen, batez ere udako hilabeteetan, eta une hartan, gerra-testuinguruan. Esperientzia arrakastatsua izan zenez, 80ko hamarkadaren erdialdean Oporrak Bakean programa sortu zen. Programa horren bidez, Espainiako familiek 12 urtera arteko haurrak hartzen dituzte udako hilabeteetan, eta bere gain hartzen dituzte ostatua, mantenua eta hezkuntzaren zati bat.

Diruarekin, merkataritza-logika agertu zen kanpamentuetan, eta jarduera ekonomiko berriak sortu ziren, batez ere merkataritzaren, zerbitzuen eta eraikuntzaren alorrekoak. 90eko hamarkadan hasitako merkataritza-jarduera da gaur egun jarduera ekonomiko garrantzitsuena. Dirua sartzearekin batera, elikagaiak eta osasun-produktuak saltzen zituzten denda txikiak agertu ziren kanpamentuetan. *Wilaya* batzuetan *marsan* (merkatuak) deritzenak ere agertu ziren. Leku horietan, produktu-aukera handiagoa da, eta, besteak beste, ehunak, apaingarriak, okela, kosmetikoak, eta eskulangintzako produktuak eskuratu daitezke haietan. Merkatu horiekin batera, gero eta ugariagoak dira jatetxeak, ibilgailuen konponketarako eta erregaiak saltzeko lantegiak, ile-apaindegia, etab.

Sahararren jarduera tradizionalari dagokionez, funtsean abeltzaintza, oraindik ere egiten da, baina lurralde liberatuan. Kanpamentuetan, familia bakoitzak ahuntz batzuk eta, kasu batzuetan, dromedario batzuk baino ez ditu. Industria- eta nekazaritza-jarduerak urriak dira, nahiz eta hainbat proiektu dauden martxan. Badira emakumeak buru dituzten eskulangintzako ekimenak, Saharar Emakumeen Batasun Nazionalaren eta nazioarteko lankidetzaren babespean daudenak.

Oinarrizko azpiegiturei dagokienez ere, hamarkada horretatik aurrera hasi ziren aldaketak: bizileku gisa *haima* multzoak eta edukiontzia izatetik, erabilera publikorako eta pribaturako azpiegitura berriak izatera igaro ziren. Inbertsio pribatuak ez ezik, garapenerako lankidetzak ere sustatu du eraikuntza zibila. Saharako etxe-egituren arkitekturaren bilakaerak agerian uzten du gizarte-desberdintasunak agertzen eta areagotzen ari direla, eta horrek gizarte-harremanetan zer-nolako eragina duen. *Haima* multzoetatik adobezko etxe txikietara igaro ziren, eta gero, hormigoï prefabrikatuzko blokezko hormak eta zinkezko xafla hautsizko estalkiak zituztenetara. Esanguratsua da, Caratinik (2006) dioen bezala, dirua sartzearekin batera giltzak agertu zirela. Eta, haiekin batera, itxi beharreko hesiak eta ateak, kanpora begirako eta familia sozializatzeko gune irekia espazio pribatu eta babestu bihurtu zutenak. Familia-logikak logika komunitarioen edo kolektiboen gainetik jarriko zituen aldaketa baten hasiera izan zitekeen.

Lan-merkatuari dagokionez, Trasasmontesen azterketak (2011) erakusten du zaila dela analisi bat egitea estatistika-iturririk ez dagoenean. Enplegu-aukerak sektore publikora eta garapenerako lankidetzara murrizten dira. Baina sektore publikorako aurrekontua ia hutsala denez, enplegu mota horren aukerak oso mugatuak dira. Ikertzaile horren arabera, azken hamarkadan biztanleria aktiboaren hazkundea gertatu da garapenerako lankidetzaren

gorakadari lotuta, eta hein handi batean, horrek lanaren konpentsazio gisa eskaintzen dituen pizgarri ekonomikoengatik gertatzen da hori. Enplegu publikoa oso garrantzitsua da hezkuntzan eta osasunean, baina, baliabide eta pizgarri faltaren ondorioz, kualifikazio-maila handiko pertsona asko atzerrira joan dira.

Kanpamentuetan langabeziaren kontzeptua definitzeko zailtasunak izan arren, hiru kontu aipatzen ditu egileak bere azterketaren amaieran. Batetik, langabezia horrek neurri handiagoan eragiten diela herritar ahulenei: gazteei, emakumeei, desgaitasunen bat dutenei eta biztanleria beltzari. Bestetik, egoera horrek frustrazio- eta etsipen-maila handiak eragiten dituela. Eta, azkenik, galdu egiten dela goi-mailako kualifikazioa duen biztanleria, beste herrialde batzuetan bilatzen baitute lana; migrazioei buruzko literaturan, “aditu-ihesa” esaten zaio fenomeno horri.

Hain zuzen ere, bada belaunaldi oso bat (“bigarren belaunaldi polisarioa”) iragan mendeko laurogeiko hamarkadan Kuba, Aljeria, Libia, Siria eta beste herrialde batzuetan prestatu, eta laurogeita hamarreko hamarkadan



kanpamentuetara itzuli zena; beren ezagutza eta lanari esker, kualifikazio-maila handiko funtzionarioen kidegoa osatzen lagundu zuten. Baina, azkenik, gatazkak konponbiderik gabe jarraitzen duenez, diru-sarrerarik ez dagoenez eta kanpamentuen ezohiko egoeraren ondorioz, gazte horiek, prestakuntza-urteetan atzerriko erbestea bizi izan duten horiek, zapuztuta ikusten dituzte bere amets eta itxaropenak. Egoera berri horren aurrean, Fronte Polisarioak mugikortasun-politika lasaitu zuen, eta prestakuntza onena zuten profesioletako askori kanpora ateratzen utzi zien. Talde horretako kideek berrogei urtetik berrogeita hamabost urtera bitartean dituzte gaur egun. Diaspora kontrolatu hori estatu-nazio burujabe bat izango zenaren burokrazia administratiboa eratzera bideratuta zegoen, baina, gaur-gaurkoz, indeterminazio-eremu batean edo *ez-leku* batean dago kokatuta.

Baina migrazio-talde horrez gain, Gómez Martinen (2010) sailkapenaren arabera, Espainian sahararren beste migratzaile talde batzuk ere badaude:

- a. Hezkuntza-maila apala duten eta irregulartasun-egoeran dauden lurralde okupatuetao saharar gazteak;
- b. Tindufeko edo Mauritaniako kanpamentuetatik etorritako familia osoak;
- c. “Oporrak Bakean” programatik igaro ondoren, Espainian geratzea lortu duten kanpamentuetako saharar nerabeak;
- d. Arrazoi medikoak direla eta, Espainian sartu eta bertan bizitzen gelditzen saiatu diren adineko pertsonak eta gaixoak;
- e. Polisarioak autonomia-erkidegoetan dituen ordezkariak eta SEADeko gobernuko langileak, diplomazia-lanak egiten dituztenak, Espainiako estatuaren berariazko onarpenik jaso gabe.

Kanpamentuetatik egindako biztanleria-mugimenduek ez dute beti Polisarioaren aldetik iritzi bera izan. Lehen urteetan, kanpamentuetatik alde egitea abandonu, traizio eta berekoikeria gisa interpretatzen zen, norberaren onuran baino ez pentsatzea. Agian horregatik, beharrezkoa denean kanpamentuetara itzultzeko eta saharar herriaren kausa espazio berrietara eramateko promesa inplizitua dago. Hain zuzen ere, Caratinik (2006) dioen bezala, Saharako kanpamentuetan, alde egiten duen errefuxiatuen biztanleria beti itzultzen da, eta ziur asko hori ez da gertatzen beste edozein errefuxiatuen kanpamentutan. Beste herrialde batzuetara joandako saharar

gazteak familiak bisitatzera itzultzen dira, eta diru-sarreraren parte bat ere bidaltzen diete erregulartasunez.

Diru-bidalketa horiek dira, gaur egun, diru-sarrerarik garrantzitsuenak beren bizitza hobetu ahal izan duten eta premiazkoak ez diren ondasunak eskuratu ahal izan dituzten familia askorentzat. Oso zaila da diru-bidalketen bolumena ezagutzea, izan ere, diru-bidalketak bide ez-formaletatik egiten dira, gehienetan senideen, lagunaren eta konfiantzazko jendearen bidez. Informaltasun horrek, Trasmontesek (2011) dioenez, ez du baliabideen kanalizazioari buruzko plangintzarik egiteko aukerarik ematen. Zeregin horrek haien bankarizazioa ekarriko luke, baina finantza-sistematik ez egoteak ez du hori posible egiten.

Berriz ere gerra

2020ko azaroan, Marokok su-etena hautsi zuela iragarri zuen Polisarioak, eta gerrara itzuliko zela. Hala erantzun zioten Marokoko indarrek Gergerateko¹⁵ pasabidean –Mauritania eta Marokok Mendebaldeko Saharan okupatutako lurraldea lotzen dituen muga- egindako erasoari. Harrezkero, intentsitate baxuko gatazka-egoera batean bizi dira: Fronte Polisarioak Marokoren posizioen aurkako artilleria-erasoak jo ditu harresian zehar, eta Marokok droneen bidez egindako erasoak jo ditu, biztanleria zibilaren baja ugari eraginez.

Gatazka armatua berpizteak mugimendu handia eragin du saharar gazteen aldetik, bai kanpamentuetako gazteen artean, bai diasporako gazteen artean, mobilizatu egin baitira eta Polisarioko milizietan sartzea eskatu baitute. Halaber, eremu liberatuko biztanleria, 15.000 pertsona inguru, Tindufeko kanpamentuetara edo Mauritaniara eraman dituzte egoera berriaren ondorioz.

15 2015-2016tik liskarrak izan ziren Gergeraten eta La Gueran. Kontuan izan behar da puntu geografiko hori funtsezkoa dela; izan ere, nahiz eta Marokok ezin duen erabili bake-akordioetan ezarritakoaren arabera, Mendebaldeko Saharatik Afrikara legez kanpo ateratzen diren produktuen esportazioak Dajlatik Mauritaniara doan bidea egiten du puntu horretatik igarota. 2020ko urriaren 21ean, kanpamentuetako zibil sahararrak eremu horretara joan ziren, Marokoko harresiaren eta Mauritaniako mugaren artean, eta zirkulazioa blokeatu zuten, Marokok legez kanpo okupatutako lurraldean lortutako produktuak esportatzea eragozteko. Fronte Polisarioaren ohartarazpenei entzungor eginez, Marokok harresia zeharkatu zuen, zibil sahararrei eraso eta haiek sakabanatuz. Egun horretan bertan, azaroaren 13an, Fronte Polisarioak gerrara itzuliko zela iragarri zuen.

Saharar gazteria: bi diskurtso

*“Zein da Saharako egoera? Galdera guztiek erantzun
bera dute: nola zabaldu etorkizuneko aukerak”*

Gazte bat, Auserd

Gazteria deritzogun kategoria testuinguru ekonomiko, politiko eta sozial espezifikoetan eraikitzen da, eta sahararren egoera berezi eta bakarra dela-eta, ezinbestekoa da testuinguru horiek inoiz baino presenteago izatea. Ikusi dugu adinekoen nagusitasun-printzipioak egituratu zuela saharar gizartea hirurogeita hamarrekoko hamarkadara arte, eta orduan, gazte iraultzaile talde batek printzipio hori hautsi zula. Burujabetza-prozesua nazio-askapenerako mugimendu gisa bilatzeko gizarte moderno bihurtu behar izateak ekarri zuen etenaren ondorioz, aurreko gizartearen berezko kultura-estratifikazioaren hausturekin zerikusirik ez zuten kategoria politikoak agertu ziren. *Ordezkapen-egitura* bat sortu bazen ere,aldi berean, aurreko egitura indartu egin zen, eta ez zen inoiz desagertu. Batzuetan, zahararren eta berriaren arteko nahasketa horren mugak ez dira ikusten, ez dakigularik non amaitzen den bata eta non hasten bestea, ez eta bietako zein den boteretsuena ere.

Baina nor dira saharar gazteak? Zer adin-tarte hartzen ditu biztanleria talde horrek? Diagnostiko honetan hamabost eta berrogeita bost urte bitarteko biztanleria hartuko da kontuan. Adin-tarte hori oso zabala da, jakina, eta bizi-egoera oso ezberdinak hartzen ditu bere baitan; zerikusi gutxi du hamasei urteko nerabe batek hogeita hamabost urteko gazte batekin. Hain adin-tarte zabala hartzeko ez zaio hainbeste begiratu ezaugarri biologikoei, baizik eta Saharako gizartearen egiturari berari. Gizarte gehienetan, nerabegarotik eta gaztarotik heldutasunera igarotzeko, amatasun-/aitatasun-egitura igaro behar izaten da. Baina beste aldagai batzuk –soziolaboralak eta soziokulturalak– jartzen dira gizakiaren bilakaerara eta garapenera ondoen egokitzen direla diruditen sailkapenen tartean.

Saharar gazteriari buruz 2017an egin zen lehen diagnostikoak hamabost eta hogeita hamar urte bitarteko adina hartu zuen azterketarako adin-tarte gisa. Ikerketa honetan, administratiboki zehaztutako adin tarte hartu dute,

hamabost urtetik berrogeita bost urtera. Irizpide administratibo horrekin batera, bada beste irizpide sozial bat ere, ohiturazkoa: adin soziokulturala. Normalean, ezkongabe izatetik ezkondata egotera igarotzeak mugatzen du adin hori gizarte guztietan.

Seguraski, kanpamentuen lan-egoera eta egoera ekonomiko *bereziak* azaltzen du irizpide administratibo; izan ere, gazteak ezin dira -ia ez dagoen- lan-merkatuan sartu, mendebaldeko estandarren arabera, eta horrenbestez, ezin dute independentzia ekonomikorik lortu. Irizpide horren eraketan eragina duten beste faktore batzuk ere Fronte Polisarioak esperientzia militar eta administratiboari esleitzen dizkion lehentasunen ondorio dira. Azkenik, ikerketan zehar ikusiko den bezala, adin-tarte horiek belaunaldi ezberdinen artean ematen ari den interes-gatazka latentea ere uzten dute agerian.

I. TAULA. KANPAMENTUETAKO GUTXI GORABEHERAKO BIZTANLERIA

ADINA	BIZTANLERIA	GIZONAK	EMAKUMEA
18-49 urte	78.600	40.000	38.600
15-17 urte	9.300	4.600	4.700
Guztizko biztanleria	173.600		

Gazteriari buruz ditugun azken datuen arabera¹⁶, 18-49 urteko 78.600 pertsona daude guztira. 18-49 urteko taldea 38.600 emakumek eta 40.000 gizonen osatzen dute. 15-17 urtekoiek dagokienez, 4.700 emakume eta 4.600 gizon dira.

Elkarrizketatutako pertsona ezberdinen kontakizunaren bidez, kanpamentuetako saharar gazteen egoerari heltzen diogunean, uste dugu errefuxiatuen kanpamentuetan bizitzeari eta garatzeari dagokion testuingurua dela edozein azterketa egiteko abiapuntu izan behar den elementu nagusia:

Kontziente izan behar dugu gazteek erbeste-egoera bizi izan dutela (...) kontraesankorrak diren bi kontzepturi aurre egin behar izan diete: alde batetik, bizi egin behar dute, hemen daudelako, eta bestetik, askapena, existitzeko borrokatu beharra (Fronte Polisarioko Idazkaritza Nagusia).

16 UNCHR txostena, 2017ko martxoa. Ikus: [file:///C:/Users/HP/Downloads/UNHCR_Tindouf-Total-In-Camp-Population_March-2018%20\(1\)%20\(1\).pdf](file:///C:/Users/HP/Downloads/UNHCR_Tindouf-Total-In-Camp-Population_March-2018%20(1)%20(1).pdf). Gogoan izan errolda hori biztanleria zibil zaugarria kontuan hartuta egiten dela, eta, beraz, biztanleriaren zati bat -militarra, adibidez- erroldatik kanpo dagoela. Horri gehitu behar zaio biztanleria oso mugikorra dela.

Saharako gazteriak badu ezaugarri bat berezi egiten duena eta besteengandik bereizten duena. Esan nahi dut egoera berezi batean jaio zela eta oraindik egoera horretan bizi behar duela. Adibidez, gerra, gurasoak kanpoan zeudela hazi zena, eta hain zuzen ere, ikasketak direla eta, ez daude inoiz etxean... (Fronte Polisarioko Idazkaritza Nagusia).

Egoera horrek biziraupenari dagokionez eragindako zailtasun material guztiei beste hau ere batu behar zaie: kanpamentuetako espazioa eta denbora iragankor gisa pentsatu zituen iruditeria kolektiboaren porrota. Horren guztiaren ondorioz, oro har gazteriari buruz galdetzean, itxaropenik eza eta frustrazioa agertzen dira lehenik:



Nik sentitzen dudan lehenengo gauza, eta gazte guztiek hala sentitzen dutela uste dut, dezepzioa da. Jendea nazkatuta eta etsita dago. Batez ere, beste batzuekin interakzioa izatea eragiten duten gaiez eta jardueraz ari garenean. Lankidetzaren motaren bat bada eta sahararren arteko barneko zerbait bada, egin dezakegu aurrera. Baina tartean kanpoko eragileak badaude, zaila egiten zaigu jarraitzea. Oraitxe bertan gazteria erabat etsita dagoela uste dut. Askotan zerbaiten emaitzaren zain geratzen gara, eta dena delakoagatik ez da iristen. Eta batez ere norbaitekin elkarlanean ari garenean eta gero ez dakigunean gauzak nola doazen edo nora iristen diren (Saharako Emakumeen Batasun Nazionala).

Saharar gazteek ez dute lan egiteko aukerarik, zapuztuta daude, eta batzuetan bizitzeko gogoia gal dezakete. Konfiantza galdu dute besteengan... (Ekonomia Garapenerako Ministerioa).

Kanpamentuetako baliabide eta aukera gutxi horiek maila sentimentalean ere eragiten diete gazteei, eta etsipenak jota amaitzen dute guztiagatik, NBEgatik eta nazioarteko komunitateagatik. Bai eta gure gobernuagatik ere; izan ere, horren erantzule ere badela uste dugu, gazte horien egoera hobetu beharko lukeelako, batez ere lanari dagokionez (NOVA Mendebaldeko Sahara Taldea).

Gobernuak azken urteotan gazteekin eta haiek gobernu-administrazioan sartzearekin lotuta egin diren aurrerapenak adierazten ditu. Lan hori, hala ere, “osatugabea” da, borondatezkoa baita:

Gobernazioaren maila gorenetan gazteentzako gauzak egin dira, bermatzeko gazteak, emakumeak eta gizonak, erabakiak hartzen eta gobernu. eta gobernantza-guneetan daudela. Eta gauza bera gertatzen da sailen eta postuen izendapenetan. Idazkari nagusiak, zuzendariak eta ministerioetako postu ezberdinetan, beti ari gara gazteak izaten (...) nahiz eta ezin diogun egiaz lana deitu, boluntarioa baita (...) hemen lana espazioa eta denbora libreka betetzen dituen orori esaten diogu, funtsezko helburua eta benetako lana aurrera eramaten diren bitartean; hau da, autodeterminazioa lortzea... (Fronte Polisarioaren Idazkaritza Nagusia).

Zalantzarik gabe, hori da kanpamentuetako gazteen errealitatea, lan publikoan “enplegatuta” dauden gazteena. Baina, biztanleria horrekin batera,

bada beste bat, erakundeen diskurtsoan hain presente ez dagoena eta ahal duen moduan bizirauten saiatzen dena:

Bi gazteria mota bereizi behar ditugu kanpamentuetan. Lehenengoa da gai politikoetan aktiboagoa dena, aktibismoan edo lan publikoan oro har, izan politikoa, soziala edo kulturala. Hori gutxiengo bat da. Eta bigarrena da lan publikoa den horretan aktibo ez dagoen gazteria normala, bizimodua ahal duen moduan aurrera eramaten saiatzen dena, eta horiek dira gehiengo handia (NUN Sahara Elkartea).

Kanpamentuetako gazteriar buruzko kontakizunean, oro har, bi ikuspegi daude, bakoitza zein belaunalditakoa den kontuan hartuta. Iraultza egin zuen belaunaldiarentzat, hau da, berrogei eta berrogeita hamarreko hamarkadan jaiotakoentzat, gaztetasunaren kontzeptuak berehala egiten du bat pertsona horiek bizi izan zuten esperientziarekin; izan ere, une historiko baten protagonistak izan ziren, eta, gainera, une horretan, saharar gizartean ohikoa zen adinekoen nagusitasun-printzipioa ere hautsi zen:

Gazteria gizartearen zati handi bat da, eta Saharako iraultzaren oinarria eta sortzailea izan da. 70eko hamarkadan 18, 20 edo 23 urte zituzten, eta orain haiek zuzentzen dute, baina bere garaian gazteak izan ziren, eta haien gainean eraiki da hau (Justizia Ministerioa).

Bizi izandako esperientziak eta une historiko haren protagonista gazteak izateak eragindako garrantziak eta efektuak badirudi itzali egiten duela egungo gazteria eta haren egungo egoera; hain zuzen ere, gazteriar buruz galdetu ohi denean, iraultza eta gerra egin zutenak dira lehen erreferentzia. Halako erreferentzia sinbolikoak eragotzi egiten du egungo benetako gizarte-egoera aztertzea, gutxietsi egiten baititu Saharako gizartean gertatu diren gizarte-prozesuak. Azken batean, badirudi gazteria estatus iraunkorra dela, nahiz eta gerrako belaunaldiaren ondoren badiren beste bi belaunaldi -gutxienez-, adin-tarte desberdinen adierazgarri izateaz gain, Saharako agintariek eta gizarteak berak uste dutena baino sakonagoak diren garaiko aldaketen lekuko ere badirenak.

Gainera, belaunaldi hori gaur egungo gazteriar buruz ari denean, beti azpimarratzen da iraultzaren eta gerraren seme-alabak direla, prozesu horretan ez zutela inolako eginkizun aktiborik izan, eta, azkenik, hezkuntzan eta osasunean lortutako guztiaren onuradun pasiboak direla. Gainera, pazientzia eskatzen zaie, eta, batez ere, nolabaiteko kutsu negatiboarekin gainera, belaunaldi berri horiek itxuraz irudikatzen dituzten helburu

materialak -bizitzak nora bideratu nahi dituzten- ateratzen dira argitara. Erabateko gabeziaren eta gabezia erlatiboaren arteko talka sakonarekin egingo dugu topo. Gerrako belaunaldiaren erabateko gabeziaren ondorioz, eskasia ezin saihestuzkotzat hartzen dute. Bitartean, hurrengo belaunaldiek kontrolatu ezin diren gabezia materialak eta posizioakoak dituzte.

Gure lanaren helburu diren gazte gehienak 1991tik aurrera jaio dira. Oraintxe bertan, 29 edo 30 urte izango lituzkete gutxi gorabehera. Ez bake, ez gerra garaian jaio ziren. Hazi eta begiak ireki zituztenean, bakea, lasaitasuna eta erosotasuna ere ikusi zuten, eta pentsatu zuten hori zela zegoena, ez zutela gerra biziko (...) ohiko estatu arrunt bat baino ez zuten buruan, independentzia, eta gure eta askapenaren arteko muga bakarra laster egingo zen erreferenduma zela (...) eta helburu materialak izaten hasi ziren, hala nola autoa, enplegua eta aukera batzuk izatea. Eta pentsatzen hasi ziren beren lurrera eta familiaren etxera itzuliko zirela beren bizi proiektua egitera (Kultura Ministerioa).

Gainera, ikuspegi horretatik, gazteriaren egoera nazio-askapenerako mugimenduaren menpe geratzen da. Hau da, gatazka konpontzea eta helburu politikoak lortzea dira gaur egun kargu instituzionaletako kide diren belaunaldi nagusien lehentasuna. Saharako gizarteak bizi duen testuinguru politiko bereziaren ondorioz, gazteek, haien baldintzek eta beharrek, “normaltasun-egoeran” -kakotx artean- izango ez luketen lekua hartzen dute.

Ordena kontua da, arazo bat konpontzeko beste bat konpondu behar da aurretik (...) egin behar dugun lehen maniobra gatazka konpontzea da. Eta bigarrena dirua da. Logikak dio gazteen beharrak lehentasunezkoak direla (...) baina testuinguru honetan ezin dira lehentasunezkoak izan. Har ditzagun lehentasunezko sektoretzat hezkuntza, osasuna, ura eta elikadura (...) Horrekin zera esan nahi dut, ez dela ezer geratzen beste lehentasunetarako, eta hor egongo litzateke gazteria. Lehentasunezko beharrak ase behar ditugu, gero bigarren mailakoak konpondu ahal izateko. Gazteria bigarren mailan dago, baina gazteriaren problematika lehentasunen artera eraman nahi dugu. Baina ezin dugu (Presidentearen kabinetea).

Saharako agintarien artean, argi dago gazteria ez atzera ez aurrera dagoela eta hala jarraituko duela. Alde batetik, irmo esaten dute gazteria “bigarren mailan” dagoela, eta, bestetik, “lehentasunezko” izatera eraman nahi dutela.

Ondorioa, ordea, “baina ezin dugu” da. Egoera aitortzeak ukitu tragikoa ere badu, ezin baitira batu aldibereko belaunaldien interes ezberdinak.

Diskurtso edo ikuspegi horretatik abiatuta, gazteen pazientzia eta erantzukizuna eskatzea baino ez da geratzen, konpondu gabeko gatazka-egoera horretan etengabeko ahalegina eskatzea. Lehen esan bezala, elkarrizketan gazteria aipatzen denean, ikuspegi hori dutenek gerra eta iraultza egin zutenei egiten diote erreferentzia, eta gertaera horrek zer-nolako garrantzia izan zuen azpimarratzen dute. Duela zenbait hamarkada gazte izateari utzi zion belaunaldi bat nabarmentzeak baliogabetu egiten ditu, neurri batean, gaur egun egiaz gazteak direnak.

Gaur egungo gazteriarri etengabe egiten zaizkion eskakizunen oinarrian, azkenean, adinekoaren nagusitasunaren printzipioa edo gerontokrazia dago. Belaunaldi hark printzipio hori hautsi bazuen ere, oraindik saharar gizartea estratifikatzen duen printzipio soziokultural gisa dirau. Caratinik azpimarratzen duen bezala, iraultzak adinekoaren nagusitasunaren printzipioa edo gerontokrazia abolitu bazuen ere, ez zen lortu: “*belaunaldien arteko harremanak zuzentzen dituzten ikurren eta nahitaezko portaeren multzo konplexua ukitzea (...) Kode hori transmititzeari uko egiteak bestearekiko errespetu mota oro alde batera uztea esan nahiko luke sahararentzat*” (2006: 16). Printzipio horrek egiten du zilegi egungo gazteriarri egungo egoera zailean eta iraultza hartatik igarotako denbora kontuan hartuta -hiru belaunaldiz ari gara hizketan- betetzea gero eta zailagoa dirudien papera eskatzen dion diskurtsoa.

Beharbada, arazoa da gazteak ez direla behar besteko ahalegina edo nahikoa egiten ari gizartearen begirunea izateko. Behar dutena da kontzientzia izatea prestatuta egon behar dutela, irmoak izan behar dutela, eta baliagarriak izan behar dutela gizarte aldatu ahal izateko (...) Prestutasuna izan behar dute. Eta prestutasunak esan nahi du inolako baldintzarik gabe egin behar dutela hori (...) Nik saharar parte-hartzailea izan nahi dut, baina baldintzak beste nonbait bilatu nahi ditut (...) Baldintzarik gabe egon, etorri eta borrokatu behar da, daukagunarekin (Presidentearen kabinetean).

Hala ere, informatzaile horrek adierazten duen baldintzagabetasuna da gazteek onartzen ez dutena, eta, logika onean, ezin dute hori onartu, horrek berekin dakarrelako ideal zehaztugabe batzuei atxikitzea, bizi izan ez dituzten esperientzia batzuei, eta erlatiboki partekatzen duten egoeraren



definizioak ematen dien gehigarri funtzioa bere gain hartzea, gaur egun ahotsik ez duten egoera batean. *“Inolako baldintzarik gabe esan nahi duen”* prestutasuna eskatzen zaie.

Testuinguru horretan, oso esanguratsua eta etsipenezkoa da “bigarren belaunaldi polisarioaren” jarrera, beste herrialde batzuetara bidali baitzuten ikastera eta prestakuntza sendoa baitu. Belaunaldi horrek aurrekoaren memoria gordetzen du, baina hurrengoaren helburu batzuk ere partekatzen ditu. Erdibidean geratu da. Oraingoz gertatuko ez den modernizazioaren belaunaldia zen. Lan publikoaren ia borondatezko izaerak ez du indar nahikorik belaunaldi hori atxikitzeko, eta ahal badute, beste herrialde batzuetara joaten dira lanera. “Aditu-ihesak” ondorioak ditu, bai osasunaren arloan, bai hezkuntzan. Egia da biztanleria horren atxikipen falta kontu materialei zor zaiela, baina kontuan hartu behar da, Caratiniren arabera, agintariak belaunaldi horrekiko garatu zuten mesfidantza ere, *“adinekoak bihurtuz gazteak boterearekin lotzeko inolako asmorik ez dutenak”* (2006:18).

Hurrengo belaunaldiak arretaz erreparatu dio egoera horri, eta, aurrerago ikusiko dugunez, egiaztatu du atzerrira joan zirenek prestakuntza jasotzeko egindako ahaleginak ez dituela eman espero ziren emaitzak lan-arloan eta administrazio-kudeaketan. Orduan, zertarako prestatu? Zertarako inbertitu denbora eta ahalegina ezagutza lortzen, posizioari eta lanari dagokionez horrek trukean inoiz ez badu ezer ekarriko? Egoera horretan, ez da harritzekoa belaunaldietan zehar lanak iraganean izan zuen esanahia galtzen joan izana eta gaur egun diru-balioa beste zentzurik ez izatea. Are gehiago laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera merkantilizatu egin zen ekonomia batean,

ikusi dugun legez, eta horrek erosotasun materialak eta estatusa eman dizkionean familia askori.

Beste begirada edo ikuspegia azterketa honetan gazteria gisa hartu dugun biztanleriari dagokiona da. Biztanleria hori oso heterogeneoa da, besteak beste honako hauek hartzen baititu: “bigarren belaunaldi polisarioa” deiturikoa –berrogei eta berrogeita hamabost urte bitartekoa–, hogeit eta berrogei urte bitartekoak, eta azkenik, hamabost urtetik hogeit urtera bitarteko nerabeak eta gazteak¹⁷. Biztanleria multzo zabal hori da, hain zuzen, duela gutxi, neurri batean, interesa pizten hasi dena; izan ere, informatzaile batek adierazten digunez, oso zaila izaten hasi da hain biztanleria-bolumen zabala kontrolatzea:

Gazteen egoera zehazki aztertzeko saiakerak oraintxe hasi dira (...) Gazteria denbora-bonba bat da, eta gizarteari eta gobernuari gero eta zailagoa egiten zaie hura kontrolatzea. Horren ondorioz, gerra piztu liteke batere ordenarik gabe eta gazteek berek eraginda. Uste dut mundua saiatu dela ohartarazpen horri erantzuten, eta kredituen eta mikro kredituen bidez egin du hori, bai eta gazteen prestakuntza-aukerak handituz ere (Gazteria eta Kirol Ministerioa).

Aurreko lekukotasunean oinarrituta, ikus dezakegu gatazka bikoitza dagoela, nahiz eta izaera desberdinekoa izan. Alde batetik, kanpoko gatazka, indar okupatzaileekin mantentzen dena eta nagusiek eta oraindik agintean dauden eliteek lehenesten dutena. Bestetik, barneko gatazka: barne-kohesioa nola egituratu, leialtasun-jokoa gero eta ahulagoa denean eta belaunaldi berriak txertatzea funtsean ezinezkoa denean.

Hemendik, gobernutik baimentzen diren saharar gazteen migrazio-mugimenduak berak ihesbide gisa ikusten dira; izan ere, adin-talde horrentzat, egoera gero eta konplikatuagoa da, eta, haien testigantzen arabera, etsita eta batere motibaziorik gabe daude.

Ez lanerako, ez hazteko eta garatzeko aukerarik ez duen gazteria bat (...) gazteria linbo-egoera baten biktima da, eta hori konpontzeko

17 Adin-tarte ezberdinen artean itxuraz partekatutako banaketa, lehenik eta behin, ez da bideragarria. Bigarrenik, arriskutsua da, benetan dauden arrakalak ikusezin bihurtzen baititu, eta, hirugarrenik, oraindik ondo neurtu gabeko tamainako arazo bat dagoelako 30 urtetik beherako biztanleriarekin. Ziurrenik, horixe da adin-tarterik ahaztuena.

ez da gauza handirik egin, ez barrutik, eta are gutxiago kanpotik (Gazteria eta Kirol Ministerioa).

Beraz, saharar gazteriar buruzko bi begirada edo ikuspegi ditugu aurrean. Adinekoena; alde batetik, beren herriaren nazio-askapenerako prozesuan murgilduta jarraitzen duten gazteak –sektore publikoan baldintza zailetan “lan egiten” dutenak edo frontean borrokatzen direnak– diskurtsiboki baloratzen eta saritzen dituzte, eta bestetik, epaitu egiten dituzte beren behar ekonomikoak asetzearen alde egiten dutenak, dela beste herrialde batzuetara emigratu dutelako, dela sektore “pribatuan” lan egiten dutelako. Baina, bi gazte mota horiek hori baino ez dira: gazte mota idealak. Ikusiko dugunez, emigrazioaren alde eta behar materialak asetzearen alde egiten dutenek ez dute hausten kausa politikoarekin, eta horretara dedikatzen direnek ere ez diote uko egiten beren lana osatzeari, etekin ekonomiko handiagoak ematen dituzten beste lan batzuetan. Bestalde, gazteria kategorian sartzen den biztanleriaren gehiengoa (kanpamentuetako biztanleriaren erdia) itxaroten ari da, eta aldi berean, etsita ere badago; izan ere, aukerarik eza, gatazka konpontzeko prozesuekiko konfiantzarik eza, agintarien utzikeria, eta bizitzaren *impasse* batean daudela sentitzen dute. Sentimendu horiek gero eta biziagoak dira, eta gazteen eta nerabeengan zabaltzen ari dira, globalizazioaren testuinguruan, ikusten baitute espazio-denboran harrapatuta daudela, eta hortik ateratzeko modu bakarra mugitzea dela, diaspora gisa edo nolabaiteko bereizketa gisa.

Baina, saharar gazteriaren jarrera ulertzen saiatzeko deskribatu ditugun bi ikuspegi horien esparruan, nolakoak dira belaunaldien arteko harremanak? Zer gertatu da hautsi, eta une historiko oso zehatz batean, adinekoaren nagusitasunaren printzipioa alde batera utzi, baina, aldi berean, orain arte printzipio horri eusten dion gizarte batean? Belaunaldien arteko gatazkaz hitz egin dezakegu?

Galdera horien aurrean, elkarrizketatu asko bat datoz gauza batean: ez dagoela konfiantzarik belaunaldien artean; agian, lehen belaunaldiak sentitzen duelako ez dagoela itzulerarik, konpromiso eta lan gisa, adinekoen errespetua eta begirunea irabazi behar dituen gazteriaren aldetik:

Konfiantza-elementuen falta sumatzen dugu. Guregana erakarriko dituen proiektu bat eman nahi diegu (...) Guk, erakunde gisa, estatu gisa, konfiantza-plan baten bidez ematen diegu hori, eta trukean zerbait itzul diezaguten eta kargu batzuk har ditzaten saiatzen gara (UJSARIO).

Ez da gazteria abandonatua, landu eta prestatu gabea, eta ziria sar diezaiokezuna. Badaki lerro artean irakurtzen. Dena jartzen dute zalantzan, eta erantzun argia izan behar duzu. Nik ez dut horrela bizi nahi beste berrogei urtez, eta hori saihesteko modua bilatu nahi dut. Argi eta garbi esaten dizute, eta zentzarazi egin behar dituzu (Gobernadorea).

Elkarrizketa ez da zaila, batak bestea konbentzitzea da zaila. Gazteak ezin du aita konbentzitu eta haren ustea aldatu, eta aitak ezin du gaztearen konbentzimendua aldatu. Izan ere, guk dena eman dugu, baina oraindik ez dugu ezer irabazi. Eta zuek dena irabazi nahi duzue, ezer eman aurretik (Presidentearen kabinetea).

Badirudi jarrerak oso finkatuta daudela, eta islatzen dute belaunaldi gazteenei iruditzen zaiela nagusiengandik etorkizunik eza baino ez dutela jasotzen, edo, gutxienez, bilakaera nekeza izango duen itopuntuan kokatzea. Bien bitartean, adinekoei iruditzen ez direla ari gazteengandik behar den errespetua jasotzen. Vilchesek eta Esparzak diagnostikoan adierazi zuten bezala, helduek iraganean egin zuten ahalegina itzultzea eskatzen dute, gaur egun dutena lortzeko. Eta hori konpromisoen eta betebeharren bidez egiten da: “*Ez da gaitzespen-diskurtso bat, baizik eta etorkizun kolektiboarekiko erantzukizun handiagoa eskatzea, norberaren kultura-idiosinkrasiatik eta belaunaldien arteko errespetutik abiatuta*” (2017: 34). Diskurtso horren atzean, halaber, modu inplizituan dago belaunaldien arteko estatus eta rolen erreleboaren auzia. Adinekoek ordezkapen horri beren ikuspegitik begiratzen diote, baina gazteen arabera gaur egungo gazteriaren ikuspegitik egin behar da:

Prestutasuna egon daiteke [lehen belaunaldikoen aldetik], eta izan daiteke borondatezkoa edo eragindakoa (...) prestutasun hori arrazoi ideologikoen eta hauteskunde-arrazoiengatik ezarritakoa ere izan daiteke (...) Baina ordezkapenekin ere kontuz ibili behar da. Izan ere, ordezkoa, gazteagoa izanda ere, egungo egoeraren ingurumarian fabrikatu eta moldatu bada, ez du ez ekarriko, ezta izango ere, izan beharko lukeen perspektiba, hau da, belaunaldi berriarena (Gazteria eta Kirol Ministerioa).

Gazteen zenbait iritziren arabera, nagusiekiko harremana konplikatu da, baita gatazkatsua ere. Adinekoaren nagusitasunaren printzipioa zorroztasun osoz adierazten da hemen:

Gazteek ezin dute hitz egin. Adineko pertsonak esandakoak balio du. Adineko pertsonak agintzen du. Gazteek ez dute eskubiderik hori horrela ez dela, zuzena ez dela, esateko (Saharako Eskauten eta Haurren Erakundea).

Agintarienganako konfiantza galtzea deritzona ere gertatu da, eta ez dut alde politikoari buruz hitz egin nahi, baina lotura handia du gazteekin, gazteek orain agintarien kontrako ikuspegi batetik ikusten dutelako, eta ikusten dutelako hemen ez dagoela eskubiderik betebeharrak badauden arren (Mutil gaztea, eztabaida-taldea 35/39, Auserd).

Aurrez aurreko elkarrizketa beharrezkoa da, eta uste dut hor sartzen dela nagusiekiko errespetuaren faktore kultural hori. Izan ere, askotan ez gara ausartzen nagusiei zerbait esaten, nahiz eta proiektukideak eta lankideak diren. Uste dut beharrezkoa dela hori nolabait aldatzea. Baita emakumeen artean ere. Uste dut ezagutza eta ikaskuntza batzuk ez direla partekatzen, ez dagoelako berdintasunezko elkarrizketa hori, aurrez aurrekoa. Badirudi belaunaldien arteko “borroka” bat dagoela (NUN Sahara Elkartea).

Informatzaile horrek “belaunaldien arteko borroka” aipatzen du, beste informatzaile batzuek “belaunaldien arteko gatazka” dagoela adierazten dute, eta pertsona askok belaunaldi ezberdinen artean gertatu beharreko “belaunaldien arteko elkarrizketa” aipatzen dute. Belaunaldien arteko harremanak modu arinagoan eta haserre gutxiagorekin artikulatzeko gai den elkarrizketak, lehenik eta behin, bestea ezagutzea eta elkarri entzutea eskatzen du:

Parte-hartzeak handiagoa izan behar du, baina horren aurretik, elkarri hobeto entzutea behar da. Eta uste dut gizarteari, nahiz eta auto-babestua, solidarioa eta bateratua izan, bestea aitortzea falta zaiola. Eta ez belaunaldiei dagokienez bakarrik, baita generoari dagokionez ere (...) oso ona da gazteei entzunaraztea, baina are garrantzitsuagoa da gazteak ez direnei gazteak entzunaraztea (Gazteria eta Kirol Ministerioa).

Eztabaida edo iritzi- eta interes-trukea politikoki independentea den gizarte batean baino ez da posible, kanpo-gatazka desagertzen bada, barne-gatazkei aurre egitea posible izango delako. Baina kanpo-gatazka desagertzea ez dirudi erraza.

Pentsamoldeak

Bada hitz bat sahararrek Tindufeko kanpamentuetan duten egoerari eta arazoei buruz hitz egitean sarri entzuten dena: “pentsamoldea”. Beharrezkotzat jotzen diren aldaketa asko pentsamolde-aldaketa bat gertatutakoan baino ezingo dira egin; gazteek beste pentsamolde bat dute; arazoa da gizarte gisa “pentsamolde iragankorra” dutela, eta abar. Pentsamoldea aipatzen dugunean, biztanleria baten pentsatzeko, errealitatea epaitzeko eta jarduteko modua osatzen duten sinesmen eta ohituren multzoari buruz ari gara; kasu honetan, Saharako biztanleriarena, hain zuzen. Jakina, sinesmen eta ohitura multzo horrek ez du bloke estatiko bat osatzen denboran zehar, alderantziz. Prozesu luze batez hitz egin dezakegu, eta pentsamoldea, inoiz ez zena unibokoa izan, eraldatzen joan da, jarraikortasunaren ildo eutsiz, baina porrot eta haustura garrantzitsuak ere izan ditu. Ez gara ari pentsamolde-borroka bati buruz, baizik eta interes, inguruabar eta etorkizuneko proiektu kontrajarrietara egokitzen diren ikuspegiei buruz.

Badirudi elkarrizketatutako pertsonen artean akordio bat dagoela: 1991ko su-etenaz geroztik hasi ziren gauzak aldatzen kanpamentuetan. Bakezko bizitzara itzultzeak eta kanpamentuetan dirua sartzak –eta horren ondorioz, ekonomia informala garatzeak– indibidualismoa agertzea eta gerra-egoerak bigarren mailan jartzen zituen premia batzuez jabetzea dakarte ondorio gisa:

90eko hamarkadan eta 2000koan trantsizio bat egin zen, 1991ko su-etenarekin. 1975etik 1991ra gizon guztiak armadan zeuden, eta gazteak, atzerrian ikasten. Baina, bake-garaian bizitzearekin, jendea pentsatzen hasten da, eta konturatzen da ez duela etxerik, ez autorik, ez aire giroturik, ez telebistarik... konturatzen da ez dutela ezer. Eta horretan pentsatzen hasten dira (Ekonomia Garapenerako Ministerioa).

Antolatu gabeko ekonomiarekin hasi zen guztia. Ezkutuko ekonomia garatzen hastean, kontrolik gabe hasi da eratzten. Jendeak ikusi du azkar aurrera egin ahal izan dutenek egin dutela aurrera, baina ez zegoen kontrolik (...) orain bakoitzak bere arazoak konpondu behar ditu. Eta agian ahaztu egin dute edo ahaztu egin dugu erronka komun bat dugula (...) Ezin izan dugu gatazka konpondu gizarte kolektibo bat izateko. Eta horrek, azkenean, bakoitza behartu du bere arazoa era indibidualean konpontzera (Presidentearen kabinetea).

Azaldu dugu nola laurogeita hamarreko hamarkadan merkataritza-logika bat agertu zen, kanpamentuetako paisaia eraldatuz joan zena, eta horren ondorioz, nola hasi zen desberdintze eta desberdintasun sozioekonomikoko prozesu bat. Biztanleriaren ohitura eta sinesmenen multzoaren aldaketa-prozesu geldia merkataritza-logika horrekin gurutzatzen da garatzean, eta, denborarekin, indibidualizazio-prozesu batera eramaten du. Prozesu hori are nabarmenagoa da gazteen artean. Kanpamentuetan biztanleak finkatu zirenetik sortutako gizarte-kohesioa eta ekitate-sentimendua ez dira batean desagertzen, eta ez dira guztiz desagertu; baina egia da ongizate materialeko nahi eta asmo berriak agertzen direla biztanlerian, aurreko belaunaldiekin alderatuta.

Belaunaldiak ezberdinak dira. Iraultzan jaio eta hazi zirenek beste gauza batzuk nahi lituzkete, eta merkatuaren eta bizitzaren bilaketaren berotasunean jaio zirenek beste pentsamolde bat izango lukete. Eta erronka da pentsamolde horiek guztiak uztartzea eta horiei guztiei aurre egitea (Justizia Ministerioa).

Beste bolada bat dator; auto hori nahi dudala, ezkondu, ez dakit nolako etxea eraiki... Eta, azkenean, bada... geldiezina dirudi, baina uste dut oraindik garaiz gaudela horri guztiari pixka bat eusteko (...)



Norbanakoaren eta familiaren ongizateari lotutako ideia kapitalista sortzen denean, bada, azkenean, hori gertatzen da. Nik hau nahi dut eta nire familiak hau izatea nahi dut (...) Azkenean, nolabait, geurekoiago bihurtu gara. Belaunaldi berriak askoz ere berekoiagoak dira gure gurasoekin eta gure adinekoekin alderatuz gero (NUN SAHARA Elkarte).

Pertsona horrek saharar gazteen ongizate materialerako nahia aipatzen du, ez bakarrik maila indibidualean, baita familia-mailan ere. Gai hori garrantzitsua da; izan ere, herritarren arteko elkarrekikotasun-, lankidetz- eta laguntza-sareak desagertzen ez badira ere, badirudi neurri batean familiaren inguruan egituratzen den elkartasun murriztuago batek ordezkatzeko duela. Horri buruz, Caratinik hauxe adierazi du: *“Bat guztiontzat eta guztiok batentzat izatetik, orain, bakoitza bere etxean eta Jainkoa guztion etxeetan izatera igaro gara, baina bada desberdintasun bat: “bat” hori ezin da inoiz izaki indibiduala izan mairuen gizartean, eta “bat” guztion bizkarrean dagoela ezertxo ere ez duten dozenaka banakoren erantzukizunaren zama”* (2006: 19).

Vilchese eta Esparzak (2017) ere azpimarratzen dute familiaren zentralitatea, baliabideak lortzeko eta kontsumitzeko unitate solidariotzat hartzen baitute. Lehenago esan dugu familia jakin batzuek kanpotik diru-sarrerak jasotzeak -bai bidalketen bidez, bai pentsioen bidez, bai Oporrak Bakean programari lotutako familien diru-bidalketen bidez- desberdintasunak areagotzen lagundu duela.

Elkartasuna familietara mugatzeak lotura du, jakina, aipatu dugun merkataritza-logikarekin, baina baita kanpamentuetan gertatu diren beste prozesu batzuekin ere, hala nola: nazioarteko laguntzaren murrizketa; merkatu-ekonomia garatzetik sortzen diren behar berriak; telebista eta Internet bidezko munduarekiko esposizioa, batez ere biztanleria gazteen artean, munduko gainerako tokietan bezala, “konektatuta” bizi baitira; zerbitzu publikoek okerrera egitea.

Testuinguru zail horretan, gazteen pentsamoldea aldatzeak zentzu handiagoa du. Are gehiago kontuan hartzen badugu zer testuinguru espezifikotan jaio eta hazi diren: errefuxiatuen kanpamentuetan, gatazka konpontzeko zain, baina konponbidea inoiz iristen ez dela. Testuinguru espezifiko horrek “pentsamolde iragankorra” ere sorrarazi du, hau da, behin-behinekoa den leku batean etorkizun zalantzarri baten zain bizitzeak eragindako etengabeko tentsioa, egonaldiaren behin-behineko izaera eten eta bizi-baldintzak hobetzera behartuta.

Baina, ba al dakizu sahararrak zergatik ez diren aritzen lan emankorretan? Hasiera-hasieratik pentsamolde iragankorra dugulako: bihar itzultzeko aukera izango dugu. 70eko eta 80ko hamarkadetan jendeak ez zuen adobezko etxerik eraiki nahi, haimak bakarrik. Berehala itzuliko gara eta. Pentsamolde hori sakon errotuta dago gure buruetan, eta ez dugu momentua bizitzea pentsatzen. Beti ari gara biharkoan pentsatzen, eta ez zimenduak jartzean. Beti ari gara etorkizunean pentsatzen, baina ez dago orainaldirik etorkizunik gabe (Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa).

Hemen asko bultzatu da gaurko ogia baino ekartzen ez duten proiektuak sortzea, eta ez biharkoa ekartzen dutenak. Orduan, uste dut, horrek epe luzera iruditeria kolektibo bat sortu duela gazteen artean, haien prestakuntza edozein dela ere, sinetsarazi diena etorkizuna izateko kanpamentuetatik alde egin behar dutela (NUN SAHARA Elkarte).

Azken hitz horiek garrantzitsuak dira; izan ere, badirudi kanpamentuetan denbora gelditu egin dela, etenda dagoela berandutzen ari den etorkizun desiratu horren zain. Etorkizun horretan itxaropenari eta ilusioari eusteak, era berean, orainaren behin-behinekotasunari eustea ekarri du, eta horrek eraikuntza iragankorrak eta epe laburreko proiektuak ekarri ditu. Hala ere, behin-behinekotasuna ere atzera egiten ari da, kanpamentuetan jaiotako gazteei agindutako etorkizun hori lortzeko zailtasunen aurrean. Bere lurraldera itzultzea aurreikusten zuen aukera hori desagertzean, egiazkoa dirudien etorkizuna kanpamentuetan igaroko dutena da, eta gaur egun kanpamentu horietan zer baldintza dituzten ikusita, ez da harritzekoa gazte askok beste etorkizun bat irudikatzea haietatik kanpo. Seguruenik, kanpamentuak etorkizunik eza irudikatzen hasi dira Saharako gazteen begietan.

Egiada, halaber, belaunaldi nagusiek gazteriari bere pentsamolde indibidualista eta kontsumista aurpegiatzen dioten arren, aitortzen dutela badirela beste konpromiso batzuk gazteriak hausten ez dituenak. Beste pentsamolde bat izan dezake, indibidualistagoa eta materialistagoa izan daiteke, baina horrek ez du eragozten bere herriaren kausarekiko konpromisoa eta leialtasuna:

Nik gartzetan eskatzen nuena... nik ez nuen ezer eskatzen. Baina orain nire seme-alabek guztiz bestela pentsatzen dute. Eta, nolabait, hori uler dezaket, nik bizi izan nuen etapa ez baita haiek bizitzen ari direna. Eta horrekin ez dut esan nahi abertzaleak ez direnik. Prest daude, borrokan ari dira, eta guda egiten dute (Osasun Ministerioa).



Garai bateko gizarteak ez zuen behar hori, konforme eta ondo zegoelako. Baina 10 edo 12 urterekin beste herrialde bateko ikastetxe batera edo harrera-familia batera joan zenak gauza horiek guztiak ezagutu zituen, eta behar ditu, horiek dakarten plusa dastatu baitzuen. Baina, hala ere, itzuli egin nahi du, eta ekarpena egin nahi du. Eta hor dago niaren eta guztion arteko dilema (Gobernadorea).

Informatzaile honek aipatzen duen dilema, beti presente dagoena, badirudi oraingoz “guztion” alde konpontzen dela. Azpimarratzekoa da gazteek beren familiekiko eta kausa politikoarekiko duten leialtasuna eta atxikimendua. Izan ere, esan dugun bezala, Saharako kanpamentuen kasua bakarra da ziur aski, Tindufetik alde egiten dutenek ez baitute inoiz behin betiko alde egiten. Alderantziz, behin eta berriz itzultzen dira, eta dauden tokitik laguntzen dute familiak mantentzen.

Alde horretatik, interesgarria da ikustea denborarekin nola sortu eta eraiki diren kanpamentuak, diasporan, lurralde okupatuetan eta liberatuetan dauden saharar guztien erreferentziazko ardatz gisa. Iragankortasunaren eta iraunkortasunaren arteko tentsio horretan, kanpamentuak “etxe” gisa eratzen eta nabarmentzen hasi dira. “Etxe” bat beste baten gainean, hau da, legitimoa, norberarena, ukatua, kolonizatua izan denaren gainean. Gazte

asko eta asko kanpamentuetan jaio dira, horregatik hartzen dira etxetzat, baina hala egin ez dutenek ere modu berean hartzen dituzte:

Gu erabat sahararra den familia batean hazi gara, hango moduan hezi gaituzte, baina hemen. Orduan, azken finean, horrekin ohitzen ari zara (...) Nahiz eta han ez jaio, hura nire etxea da. Hara jaisteko beharra dudala sentitzen dut. Deskonektatu egiten dut, bai. Askoz hobeto sentitzen naiz han (Gizon gaztea, 17/32 urtekoen eztabaida-taldea, diaspora).

Nik, nire kasuan, han dut familia. Baina nire etxea ere bada; han jaio nintzen, eta hara itzuli nahi izaten dut beti. Herriminak hor jarraitzen du (Gizon gaztea, 17/32 urtekoen eztabaida-taldea, diaspora).

Kanpamentuei buruz hitz egitean saharar askoren artean sarri agertzen den ideia bat “deskonektatzeari” buruzko ideia da. Kanpamentuak babesleku dira, zalantzarik gabe, baina babesleku izatearen ideia hori zabaldu egiten da kanpamentuetatik kanpo bizi diren herritarrentzat; izan ere, kanpamentuak atsedenerako, elkartzeko eta bizitzeko lekuak dira haientzat, eta bizitzeko modu hori ez dator bat egunerokoan bizi diren gizarteetako erritmo azkarrekin.

Kanpamentuak eguzki-plakak dira, eta gu, bateria. Gu hona etortzen gara, bateria deskargatzen dugu, eta berriz kargatzen dugu atzera. Abuztuan herrira oporretan joaten direnak bezala... Jendea nomadak bezala dabil etengabe (Gizonezko gaztea, 17/32 urtekoen eztabaida-taldea, diaspora).

Mapako puntu ezberdinen artean, bakoitzak sahararren iruditerian duen esanahiarekin, eta puntu horien arteko etengabeko zirkulazioarekin, elkarrekin hainbat moduz konektatutako espazio sozial horrek galdera bat planteatzen digu sahararren pentsamoldearen beste alderdi baten inguruan, gertatutako aldaketa bortitz eta azkarrak gorabehera, oraindik presente egoten jarraitzeko modua aurkitzen duela dirudi eta: nomadismoa. Dagoeneko ez da Espainiaren kolonizazioaren aurretik eta haren ondoren herri honen ezaugarri izan zen nomadismoa, jakina. Gaur egungo nomadismoa, iraganekoaren ildo beretik jarraitzen duen arren, erantzuna, egokitzapena eta erresistentzia-estrategia da aldi berean, aurre egin behar dien baldintza politikoaren eta ekonomikoaren aurrean.

Hezkuntza-, prestakuntza- eta lan-ardatza

Lehen esan bezala, Fronte Polisarioak lehen hamarkadetan kanpamentuetan egindako ahalegin handienetako bat sahararren gaitasunak garatzea izan zen. Horretarako, hezkuntza-sistema bat sortu zuten, eta, gaur egun, honela dago egituratuta: haurtzaindegiak (hiru-sei urte); Lehen Hezkuntza (zazpi-hamahiru urte); Bigarren Hezkuntza, bi adarretan banatuta: Lanbide Heziketa eta Batxilergoa (hamahiru-hamasei urte). Normalean, Batxilergoa Aljerian edo kanpamentuetako barnetegiren batean egiten dute. Unibertsitate-ikasketak Aljerian, Libian eta Kuban egiten dituzte, besteak beste, arlo horretako hitzarmenak baitituzte herrialde horiekin.

Lehen aipatu dugu, baina berriro nabarmendu beharrekoa da belaunaldi honek –“bigarren belaunaldi polisarioa”– atzerrian egin dituela ikasketak, eta prestakuntza espezializatuarekin (maisutza, ingeniaritza, nekazaritza, informatika, etab.) itzuli dela kanpamentuetara. Hala ere, Saharako erakundeek ez zuten aukerarik belaunaldi hori txertatzeko, eta beraz, beren prestakuntzarekin eta itxaropenekin batera zerikusirik ez duten sektoreetan lan egin behar izan dute:

Jende asko trebatu dugu espezialitate askotan, baina ez dago espezialitate horietan lan egiteko aukerarik (...) trebatu den eta espezialitate hori galdu duen jende asko daukagu bere arloan lan egiteko zain. Azkenean, beren bizitzak galdu dituzte (...) eta 20-30 urteko gazte batek, unibertsitatera joan denak, ez du errepikatu nahi bere adinekoei gertatu zaiena, dena galdu baitute zain. Eta, beraz, lan-aukera bat aurkitzeko eta bizitza soziala izateko hogeita hamar edo berrogei urte itxaron behar ez izateko irtenbide bakarra kanpora irtetea da (Garapen Ekonomikorako Ministerioa).

Bigarren belaunaldi polisario horrek bizi izandakoak badu efekturik ondorengo gazterian; izan ere, belaunaldi hark zer-nolako ahalegin- eta denbora-inbertsioa egin zuen ikusi dute, familiarengandik eta jendearengandik

urrun egonda gainera, bai eta inbertsio horrek ez diela bueltan arrakastarik ekarri ere, eta beraz, nahiago dute beste aukera batzuetan zentratu, hala nola migrazioan edo ekimen pribatu batean, ez baitute emaitzarik gabeko ahaleginik eskatzen.

Ikusten dugu prestakuntza duen jendeak askotan ez duela jasotzen egiten duen lanpostuaren araberrako ordainsaririk. Osasun-prestakuntza duen pertsona batek, medikua edo erizaina izan, ez du familiaren beharrak betetzen dituen ezer jasotzen; beraz, lanpostu hori utzi behar izaten du, bizibidea lortzeko... (Gizonezko gaztea, 25/29 urtekoen eztabaida-taldea, Bojador).

Ondorio horiek bereziki kezkarritzat jotzen dira emakumeen kasuan:

Graduatu diren promozio asko ditugu, emakume eta gizon gazteak, eta ez dugu ez lanik ez lanposturik haientzat (...) egoera horrek eraman du jendea ikasketekiko interesa galtzera (...) egoera hori bereziki arriskutsua da nesKentzat. Horren ondorioz, emakumeak atzeratuta geratuko dira prestakuntza-ibilbidean (Barne Ministerioa).

Hala ere, eta egoera horrek izan dezakeen arriskua gorabehera, gazteek adierazten dute nabarmentzekoa dela emakumeen presentzia bai hezkuntza formalean bai Lanbide Heziketan. Badirudi gizonezko gutxiago dagoela eta sarriago uzten dituztela ikasketa horiek alde batera, eta hori izan liteke familiak mantentzeko diru-sarrerak bilatu behar dituztelako:

Prestakuntza-esperientzia edozein dela ere, prestakuntza jasotzen ari diren gehienak emakumeak direla ikusiko duzu, ia ez dago gizonezkorik (...) Lanbide Heziketaren onuradun gehienak emakumeak dira, gizonezkoak diru gehiago emango dien lan-aukeraren baten bila ari direlako... (Emakume gaztea, 40/45 urtekoen eztabaida-taldea, Smara).

Lanbide Heziketa testuinguruaren berezitasunekin lotuta joan da. Hala, gerra-garaian, Lanbide Heziketa gerrako makineria laguntzeko tresna da. Biztanleriaren desplazamenduarekin eta kanpamentuetan finkatzearekin batera antolatzen dira une horretako premiei loturiko Lanbide Heziketako lehen eskolak (oinarrizko irakaskuntzako maistrak, erizainak, administrazio-lana, jostkintza-teknikak, nekazaritza-praktikak). Laurogeiko hamarkadan, Lanbide Heziketa eguneratu eta berritu egingo da nazioarteko lankidetzaren esku-hartzeari esker. Su-etenaz geroztik, errefuxiatuen kanpamentuetan

bizitako eraldaketen ondorioz, testuingurua berriz aldatzen da, eta Lanbide Heziketak gizartearen iritzi ona galtzen du. Hala aztertu dute Martín Pozuelok eta Gimeno Martínek (2010): *“Lanbide Heziketak ez ditu soldaduak kualifikatzen, ez eta kanpamentuak kudeatzen dituzten emakumeak ere, eta ez dira erakargarriak (...) prestakuntza teknikoa eskuratu nahi duenak zuzenean jo dezake senitartekoren baten tailerrera, lanbidea ikasteko eta ordainsaria jasotzeko...”* (2010: 11).

Gogoeta hori eginda, esan dezakegu prestakuntzaren esparrua, edozein motatakoa dela ere, une zailean dagoela kanpamentuetan, seguruenik kanpamentuetako bizimodua eta bizi-baldintzak aldatu direlako, eta beraz, beste gaitasun batzuk eta beste ezagutza batzuk behar direlako familien ekoizpen- eta erreprodukzio-estrategietan. Horrela, bada, zentzua hartzen du egungo gazteek prestakuntza ez baloratzea aurreko belaunaldiek baloratzen zuten bezala, eta gaur egun atzerapausoa gertatu izanak eta ikasketak lehen baino jende gehiagok uzteak:

Txikitan gogoratzen ditudan kanpamentuetan, 45-50 urteko lehengusu-lehengusina guztiek dituzte ikasketak. Baina haien seme-alabek ez. Bigarren Hezkuntzara iritsi, eta hor geratu dira. Atzerapausoa gertatu da hezkuntzan. Eta emakumeek ere lehenago uzten dituzte ikasketak, baina ez familiak behartuta, baizik eta, besterik gabe, ikusten dutelako ikasketak eginda ere ez dutela aparteko ezer lortzen. Eta nahiago dute Aljeriara edo Kubara joan, urrutira joan. Azkenean, neska gutxik ikasten dute. Egia da, halaber, joaten direnen unibertsitate-tasa handiagoa dela gizonezkoena baino, baina asko dira ikasketak Bigarren Hezkuntza baino lehen ere uzten dituztenak. Kanpamentuetan ikasketak utzi dituzten 14-16 urteko gazte asko ikusten dituzu (NUN SAHARA Elkarte).

Wilayetan gazteekin egindako tailerretan eta eztabaida-taldeetan, ikusten dugu, oro har, ez daudela pozik ez prestakuntzaren mailarekin, ez irakasleek eskoletan duten prestakuntza-mailarekin. Era berean, gazteek irakasleekin duten harremana aipatzen da, eta beharrezkoa dela harreman horiek malgutzea, hierarkizatuegiak direla uste baitute.

Nire ustez, arazoa da irakasleek (emakumezkoak) gaur egun ez dutela nahikoa prestakuntza eskolak emateko, eta ez dutela gaitasun pedagogikorik. Horietako askok Lehen Hezkuntza baino ez dute egin, eta gero, Lanbide Heziketako prestakuntzaren bat, baina irakatsi dietenak ez du zerikusirik eskoletan ematen denarekin,



eta beraz, maila apala dute (Emakume gaztea, 40/45 urtekoen eztabaida-taldea, Smara).

Ez dago maisu-maistrarik eta ikasleek ezin dute askatasunez hitz egin; hortaz, ikasle askok utzi egiten dituzte ikasketak, sentitzen baitute ez dietela entzuten eta ez direla aske beren iritzia emateko (Gizon gaztea, 25/29 urtekoen eztabaida-taldea, Bojador).

Gazteek badakite irakasleen lan-egoera zaila dela eta horrek egoera nola baldintzatzen duen. Prestakuntzaren arlo horretan ere askotan aipatzen dira garraio falta eta kirol instalazio hobekak izateko beharra. Bojadorreko beste gazte honek, gabeziak laburbiltzen ditu, eta bere ustez egon daitezkeen irtenbideak:

...eskoletan irakasleak falta direla ere ikusten dut. Eta hori gertatzen da soldata eskasak jasotzen dituztelako; garraiobideen falta ere ikusi dut, bai eta mugimendu falta ere ikastetxe barruan, eta ez dago adierazpen-askatasunik eskoletan. Beraz, kasu honetan, hauek dira

irtenbideak: irakasleei soldata duina ematea, beren lana osotasunean egin ahal izateko; guri postak eta kirol-zelaiak eskaintzea (...) eta eskolarako garraio-bideak egotea... (Gizon gaztea, 25/29 urtekoen eztabaida-taldea, Bojador).

Alor honetan, ezin ditugu ahaztu milizian dauden gazteek prestakuntzarako dituzten zailtasunak. Askok, kanpamentuetara itzultzean, familia dute zain, eta haren ardura hartu behar dute. Deigarriak dira prestakuntza-prozesuei jarraitzeko dituzten zailtasunak:

Milizian dagoen gazte sahararra egoera zaillean dago; izan ere, eskualde militarerra joan, eta bueltan, familiarekin egon behar du, eta zerbait bilatu behar du familiarik jaten emateko. Hortaz, bilaketa horretan edo eskualde militarerra joaten banatzen du denbora. Eta ez du denborarik prestakuntzarako (UJSARIO).

Kanpamentuetako dimentsio ekonomikoaz hitz egitean, lan-eskaintza eta -eskariaren estimazio bat egiteko zailtasunak aipatu ditugu. Enplegu publikoaz ari bagara, Saharako gobernuak ez du ia aukerarik lana borondatez eta militantzia gisa egiten duen langile talde bat mantentzeko¹⁸. Nola jarraituko du osasunaren edo hezkuntzaren arloko langile batek lanean, familia mantendu ezinik, aurrean estutasunik gabe bizi diren familiak baditu, sektore pribatuko diru-sarrerak dituztelako? Ba, ziur asko, beste irtenbide batzuk bilatuko ditu, eta sarritan, migrazioaren bidez:

Ni medikua naiz, baina norbait mekanikaria edo argiketaria bada, nik baino diru gehiago du. Izan ere, nik mediku egiten badut lan, ingeniariak bezala, gobernuarentzat egin behar dut lan. Baina autoak konpontzen baditut, neure kabuz lan egin dezaket. Baina mediku gisa ezin dut sektore pribatuan lan egin, ez baitago klinika pribaturik. Eta beraz, irteera bakarra alde egitea da, emigratzea. Karrera duten gehienek Espainiara, Alemaniara, Frantziara edo Erresuma Batua emigratzen dute (Ekonomia Garapenerako Ministerioa).

¹⁸ Gobernuak ez du nahikoa aurrekontu familia batek behar dituen gutxieneko diru-sarrerak bermatuko dituen soldata-sistema ezartzeko. Caratiniren arabera: "hilean, batez beste, 15-30 euro eskain diezazkieke soldaduei eta administrazioako, osasuneko eta hezkuntzako langileei" (2006: 19). 2022tik, EUCOCoren (Saharako Herriari Laguntzeko eta Elkartasuna Adierazteko Europako Konferentzia) Saharako Estatua sendotzeko tailerraren proposamena daukagu. Proposamen horren arabera, 10.000 langile publikok 300, 200 eta 100 €-ko soldata jasoko lukete, hurrenez hurren, gobernuak ezarritako baremoaren arabera. Urtean 25 milioi inguru beharko lirateke hori ordaintzeko. 2010. urteaz geroztik, tarteka ordaintzen da, eskura dauden baliabideen arabera. 2024. urterako, nazioarteko lankidetzaren helburua da aurrekontu horren % 50 ziurtatzea, gutxienez.

Genero-ikuspegia kontuan hartuta aztertzen badugu soldata normalizaturik ez izatea, emakumeentzat egoera are konplexuagoa dela ikusiko dugu. Egia da, eta hala dio Trasasmontesek (2011), emakumeen parte-hartzea lan-merkatuan handiagoa dela beste herrialde musulmanekin alderatuta.

Gaur egun, aldatu egin da emakumeek lanean duten parte-hartzea. Nik ikusten dut emakume asko ari direla lanean. Nire lanean, administrarien ia % 50 emakumeak dira. Eta ospitaleetan eta eskoletan langile gehienak emakumeak dira (NOVA).

Literaturan konstante bat da azpimarratzea emakume sahararrek kanpamentuetan izan duten rol garrantzitsua, bereziki gerra-garaian. Baina lan-bolumen hori guztia, borondatezkoa, beste lan bat gehiago izan da etxe barruan egindakoaz gainera. Hala, hezkuntza-arloko lanari dagokionez, informatzaile batek profesionalen falta eta baldintzen gogortasuna aipatzen ditu emakumez hitz egiten dugunean:

Zergatik ez dago maisu gazterik? Hezkuntza-sektoreko lana oso zaila delako, denbora itxia delako. Goizeko zortzietatik ordu biak arte haurrekin. Eta, ondoren, arratsaldean, hurrengo egunerako lana prestatu behar dute, eta beste gauza batzuk egin. Eta egoera are gogorragoa da irakasle gehienak emakumeak direla kontuan hartzen badugu. Izan ere, emakumeek ardura bat dute familian: haurrekin lan egiten dute eskolan, eta gero familiarekin egon behar dute, sukaldeko lanak egin, garbigailua jarri, garbitu eta abar. Eta hilaren amaieran ez dago ezer, gauza sinbolikoa da. Batzuetan hiru hilean behin jasotzen dute zerbait, eta beste batzuetan sei hilean behin, ez baitago dirurik (Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa).

Halaber, interpretatzen da lan publikoan emakume gehiago egoteak zerikusia duela sexuaren araberako lan-banaketarekin; izan ere, banaketa horrek gizona jartzen du familiaren hornitzaile gisa, diru-sarreraren bidez:

Gizona moralki behartuta dagoenez etxekoen eta familiaren aurrean bere betebeharrak betetzera, dirua emango dioten lanak bilatu behar ditu. Baina, aldiz, emakumea ez dago guztiz behartuta, ardura hori gizonena baita. Hortaz, emakumeek egiten dute lan erakunde ezberdinetan soldata kontuan hartu gabe, gizonentzako soldata oso garrantzitsua baita (Fronte polisarioko Idazkaritza Nagusia).



Era berean interpretatzen da prestakuntzetan emakumeen presentzia nabarmena izatea gizonen aldean:

Prestakuntzaz hitz egiten dugunean, beti nabaritzen da emakumeen aldetik asistentzia eta interes handiagoa dagoela. Eta, ziurrenik, izango da gizonak ez daudelako kontu horietarako. Lan egin nahi dute soilik, eta ez dute ikasteko denborarik, bizitza aurrera ateratzeko borrokatzen ari baitira (...) gizonek lan egiteko aukera badute nahiago dute hori egin, eta ez dira prestakuntzara joaten. Dagoen lan mota gizonentzako lana da... (UNMS).

Azkenik, eta emakumeek lana lortzeari dagokionez, badira bi elementu nabarmentzen direnak baina ez diotenak mesederik egiten emakumeen lanari. Lehenik eta behin, familiarik kanpo egin beharreko joan-etorriak:

Arazoa da emakume gazte batzuk oso kualifikatuta daudela eta unibertsitateko titulazioa dutela, eta aukeraren bat aurkitu dutela Rabunin, baina haien familiek ez dietela uzten kanpamentuetatik irteten eta etxetik urrun lan egiten (...) Aljerian prestakuntza aukerak sortzen direnean kualifikazio edo titulazio profesional baterako, batzuetan postuak hutsik geratzen dira Emakumeen Batasunak ez duelako hautagairik aurkitzen... (Emakume gaztea, 40/45 urtekoen eztabaida-taldea, Smara).

Emakumeek lanpostuen urritasuna eta eskura dituzten lanpostuen kokapena sufritzen dituzte (...) beren wilayatik kanpora lan egitera atera behar badute, oso zaila izango dute (Emakume gaztea, 25/29 urtekoen eztabaida-taldea, Dajla).

Mugikortasunak familia-testuingurutik urruntzea dakarrenean, tradizioek eta familiaren balioek eragina dute saharar emakume gazteen erabakietan. Horri gehitu behar zaio emakumeek kontziliazio-arazoak izaten dituztela ardurapean seme-alabak edo adineko beste ahaide batzuk badituzte. Beste gizarte askotan bezala, zaintza emakumeen esku dago.

Lan-aukera ona topatzen baduzu ere, beti begiratu behar duzu hori zure familiarekin uztartu ote dezakezun. Hori arazo handia da, eta ez dugu aprobetxatzen daukagun ahalmen guztia, ez eta eskaintzen zaizkigun aukera guztiak ere (Emakume gaztea, 40/45 urtekoen eztabaida-taldea, Smara).

Egoera horren guztiaren ondorioz, ezkontza irtenbide gisa ikusten hasi dira zenbait gazte, testuinguru horretan aukera gutxi dituzte eta. Badirudi jendea lehen baino gazteago ezkontzen ari dela; izan ere, neskek ez diote zentzurik ikusten ikasketetan inbertitzeari, ordainetan sektore publikoko borondatezko lanei dagozkien soldatak baino ezingo badituzte jaso:

Neskak lehen baino askoz lehenago ezkontzen dira (...) Lehen, normalean, adin horretara [hogeita hamar] iristen zirenak ezkontzen ziren pertsona bat maite zutelako eta bizi-proiektu komuna zutelako. Baina, gaur egun, irtenbide moduko bat da. Aukerarik ez dutenez, irtenbide gisa ikusten hasi dira (...) Lan bat bera ere ez da ongi ordaindua kanpamentuetan, baina gutxien ordainduak eta prekarioenak diren lanak, baita doakoak direnak ere, gehienbat emakumeek egiten dituzte (NUN SAHARA Elkarte).

Izan ere, beste herrialde musulman batzuekin alderatuta emakumeen lan-partaidetza handia bada ere, enplegu faltak eragin handiagoa du haiengan. Etxeko lana emakumeen mundukotzat jotzen da ia eskusiboki, eta merkataritza-jardueran goraka ari diren sektore asko gizonezkoen munduarekin lotzen dira. Hala, nahiz eta kualifikazio-maila altua eta gizartearekin konpromiso handia izan, emakumeak etxeko eremura bideratuta gera daitezke halabarrez. Vilchesek eta Espartzak (2017) jada adierazi zuten arazo hori. Era berean, gure ustez garrantzitsua den eta lan-kontuarekin lotuta dagoen gai bat aipatu zuten: emakumeen mugikortasuna

(mugikortasun eza), alderdi horretan beti gizonen mende baitaude. Hain zuzen ere, emakumea etxeko espazioarekin lotzea ez da sinbolikoa bakarrik, termino material eta korporaletan ere badu isla; izan ere, gizonezko senideen mende daude *wilayatik wilayara* joateko, dela lan-kontuengatik dela senideak ikustera joateko edo aisialdiengatik. Autonomiarik ez duten neurrian, lan-aukerak murriztu egin daitezke emakumeentzat, lekualdaketak direla eta.

Azken urteetan, garapenerako lankidetzak ekarri duen bultzada ekonomikoaren ondorioz, nazioarteko lankidetzari lotutako lanak agertu dira. Oso lan interesgarriak dira gazteentzat, pizgarri ekonomikoak eskaintzen baitituzte lan-dedikazioaren ordainetan.

Zergatik ateratzen dira irakasleak hezkuntza-sektoretik kanpo beste aukera batzuen bila, adibidez, hemen dauden GKEetara? Bada, GKEek Hezkuntza Ministerioak baino zertxobait hobeto ordain dezaketelako (Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa).

Informatzaile horrek adierazten duen bezala, GKEen pizgarriak aurrerapena dira diruari dagokionez, gobernuak eskain dezakeen lan ia boluntarioaren aurrean. Gainera, konpentsazio ekonomikoaz harago, halako lanek harreman pertsonalak egiteko aukera ematen dute, eta etorkizunean mesedegarriak izan daitezke, adibidez, herrialde batera gonbidatu zaitzakete. Eta horrek balio handia du Saharako edozein gazterentzat.

Gazteek ezin dute soldatan pentsatu. Dena da boluntarioa. Eta familia osatzean, hasten dira pentsatzen lana aurkitu behar dutela gizartelan horrez gain, eta aldi berean, saharar kausari eta herriari lagunduz. Beste lan bat aurkitu dezakete GKE batean, eta horrela, familia osatzeko eta hura mantentzeko behar duten dirua eskuratu dezakete (Fronte polisarioko Idazkaritza Nagusia).

GKEek Lankidetzeta Ministerioaren bitartez egiten dituzte kontratazioak, eta esperientzia jakin bat duten eta proiektuak garatu eta gauzatu ahal izateko ezagutzak dituzten pertsonen profila bilatzen dute. Trasasmontesen ustez (2011), GKEen bidez sortzen ari den enplegua gero eta esanguratsuagoa da, bai zuzeneko lanpostu gehiago mantentzen dituelako, bai zeharka enplegua sortzean duen eraginagatik.

Egoera konplexu horretan, ez da harrizkoa elkarriketatutako pertsonen kezka nagusia gazteek gaur egun lan-merkatuan sartzeko duten ezintasuna izatea:

Erronka ikaragarria da gazte horrentzat egoera horri aurre egitea, graduatu ondoren lanik ez aurkitzea. Egunero egin behar diote aurre erronka horri: hainbeste ikasi ondoren, nola lortu enplegua (UJSARIO).

Premiazko beharretako bat enplegarritasuna da, enplegua lortzea, jendeak ez baitu zertan lan egin. Eta gizabanakoaren izaera horrela delako, zer egin ez dugunean gure jokabidea desbideratu egin daiteke, eta beste gauza negatiboetara jo dezakegu (UNMS).

Arazoa ez da enplegarritasuna, baizik eta enplegu eraginkorrik ez izatea, eta egitura horietan oso konplexua da. Bigarren belaunaldiko prestakuntzak talka egiten dut, nolabait, lan-nitxoekin. Alde batetik, ez dago jasotako prestakuntzari dagokion enplegu-egiturarik, eta, bestetik, egungo egoeran dagoen edozein prestakuntza desegokia izango da, hezkuntzaren edo osasun-zerbitzuen gizarte-erreproduzioarekin lotuta dagoena izan ezik.

Gainera, pertsona horrek adierazi bezala, langabeziak frustrazio-maila handia sortzen du gazteen artean, eta testuinguru horretan, jokabide gatazkatsuak edo are delituzkoak azaleratu daitezke. Kanpamentuetako ekonomia aztertzean Trasasmontesek dio langabezia dela, ziurrenik, kanpamentuetan dagoen barne-mehatxu handienetako bat, besteak beste, biztanleria trebatua eta gaitasun handiagokoa galtzea duelako ondorio gisa.

Saharar gazte batek hamabost urtez ikasten du, Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta unibertsitatea kontuan hartuta. Eta ikasketak bukatzean hona etortzen da, eta edozein lanetan egiten du lan, ikasi ez duenak bezala (...) eta hori bidegabea da urte horietan guztietan ikasten aritu den ikaslearentzat. Baina errealtatearekin egin du topo: ez dago lanposturik bere ikasketentzako. Eta horrek emigrazioa eragiten du... (UESARIO).

Esan dezakegu Saharako gazteekin gertatzen ari dena beste testuinguru batzuetan “aditu-ihesa” esaten zaiona dela; izan ere, trebatutako eta potentzial handiko gazteek, beren prestakuntzaren arabera lan egiteko tokirik aurkitzen ez dutenez, beste herrialde batzuetara abiatzen dira, familia-taldearen ugalketa-estrategia baten barruan oro har.

Enpleguaren mugak oso argiak dira. Jasotako prestakuntzaren arabera aurrera egiteko eta lan egiteko mugak (Gobernadorea).

Baina okerrena gero dator, ikasketak amaitzen dituzunean; non eta zertan egingo duzula lan? Hori da arazoa. Nahiz eta hemen GKEak, proiektuak eta guzti hori egon, saharar guztiak ezin dute proiektu hauetan bukatu (...) badira gazteak, bai mutilak bai neskak, saharar erakunderen batean sartu eta han lan egiten amaitu dezaketena, baina Saharako egoeran, orain gerra-planean eta lehen okupaziopean, batzuek lanaren % 80 boluntario gisa egiten dute (...) Badira gazte batzuk beren proiektua egiten saiatu direnak okindegi bat irekiz, edo beste denda motaren bat (...) Beste batzuek Saharako armadan sartzeko adina dute (...) Eta badira beste kontinente batera iristen saiatzen direnak ere, uste baitute iritsiko diren lurraldea ametsa dela... (CONASADH-Giza Eskubideen Saharako Batzorde Nazionala).

Aljeriara, Espainiara eta Mauritaniara migratzeaz gain, hurrengo informatzaileak dioenez, gazteek sektore pribatura migratzen dute. Denda txikiak, jatetxeak, ile-apaindegiak, tailer mekanikoak, taxiak eta bestelako merkataritza-jarduerak familia batzuek jasotzen dituzten aparteko diru-sarrerei (Espainiako gobernuaren pentsioak, diru-bidalketak, Oporrak Bakean programari lotutako diru-sarrerak) eta garapenerako lankidetzaren bidezko mikrokredituen programei lotuta agertu dira.

Gaur egun, gu ez gaude gazteek eskatutako lan-baldintzak eta bizikaltatea emateko moduan. Eta horregatik dago migratzen duten gazte masa handi bat. Emigratzeko bi modu daude: kanpora edo sektore pribatura. Izan ere, orain dugun sektore pribatua hazten ari da, gero eta indartsuagoa da eta jendeari bizitzeko aukera handiagoak eskaintzen dizkio (...) nahi izan ala ez izan, hori horrela da dagoeneko, eta hor diru asko mugitzen da. Gazteria horretara bideratu da, eta, beraz, konbinatzea da kontua... (Osasun Ministerioa).

Merkataritza gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da, eta gazte askok han jarri dituzte itxaropenak; hori dela eta, denbora gutxiago eskaintzen diote prestakuntzari, edo batere denborarik ez. Inbertsio txikiago horrek, era berean, oinarrizko sektore jakin batzuetarako, hala nola osasunerako eta hezkuntzarako, profesional kualifikatuen falta dakar, eta horrek zerbitzu publikoen kalitatea pobretzen du. Izan ere, gaur egungo egoeran, oso zaila dirudi gazteak sektore publikoko lanetara bideratzea edo lan horietan atxikitzea, jarduera horiek diru-sarrera minimoak eskaintzen baitituzte jarduera pribatuetako etekinekin alderatuta. Funtzio publikoan lan egiteari dagokionez, gazte askok egingo dute, baina sektore pribatuko beren jardueraz arduratu ondoren.

Profesional kualifikatuen gabezia horrek eta gazteen migrazioaren gorakadak erakusten dute premia larria dagoela kanpamentuetan lan-merkatua aktibatzeko neurriak ezartzeko.

Garapenerako lankidetzako mikrokredituen programak aipatu ditugu dagoeneko. Izan ere, azken urteotan garapenerako lankidetzako programak orokortu egin dira, eta mikrokredituak epe ertain eta luzeko garapen-estrategia baten parte dira, non saharar gazteak protagonista izango diren erantzukizunari eta inplikazioari dagokienez. Hala ere, elkarrizketatutako pertsona batzuek uste dute oraindik ere nolabaiteko asistentzialismoa dagoela garapenerako lankidetzan, eta deskonexioa dagoela proiektuen edukien eta biztanleriaren egiazko beharren artean:

Normalean akats bat egiten da, eta izaten da proiektuekin etortzea biztanleria kontuan hartu gabe (...) uste dut askotan lankidetzako beste puntu batetik datorrela, hau da, mendebaldeak sentitzen duen ego hori, gaizki sentitzearena, isiltzetik, eta ez benetako puntu batetik, zer behar duzuen eta zuen beharren aurrean zer ekarpen egin dezakedan jakitetik. Lehenik, entzun egin behar da, eta gero, esandakoa kontuan hartuta egin (...) Elkarre batzuek hogeit hamar urte daramatzate hemen, eta egiaz ez dute ezer egin (NUN SAHARA Elkarrea).

Kontua ez da proiektu bat egitea, eta gero, proiektu horrentzako edozein finantzazio lortzea. Kanpamentuek zer behar dituzten eta herri horrek zer nahi duen ikusi behar da (CONASADH).

Uste dut hirugarren sektoreak kanpamentuetan egiten duen edo saharar herriaren alde egiten duen lanaren berrikuspen moral oso sakona egin behar dugula. Izan ere, uste dut urte batzuetan tutoretza izan dela nagusi. Eta badakit oso erraza dela nik hau hemen eserita esatea, baina hau beste edozein enpresa bezalakoa da. Errentagarria ez bada... erakundeentzat errentagarria baita, baina saharar herria ez da ari kapitalizatzen, harentzat ez da errentagarria (Emakume gaztea, elkarrizketa, diaspora).

Garapenerako lankidetzari buruzko ikuspegi kritiko horretatik harago, mikrokredituen programei buruz zer iritzi dagoen azpimarratzea interesatzen zaigu, Gazteria eta Kirol Ministerioko Gazteria Zuzendaritzak diagnostiko



bat egin baitu¹⁹. Txosten horretan, mikrokredituen bideragarritasuna, errentagarritasuna eta onuradunari eta komunitateari emandako ordainsaria balioesten dira. Baina, era berean, programa horien arrakasta oztopatzen duten bi elementu aipatzen dira. Lehenenak biztanleriak administrazio-gaietan eta ekintzaitzaren arloan duen kualifikazioarekin du zerikusia:

... kredituak kudeatzeko eta kreditu horiek administratzeko jendeak duen ezagutza ere mugatua da, batez ere kontzientzia-faltagatik (...) prozesu motel bati buruz ari gara, eta jendea ekintzaitzari buruzko ideia horietan trebatu behar da. Hala ere, funtsak denbora jakin baterako dira, eta denbora hori urtebete da. Eta garrantzitsuena da urtebetean diru hori erretzea (...) ez dago orekarik trebakuntzarako, konkreziarako eta prestakuntzarako dagoen denboraren eta kontuak ixteko daukagun denboraren artean (Gazteria eta Kirol Ministerioa).

Bigarren elementuak onuradunen ezaugarriak eta programan parte hartzen duen eragile bakoitzaren erantzukizunak arautzen dituen esparru juridikorik ez egotearekin du zerikusia:

Beste elementu bat da legezko esparru juridiko baten falta izugarria dagoela, eta dena mugitzen dela harreman pertsonalen eta erakundeen arteko harremanen bidez. Hortaz, norik erantzuten du gaizki bideratutako kredituagatik? (...) Zer motatako pertsonak izan behar dute onuradunak? Normalean, erakundeen eta agintarien babesa pertsona zaurgarrienentzat izan ohi da, alargunak edo desgaitasunak dituzten pertsonak dituzten familientzat. Hori ongi dago, baina ekintzaile-mentalitatearik ba ote duten ere galde liteke. Bestela, berdin dio diru hori emanda ere (Gazteria eta Kirol Ministerioa).

19 "Gazteria Zuzendaritza Nagusiaren Gaitasunak Garatzeko Proiektuaren" esparruan egindako ekintzaitzeta-ekimenen diagnostikoari buruzko txostenaz ari gara. Gazteria eta Kirol Ministerioa, 2021.

Legez kanpoko kontsumoak eta jarduerak

Aurreko paragrafoetan, elkarrizketatutako pertsonetako batek aipatu du biztanleriaren sektore garrantzitsu bat langabezian eta etorkizunerako aukerarik gabe edukitzeak dituen arriskuak. Egoera horrek edozein gizartetan sortzen du alarma, baina kanpamentuetako baldintzetan garrantzi berezia hartzen du. Egoera ekonomikoak eta politikoak saharar gazteengan eragiten dituen frustrazioa eta ezintasuna ere aipatu dituzte. Testuinguru horretan, gazteen gatazkak areagotzea, erlijioaren edo gerraren esparruan dituzten jarrerak erradikalizatzea, eta delituzko jokabideak eta drogen kontsumoa agertzea ekar dezaketen jokabideak sor daitezke.

Bi fenomeno daude hemen, eta biak bereiztea komeni da: drogekin trafikatzeta, batetik, aspalditik egiten diren joan-etorri eta merkataritza-truke informalean -batzuetan, legez kanpokoak- bidez egiten dena; eta, bestetik, gazteek kanpamentuetan drogak kontsumitzea. Azken horri dagokionez, egindako elkarrizketetan bi orientazio antzematen dira: bata, fenomenoaren garrantzia minimizatzen zuzendua, betiere Marokoren ekintzarekin lotuz; eta bestea, gazteen artean kontsumoaren existentzia eta larritasuna baieztatzen duena eta horren inguruan lan egitearen garrantziari dei egiten diona.

Gazteak kontziente dira hemen bizi direla, kanpamentuetan, eta hemen arrisku handia dagoela. Esaterako, terroristak eta drogak daude inguruan. Ez da kanpamentuetan, inguruetan baizik (...) terroristekin elkartzen diren edo drogekin zerikusia duten gazteen ehuneko oso txikia da, kanpamentuetan bizi diren gazteen ehuneko bat baino gutxiago (Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa).

Jarrera hori dutenek erlijio-faktorea eta taldeak pertsonarengan duen gizarte-kontrola aipatzen dituzte, gazteen artean droga-kontsumoa geldiaraziko luketen elementu gisa:

Saharako gizartearen izaeragatik, gobernuaren aginduengatik, gure erlijioaren izaeragatik eta baita herri kontserbadorea garelako ere, ez ditugu halako droga-mendekotasun kasuak. Ez dira oso ohikoak, ezta oso entzunak ere hemen. Batzuk aurki ditzakezu, baina esku batez zenbatu ditzakezu. Gainera, gure gizartean, ez da bakarrik zure familia zer egin behar duzun esaten dizuna, baizik eta bizilaguna, senidea, lehengusua... denek dituzte begiak zure gainean (Fronte polisarioko Idazkaritza Nagusia).

Esan bezala, diskurtsoan Maroko aipatzen da drogen agerpenaren eta kontsumoaren gorakadaren arduradun gisa, droga sartuz saharar gazteria ahultzen eta baliogabetzen saiatzen baita:

Droga-trafikoak Marokoren politikatzat jotzen da. Afrikan drogak banatzen dituen lehen herrialdea dela diote. Eta Marokoren politika bat da, saharar gazteak ezjakinak, arriskutsuak eta sentsibilizatu gabeak izan daitezen. Eta hori lehen munduko herrialdeentzat arriskutsua bada, imajinatu oraindik independentziarik ez duen eta errefuxiatuen kanpamentu batean bizi den herrialde batentzat. Saharar herriari eragiten dion fenomeno oso arriskutsua da (UESARIO).

Okupatzailea hainbat buru dituen gerra ari da egiten gurekin. Eta horien artean aipatu nezake kanpamentuetan droga asko ari direla pasatzen, eta pilulak sartzen saiatzen ere ari direla. Eta horrek guztiak gazteen borondatea suntsi dezake (UJSARIO).

Arazo hori badagoela eta gazteriarengan ondorioak izan ditzakeela onartzen dutenen artean, batez ere, pobrezia eta gazteen langabezia aipatzen dira horren erantzule. Gainera, familia osatzeko diru-sarreraren beharra eta diru-sarrera horiek izateko zailtasunak direla eta, gazteek droga-trafikoaren bidez lortzea bilatuko lukete.

Presio estra bat dago gazteen gainean. Ez baitago lanik, ezkondu egin nahi dute eta gurasoak mantendu. Eta horrek irtenbideak bilatzera eta drogetan pentsatzera eramaten ditu. Gazteek oso erraza izan dute estupefazianteak eskuratzea eta droga-trafikoan, erregaien trafikoan eta lurralde arriskutsuetan urrea bilatzen aritzea (Kultura Ministerioa).

Horrek zerikusia du beste irtenbiderik eta prestakuntzarik ez izatearekin. Ez dago pobreziatik ateratzeko aukerarik (...) Hortaz,

irtenbide gisa, jende askok, gazte askok, urrearen bila edo trafikora jotzen dute. Mutilak dira gehienak, baina neskak ere badira. Normalean mando-lana egiten dute (NUN SAHARA Elkarte).

Elkarrizketatutako pertsonen arabera, trafikoa gizon gazteek egiten duten arren, garrantzitsua da informatzaile horrek neska gazteei buruz emandako datua jasotzea, bai eta drogaren eramaile gisa egin dezaketena ere. Gazte askok bizi duten zaugarritasun-egoeran, droga-trafikoak berehalako diru-sarrerak eta leku bat ematen dizkiete:

Gobernuak eta agintariak gazteen alde lan egin behar dute, muturreko korronteen, drogen edo dena delakoaren aurrean. Gazte horiek asmo materialak dituzte eta norbait izan nahi dute bizitzan (...) Estrategiarik ez duen erakunde batean lan egitearen eta droga-mafia batean edo korronte terrorista batean lan egitearen arteko aldea da zu langabea zarela, inor ez zarela, eta bat-batean, iritzia eman dezakezu eta autoritatea ematen dizute. Eta, gainera, postu bat eta erosotasuna bermatzen dizkizute. Adreiluak egiten egotetik inoiz amestu ez zenuen mundu batera pasatzen zara (...) orduan, bada, badago hori. Barrura sartu nahi dute, baina beti daude kanpoan, ate-joka (Gazteria eta Kirol Ministerioa).

Gazteek droga-kontsumoari ematen dioten garrantzia azpimarratu behar da. Emakume eta gizon gazteekin egindako tailer eta eztabaida-taldeetan, drogaren auzia zeharka aipatzen da, bai enpleguari, osasunari eta aisialdiari buruz galdetzean, bai gazteei azken urteetan kanpamentuek izan dituzten aldaketa nabarmenenak identifikatzeko eskatzean ere. Eraikuntzaren arloko aldaketak edo gama altuko autoen gorakada aipatzen direnean, beti aipatzen da droga:

Aldaketarik nabarmenena zementuzko eta hormigoizko adreiluen erabileran dago (...) mota guztietako drogen agerpena eta bereziki droga sintetikoak, hala nola pilulak eta tripiak... (Gizonezko gaztea, 40/45 urtekoen eztabaida-taldea, Aaiun)

Guk kanpamentuetan ikusten ditugun aldaketak drogazaletasunarekin eta droga-mendekotasunarekin zerikusia dute, hala nola pilulak edo estasia, haluzinogenoak... (Gizonezko gaztea, 30/34 urtekoen eztabaida-taldea, Dajla).

Kanpamentuetan aldaketa asko gertatu dira, eta horien artean, gizarte-ohitura txarrak nabarmentzen dira, hala nola, drogen kontsumoa, tabakoaren kontsumoa, indarkeriaz egindako lapurretak eta kanpamentuetan ez zeuden beste fenomeno oso txar batzuk (Emakume gaztea, 15/24 urtekoen eztabaida-taldea, Smara).

Gure ustez, garrantzitsua da azpimarratzea, erakusten duen zentraltasunagatik eta dakartzan osasun-, ekonomia- eta gizarte-ondorioengatik, gazteen artean ez dela drogari buruz zuzenean galdetu beharrik; edozein egoeratan ateratzen da gaia, naturalki. Gazte askorentzat, drogen kontsumoa denbora libre gehiegi izatearekin lotuta dago; izan ere, ez dakite zer egin edo zertan eman denbora hori:

Kanpamentuetan maiz agertzen hasten diren droga eta haluzinogenoen inguruan aldaketa nabaria dela uste dut, eta gazteek beste okupazio hoberik ez izatearen ondorio dela; orduan, droga mota horietan babesa bilatzen dute pixka bat, bizi diren errealitatetik ihes egiteko... (Gizon gaztea, eztabaida taldea 25/29 urte, Bojador).

Gazte sahararrak denbora gehiegi izan ohi du, eta hori ez da onerako, txarrerako baizik; nola edo hala denbora hori "betetzen" saiatzen dira gazteak: mahai-jokoetan eta bestelako jokoekin betetzen, tea eginez, lagunekin edo familiarekin egonda, eta abar. Izan ere, denbora gehiegi izatearen ondorioz, gizarte arazo berriak agertzen dira: drogen menpekotasunetik hasi, eta indarkeriazko delituak egiteraino. (Emakume gaztea, 40/45 eztabaida taldea, Smara).

Alde horretatik, gazteen eztabaida-taldeetan eta tailerretan eskari hauek ateratzen dira: aisialdi-zentroak, entretenimendurako lekuak, erraz elkartzeko moduko kafetegiak, liburutegiak, kirol-instalazio gehiago, eta abar.

Gazte batzuek droga-trafikora jotzen dute, lanik ez dutelako, edo lan publikoan soldatak txikiak direlako. Izan ere, drogarena diru-sarrera azkarra da, eta horrek kontsumo-gai berriak eskuratzeko aukera ematen diete:

Lan gutxi dago; beraz, gazte langabeek eta ikasten ez dutenek gaizki ikusitako beste irteera batzuetara jotzen dute erraz, hala nola droga kontrabandora, eta horrek gaixotasunak eta heriotza ugari eragiten ditu (...) batzuen diruzalekeriak lan txar horiek egitera eramaten ditu, lan onekin gustura ez daudelako. (Gizonezko gaztea, eztabaida taldea 25/29 urte, Bojador).

Egoera honek, droga trafikoak eta kontsumoak gizartean izan ditzaketen ondorioak ezagututa, lanketa urgente bat egin behar du gobernuak lehenbailehen. Zentzu horretan, ondorengo informatzailearen hitzetan, droga trafikoaren inguruan pausoren bat eman dela ikusten dugu:

Horri buruzko sentsibilizazioa egin da, eta uste dut nolabaiteko kanpaina bat egin dela (...), eta horrek aukera ematen du ondorioztatzeko droga egon dela eta oraindik badagoela. Baina ez da kontsumorako, trafikorako baizik. Bistan denez, hemen ez dago kontsumitzeko gaitasunik; beraz, pasoko lurralde bihurtu gara (UNMS).

Uste dut kontzientziazio lana egin beharko litzatekeela gazteen artean horren ondorioei buruz. Eta ez soilik kartzelara joateko arriskuagatik, baizik eta gizarte honetan epe luzera izango dituen ondorioengatik. Sahararren ezaugarri on bat galtzea dakarrelako, hau da, guztioi mesede egingo diguten gauzak egitea (NUN SAHARA elkarte).

Ikus dezakegunez, asko hitz egiten da droga trafikoaren atzean dauden arrazoiei buruz, baina ez hainbeste droga horien kontsumoari buruz. Kontsumo horren atzean, hala ere, arrazoi berberak daude: etsipena, frustrazioa, etorkizunera proiektatzeko ezintasuna, denbora libre gehiegi izatea, etab. Gazte sahararrek bizi dituzten baldintza fisiko eta mental gogor horiek eragina dute, zalantzarik gabe, kolektibo horren osasun emozional eta psikologikoan. Drogak egoera horretatik “irteteko” kontsumitzeak eragin larria izan dezake gazteen osasun fisikoan eta mentalean²⁰, eta elkartasunaren oinarriak suntsitzera jotzen du.

20 Osasun mentalari dagokionez, Vilchese eta Esparzak (2017) beren ikerketan ondorio hauek aipatzen zituzten: nahasmenduen gorakada orokorrak, depresioa emakumeen artean, eta fobiak, psikosia edo trastorno bipolarra gizonen artean. Bestetik, buru gaixotasuna tabua da saharar gizartean, batez ere gizonen artean, eta horrek zaildu egiten du trastorno horiek lantzeko bidea.

Migrazioa

“Ez dago gazte saharar talde baten bilerarik gai hau aipatzen ez duenik: kanpora migratu ahal izateko itxaropena, kanpora atera eta bizitza hobea lortzeko ametsa”
Gaztea, Bojador

Orain arte esandako guztian, migrazioa askotan agertu da, beti ere gazteen langabeziarekin eta jarduerarik ezarekin lotuta, eta beren familiei laguntzeko eta beraiena sortzeko (ezkontza bidez) diru-sarrerak izateko beharrarekin lotuta. Aipatu dugu migrazioaren bilakaera, sortzen diren migrazio-talde ezberdinen bidez: erbestealdi bikoitza jasan zuen “bigarren belaunaldi polisariotik” hasi eta kanpamentuetatik edo Mauritaniatik datozen familietaraino, lurralde okupatuetao gazteetatik eta Oporrak Bakean programari lotutako kanpamentuetako nerabeetatik igaroz. Beraz, mugikortasun handiko egoera dugu herri horien artean.



Bestalde, Saharako migrazioak beste migrazio batzuetatik oso desberdina egiten duten berezitasunak ditu; izan ere, populazio horren irteera-puntu nagusia, eta,aldi berean, haren eraginez ekonomikoki eta sozialki eraldatzen den espazioa, errefuxiatuen kanpamentua da. Gómez Martínek (2010) adierazten duen bezala, Saharako gobernu bat eta erakundetze bat daude erbestean, baina migrazioaren ondoriozko kapital ekonomiko eta sozialaren mugimenduak gertatzen diren eszenatokia ez da gertatzen estatu-nazio baten barruan, zentzu hertsian, baizik eta utzitako lurralde batean.

Gazteak kanpamentuetatik ateratzearen arrazoiak eta ondorioak planteatzen direnean, elkarrizketatutako pertsonak adierazten dute gazteek diru-sarrera handiagoak lortu behar dituztela, familia bat osatu ahal izateko edo arriskuan daogen eta eskuratu nahiko luketen mundu batean bizirik irauteko.

Aukerak mugatuak dira, eta gazteek diru-sarrerak behar dituzte bizitza berri bati ekiteko. Eta ezkontzeko, adibidez, diru asko behar dute. Etxe bat eraiki behar dute, auto bat eskuratu eta lana izan. Behar asko daude hemen eskuragarri dauden lanekin bete ezin dituztenak. Orduan, gazte gehienek emigrazioaren ametsa dute, beste herrialde batera joatea aukerarik ez dutelako (Garapen Ekonomikorako Ministerioa).

Hezkuntza eta prestakuntza maila altua jaso duten gazte gehienek ikusten dute enplegu eta soldata hori ere ez dutela jaso eta onartuko, bere burua soldata hori baino handiagoa ikusten duelako, dituen gaitasunengatik. Horregatik, emigrazioa irtenbide gisa ikusten dute (...) beste lan eta leku batzuetan bilatzen dituzte irtenbideak, Aljerian, adibidez. Emigrazioaren aldeko hautua egiten dute berez dagokiena eskuratu ahal izateko... (Fronte polisarioko Idazkaritza Nagusia).

Gaur egungo erronkarik handiena, herrialde guztietan, emigrazioaren gaia da; eta gu ez gara salbuespen. Gazte gehienek Europara iritsi nahi dute, han lana bilatzeko. Gazte horiek Europara joan nahi dute lanera, nahiz eta ikasi dutenarekin zerikusirik ez duen zerbaitetan lan egin behar izan (Armada Sahararra).

Beren prestakuntzarekin bat etorriko litzatekeen lana eskuratu ezin izanaren frustrazioa jasaten duten gazte prestatueneren irteerak “burmuin-ihesa” delako fenomenoaren eragiten du, eta horrek, berriz, hutsune nabarmenak uzten ditu

osasun eta hezkuntza sektoreetan²¹. Eta, bide batez, balizko oposizio politikoa ahuldu egiten da. Hala ere, badira migrazio prozesu horien alde ona ikusten dutenak ere.

Alde batetik, ihesa da, baina, bestetik, laguntza handia da guretzat. Izan ere, familia bakoitzak kide bat edo bi ditu kanpoan lanean, eta horiek eusten laguntzen diote. Izan ere, eusteko baldintzarik ez badago jendea hiruzpalau urtean joan egiten da. Baina 1975etik gaude hemen (Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa).

Emigrazio horrek badu bere alde txarra, baina baita positiboa ere. Alde ona da, adibidez, Espainiara, Frantziara edo munduko beste alde batera doazen gazte horiek beren familiak hemen mantentzeko lan egiten dutela. Eta hemen ere, sektore pribatura jotzen dutenen artean ere hori da motibazio nagusia: euren familiak mantentzea eta bizi maila hobetzea (Osasun Ministerioa).

Asko hitz egin da emigrazioaren alde negatiboaz, baina uste dut alde positiboa ere baduela; izan ere, familia sahararren bizi mailan eragin positiboa izan du (Armada Sahararra).

Bi pertsona horiek diru-bidalketez ari dira, hau da, migratzaileek atzeritik etxera bidaltzen duten diruaz. Diru-fluxu horiek gero eta garrantzi handiagoa hartu dute, familiei laguntza handia ematea ahalbidetu dutelako, aurreko informatzaileak adierazi duen bezala. Diru-bidalketek, halaber, behar-beharrezkoak ez diren kontsumo-ondasunak eskuratzeko aukera eman diete: autoak, telefono mugikorrak, ordenagailuak, etab. Migrazioetik datorren diruak denda eta negozio txikiak zabaltzea ahalbidetu du. Beraz, eragin handia izan du diru horrek kanpamentuetan “merkatu ekonomia” bat agertzeko orduan.

Hala ere, familia guztiek ez dute kanpotik dirua jasotzen; beraz, migrazio-prozesuen bidez sartutako diruak desberdintasun sozioekonomikoa ere eragiten dute kanpamentuetan, beste faktore batzuekin batera, alegia. Gainera, beste testuinguru batzuetan gertatzen den bezala, etxeko taldea ugaltzeko estrategietako bat da kide bat atzerrian izatea. Epe luzera, horrek “migrazioaren kultura” sortzen du gazteen artean, eta, haientzat, kanpora joatea heldutasunerako bidean egin beharreko urrats bihurtzen da.

21 Gomez Martinen (2010) kalkuluen arabera, Kuban trebatutako 200 bat mediku saharar ariko lirateke Espainian lanean. Migrazio horrek, beste osasun profesional batzuenarekin batera, desegonkortu egin du, haien ustez, kanpamentuetako osasun sistema.

Kanpamentuetan dagoen gazteria ez badago diasporan, oraindik aukerarik izan ez duelako da. Oraindik etorri ez dena, saiatzen ari da. Eta oraindik lortu ez duena saiatzen jarraituko du, lortu arte (NUUN Sahara elkarte).

Kanpoan daudenak, diasporan -bere izendapenaren arabera-, ez dira talde homogeen bat, ezta gutxiago ere. Alderantziz baizik. Multzo heterogeneoa da, hainbat faktoreren arabera: ze garaitan migratu zuten, zein gazte-taldekoak diren, kultura eta gizarte maila, etab. Gainera, harrera-testuinguruaren aldetik ere oso une desberdinak aurkitu dituzte eta egoera horiei egin behar izan diete aurre. Esate baterako, oso desberdinak dira 80ko hamarkadan eta ia 90ekoaren ia amaierara arte Espainian izandako harrera eta XXI. mendekoak; izan ere, mende honetan bolumenak askoz handiagoak izan dira, Espainia Europako helmuga kuttun bihurtu baitzen.

Oso testuinguru desberdinak daude (...) adibidez, Kubatik pasatu zirenen eta zuzenean kanpamentuetatik datozenen artean. 1970 eta 80ko hamarkadetan Kubara ikastera emigratu zutenek bestelako ikuspegi bat jaso zuten, eta hona etortzean, nolabaiteko oinarriarekin iritsi ziren, gaztelania ondo hitz egiten eta seme-alabak hezteko bestelako ikuspegi batekin, agian pixka bat mendebaldarragoa (...); aldiz, badira duela lau edo bost urte kanpamentuetatik zuzenean etorri berri diren eta gaztelania menderatzen hasi berri diren kide asko ere. Familia oso tradizionaletatik datoz, eta ez dute bizi-erritmo jakin bat izaten... nola esan? (LEJSEE- Gazte eta Ikasle Sahararren Liga Espainiako Estatuan).

Informatzaile honek “bigarren belaunaldi polisarioaren” eta gaur egun mugimenduen protagonista direnen arteko aldea nabarmentzen du. Esan bezala, “bigarren belaunaldi polisarioa” atzerrira “bidali” zuten, ikasketak egitera, hala nola Kubara, Aljeriara edo Siriara, euren familiak kanpamentuetan utzita eta bigarren erbestealdia pairatu zuten, askapen nazionalaren aldeko borrokaren eta saharar herriaren aldeko sakrifizioaren testuinguruan. Ondo trebatutako eta kanpoko esperientzia eskuratu zuten gazte horiek garai itxaropentsuan itzuli ziren kanpamentuetara, une politiko egokian, Bake Akordioaren garaian, itxaropen eta ilusio garaitan. Baina Marokok ez zituen akordio horiek bete, eta belaunaldi horren itxaropena zapuztu egin zen; hainbesteko ahaleginak egin ondoren dena pikutara! Frustrazio eta etsipen handia eragin zuen gazteen artean. Belaunaldi horrek berriro migrazioari ekin dio, arrazoi ekonomikoengatik, eta horietako askok Espainiara jotzen dute, lotura kolonialek eragindako gertutasunagatik. Hala ere, gertutasun

horrek ez du askorik laguntzen: Espainiako administrazioek eta sistema juridikoak ez dute iragan kolonial hori aintzat hartzen, eta, gainera, sahararrek jarrera xenofoboak pairatzen dituzte bertan, Magrebetik datozen beste pertsonak bezalaxe.

Gaur egun migratzen duten pertsona eta familiak oso ezberdinak dira lehen aipatutako belaunaldiarekiko. Oraingoek ez dute aurrekoek bezainbesteko kultura eta gizarte kapitala, eta gainera, “bigarren belaunaldi polisariokoek” baino testuinguru sozial eta juridiko zailagoa aurkitzen dute bertara iristean. Espainiako biztanleriaren xenofobia aipatu badugu ere, egia da, baita ere, sahararrek bertako biztanle askoren sinpatia ere pizten dutela, bereziki Euskadin; izan ere, Saharako gatazka eta Euskal Herrikoaren artean nolabaiteko parekotasunak aurkitzen baitituzte, eta horrek enpatia handiagoa eragiten du. Dena den, harrera hori gero eta ahulagoa da, okerragoa, hainbat faktoreren ondorioz: urteak eta urteak igartzearen higadura, nazioarteko komunitatearen utzikeria, 2008ko krisi ekonomikoa, bertako biztanleek Magrebeko biztanle bolumenaz duten pertzepzioa eta abar. Hala erakusten dute diasporako bi gazte hauen esperientziak:

Nire ustez, konfiantza falta dago, aurreiritzi ugari, eta arrazakeria ere bai. Adibidez, lan arloan; nik neuk bizi izan dut, eta hemen gaudenetako edonork bizi izan du alokairurako etxe baten bila joatean. Agian 3.000 euroko nomina ikusi ondoren zu etortzen zara, zurea eta zure emaztearen nominarekin, eta dauzkazun abizenak izateagatik... bai, arrazakeria dago, eta, batez ere, Euskal Herriak harritzen nau, hain liberalak izateaz harro egonik, batez ere beste erkidegoekin alderatuta... (Gizon gaztea, 17/32 eztabaida taldea, diaspora).

Etxebizitza eta lan arloko arrazakeria aipatzen dira, atzerritar jatorriko pertsonak jasan ohi dutena, bereziki melhfa janzteia aukeratzen duten emakumeek²². Gazte horiek egunero jasotzen dituzte “bertako” biztanleen keinu eta begirada bereziak, eta, jakina, luzarora, beren autopertzepzioan eragiten nabarmena dute:

22 Saharako emakumeen jantzi tradizionala. Pieza bakarrekoa da, burutik oinetaraino estaltzen du eta hainbat koloretakoa izan ohi da, batzuk oso deigarriak. Elkarrekikotasuneko gizarte-arauetan funtsezkoa izateaz gain, SEADen testuinguru politikoa identitate politikoa eta kausa sahararraren aldeko borrokaren sinbolo bihurtu da.

Ez dugu horretaz hitz egiten, ez dugu salatzen... eta ondorioz, gutxiagotasun konplexua sortu zaigu. Agian ez gara gure eskubideez jabetzen. Ahalduntze faltaren ondorio ere bada. Ez duzu bertako hizkuntza ezagutzen, beldurra ematen dizu paperek edo aldi baterako egoiliar izate horrek, zigilu horrek (...) Eta nonahi ateratzen da arrazista bat, edozein lekutan... supermerkatu batean, zure auzoan, segurtasun guarda atzetik begirada arraroak botatzen, hori da gure egunerokoa, nahiz eta txukun-txukun ibili... (Gizonezko gaztea, 17/32 eztabaida taldea, diaspora).

Sahararrek kanpora joate hori, batez ere gazteena, errezelo handiz ikusi zuen hasieran Fronte Polisarioak. Hala ere, denborarekin diskurtso hori aldatzen joan da, kanpamentuetara dirua iritsi ahala, eta bidalketa horien gizarte onurak ikusita, diskurtsoa aldatu eta errazago onartzen da migratzearen kontu hori.



Emigrazioa erronka handia da, ez bakarrik gure herrialdearentzat, baita guretzat ere, agintari garen aldetik. Pentsa liteke jada ezin ditugula gazteak geldiarazi, ezin diegula haien beharrei erantzun eta emigrazioa dela irteteko bide bakarra (UJSARIO).

Fronte Polisarioaren errezeloak eta “migratzaile traidorearen” irudi negatiboak bultzatuta, hasiera-hasieratik gazteek hiru konpromiso hartuta justifikatu zituzten irteerak (Gómez Martín 2016): kanpamentuetara itzultzea beharrezkoa zenean; diasporan batasunari eustea; eta saharar herriaren alde lan egiteari inoiz ez uztea. Izan ere, elkarrizketen bidez ikusi dugu nola gazte saharar migratzaileek hitz egitean berehala aipatzen den hauen konpromiso politikoa:

Gazteak beren familiari laguntzeko eta, aldi berean, beren herriari laguntzeko asmoa dute (...). Ez dute beren buruarekin bakarrik pentsatzen, eta lanean ari dira beren familiak mantentzeko, baina ez dute ahazten beren kausagatik daudela han. Agian beste nazionalitate batzuk dituzte, baina ondo baino hobeto dakite sahararrak direla eta euren familiaren alde lan egiten dutela, baita saharar kausaren alde ere (UNMS).

Konpromiso horrek eta Espainiako migrazio-prozesuan izandako beharrek ekarri zuten, hain zuzen ere, 2004tik aurrera migratzaileen elkarteak, unibertsitateko gazteen kolektiboak eta pertsona intelektuaren taldeak eratzea. Gomez Martinek (2016) ikertu ditu erakunde horien eraketa, Fronte Polisarioarekin dituzten harremanak, mugak eta aukerak. Soziologo horren esanetan, migratzaileen elkarteek mesfidantza sortu zuten hasieran Fronte Polisarioaren aldetik, organigrama ofizialetik kanpo eratzten zirelako. Fronte Polisarioaren errezeloak baretzen ziren heinean eta migratzaileari buruzko diskurtsoa aldatzen joan zen heinean, Fronte Polisarioak elkarte horien nolabaiteko autonomia onartu zuen, eta haiekin koordinatzen hasi zen. Gainera, Fronte Polisarioaren Bulegoa ireki zuten Madrilan, eta migratzaileen ordezkariak sartu ziren Fronte Polisarioaren XII. Kongresuan.

2010az geroztik, gero eta garrantzitsuagoak dira Espainian unibertsitateko gazte sahararren kolektiboak. Izan ere, Gomez Martinen (2016) ustez, haiek dira Espainiako gazte sahararren mobilizazio sozial eta politikoaren aitzindariak. Gainera, apurka-apurka, kolektibo horiek jabetuko dira gazte sahararrak hiru gune berezitan banatzen direla –kanpamentuak, lurralde okupatuak eta diaspora–, eta, horregatik, hainbat arazori aurre egin behar dietela eta identitate komun bati eusten diotela. Fronte Polisarioaren

XIII. Kongresuan argi eta garbi geratu zen hori; izan ere, UESARIO sortu zen (Sagua El-Hamra eta Rio de Oroko Ikasleen Batasuna), hiru lurraldeetako gazteak batuta²³.

Ikusten dugun bezala, bada Saharako gazteria antolatzen duen mugimendu bat, lehen aipatutako hiru espazioak (bizileku edo igarotzeko eremu) barne hartzen dituena. Gazte migratzaileak Saharako gizartearen elementu dinamizatzaile bihurtzen dira, bestelako diskurtsoak eskainiz, batzuetan ofizialen aldean alternatibotzat jo daitezkeenak. Izan ere, beraien kausa eta gatazka hiru gune konektatu baina bereizitatik bizi dute orain.

Espainiara migratzen duten gazteen artean, badira ahots batzuk zalantzan jartzen dutenak herrialde honetan etorkizun arrakastatsua lor daitekeenik; lehen lerroan jartzen dituzte migrazio-prozesuen zailtasunak, eta bestetik, giza kapitalaren ihesak kanpamentuei eragiten dien kalteak azpimarratzen dituzte. Horrenbestez, diaspora eta kanpamentuak ondo uztartzeko proposamenak egiten dira, migratzen duten pertsonen kapital soziala eta ekonomikoa aprobeztatuz Tindufen aldaketak eragiteko.

Kanpamentuetatik "talentuen ihesa" gertatu da eta zorionez nik uste dut garaiz esnatu garela Europako lozorro honetatik (...) Zu Espainiara joaten zara dirua ordainduz eta zorpetuz, gehienek ez dutelako diru hori. Hizkuntza ezezaguneko lurralde batera doaz, paperik gabe, eta hilabeteak pasatzen dituzte zor hori ordaintzen (...) uste dut diasporaren ardura ere badela hau esan eta gogoraraztea. Mendebaldea idealizatzeari utzi behar diogu (...) sahararrek ezin dute luzaroan eutsi Espainiako lurraldean. Hona etorri eta hemen enplegua sortu behar dute. Oraintxe bertan, enplegua sortzeko proiektu asko daude diasporako jendearen artean (...) 2018 inguruan hasi nintzen honelako gauzak entzuten: badela ordua gure ahaleginak, gure ezagutzak eta gure erosteko ahalmena Espainiako lurraldean uzteari uko egiten hasteko. Hortik aurrera jende gazte asko ezagutzen dut... adibidez, "Aldaketaren aldeko sukaldaritz" izeneko proiektu bat. (NUN SAHARA elkarte).

Aztertu beharreko beste gai garrantzitsu bat zera da, nahiz eta diagnostiko honen helburuak gainditzen dituen: ze aldaketa gertatzen ari diren diasporako gazteen artean kanpamentuetako gizarte sahararraren arau,

²³ Espainian, Saharako Ikasle eta Gazte Ligak (LEJSEE) ordezkatzan du Batasun hori. 2012an sortu zen.

ohitura eta egiteko moduei dagokienez. Aldaketak ugariak dira aisialdi ohituretan, genero roletan, erlijioa bizitzeko moduan, herri gisa beren buruaz duten ikusmoldea ulertzeko moduan, eta, beste migrazio-prozesu batzuetan bezala, gaztea espazio oso konplexu batean eta gainditzen duten kontraesanek jositako sentitu daiteke. Alde batetik, hor dago familiarekiko eta jatorrizko komunitatearekiko leialtasuna; bestetik, portaera berriak agertzen dira, eta familiak eta komunitateak kontrol²⁴ handia izaten dute portaera horien aurrean.

Denok elkar ezagutzen dugunez, eta gizarte oso txikia garenez, beti dago epaituak izateko eta onartuak ez izateko beldur hori. Ez bakarrik maila pertsonalean eta indibidualean, baita komunitate eta familia sentimenduagatik ere, ohore kontuak tartean izanik. Hori guztia zama bihurtzen da, eta bakoitzak bere modura eramaten du bere motxila. Batzuetan gauza horiek guztiek pixka bat zaildu egiten dute gazteen arteko harremana, baina uste dut erakunde eta elkarte ezberdinetatik lan handia egiten ari direla (LEJSEE).

... diasporakook errudun sentitzen gara gure senideen aurrean, han geratu direnen aurrean, eta zer egiten dugu?, ba kapital-injekzio bat, horrekin nolabait, gure senideen maitasuna eta harrotasuna erosteko. Izan ere, dagoeneko kanpoko aktore askok esaten diete gurasoei bere alaba edo semea zaborra dela, edan egiten duela edo ez dela musulmana (...) Eta, jakina, bakoitzak bere modura hartzen du hori, zama hori arindu nahian, zeren espektatibaz betetako motxila ikaragarri batekin etortzen gara (Emakume gaztea, elkarrizketa, diaspora).

Saharar populazioaren mugimendu ezberdinek, bizi diren mugetatik haratago sortzen den espazio sozial, ekonomiko eta politiko bat eratu dute denborarekin. Izan ere, espazio transnazional horren hiru puntu nagusien artean (diaspora, kanpamentuak eta lurralde okupatuak) etengabeko zirkulazioa eta mugimendua dago. Hala adierazi dute elkarrizketatutako pertsona batzuek:

²⁴ Hori emakumeek pairatzen dute bereziki, taldearen identitatea edo tradizioaren zama emakumeen gain jarri, eta beraiek hartzen baitute batik bat. Identitateak, gizarte eraikuntza, harreman eta prozesu guztiek bezalaxe, "genero" izaera du (gendered). Emakumeak dira taldearen nortasuna bideratzen dutenak, eta emakumeen gorputza kontrol sozialerako gune bihurtzen da.

Izan ere, mugimendu erraza baitago sahararrentzat. Adibidez, ni bihar Espainian egon naiteke, egoiliar paperak ditudalako. Eta Mauritania ere egon naiteke, Saharako kanpamentuen eta Mauritaniaren arteko mugak zeharkatzeko zailtasunik ez dagoelako. Eta Aljeriako edozein puntutan ere erraz egon naiteke. Eta Mendebaldeko Saharako eremu okupatueta ere egon naiteke Aljeriako edo Mauritaniako pasaportearekin (...) bai, mugitzeko erraztasun handia dugu. Eta hori gauza ona da, baina gure egoeran oso arriskutsua ere bai (Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa).

Ez dakit politika deitu diezaiokegun, baina malgutasunaren politika da. Adibidez, ni zuzendari naiz ministerioan, baina noizean behin emigrantea naiz Espainian, nekazaritzan edo zerbitzu alorreko lan bila” (Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa).

Nik beti gauza bera esaten dut: badirudi kanpamentuetara jaisten naizenean mundu guztia han dagoela, eta igotzen naizenean, berriz, mundu guztia hemen dagoela. Joan-etorri izugarri gertatzen dira, sinestezina da (Gizonezko gaztea, 17/32 eztabaida taldea, diaspora).

Mugikortasun eta interkonexio horietan, kontuan hartu behar da, halaber, telefono mugikorren eta Interneten erabilera orokorra dela, batez ere Saharako gazteen artean, eta horrek aukera ematen duela sahararren artean etengabeko komunikazioa izateko, Mauritania, Tindufen, Espainian, Aljerian edo lurralde okupatueta egonda ere.

Sakabanaketa geografiko horrek ekar ditzakeen arriskuak ere aipatzen dira, kontuan izanik neurri batean bere lurralde legitimoak kanporatutako populazioa dela, kolonizazio-baldintzetan eta eskubideak²⁵ sistematikoki urratuta bizi dela, eta Europako leku desberdinetan sakabanatuta dagoela. Hala ere, oraingoz, badirudi sakabanaketa horrek ez duela saharar herriaren batasuna eta borroka ahultzen. Sakabanaketak egiten duena zera da: direnari, haien borrokari eta etorkizunari aurre egiteko moduei buruzko zentzua hiru espazio desberdinetatik sortzen duela. A priori, horrek begirada eta diskurtsoa aberastu egiten ditu, baina, era berean, desadostasunak sor ditzake, hartzen den espazioaren eta lekuaren arabera, dena ez baita koherentea hiru espazioen artean.

25 Horri dagokionez, Hegoak 2010etik aurrera argitaratutako hainbat lan eta dokumental kontsulta daitezke, hala nola “Memoriaren Oasia. Memoria historikoa eta Giza Eskubideen urraketak Mendebaldeko Saharan” (2012). Ikus: <https://www.hegoa.ehu.es/es/pages/Sahara>

Familia eta ezkontza

“Familia eta etxea dira inspirazio-iturri nagusiak, eta horregatik jaikitzen zara egunero eta lan egiten duzu eta antolatzen duzu bizitza...”
Gaztea, Auserd

Ahaidetasun-harremanen esparruak eraldaketa asko izan ditu urte hauetan guztietan, baina, aldi berean, badira praktika edo elementua batzuk bere horretan jarraitzen dutenak, edota bestelako testuinguru batean egokitu direnak. Azterketa honen hasieran adierazi dugun bezala, Fronte Polisarioak abiarazitako iraultza sozialak hainbat aldaketa ekarri zituen, eta horietako askok eragin zuzena zuten antzinako gizarte nomadaren ahaidetasun-egituran: emakume eta gizonen arteko berdintasunaren aldarrikapena, dotea dinar sinboliko batera murriztea, eta neskatoak gizontzeko praktikak edo ablazioa desagerraraztea. Bestalde, sistema tribalaren debekuak ere —ahaidetasun egituretan oinarritutako antolaketa soziopolitiko mota bat— eragin nabarmena izan zuen. Izan ere, iraultzaren garaian, saharar herriaren sorrerak tribu-kidetasun eta, beraz, familia-talde izatearen leialtasunak eta sentimenduak identifikazio eta leialtasun zabalago batera aldatzea ekarri zuen:

1965 eta 1975 urte tartean jaiotakoek ez zuten familiaren kontzientzia bereganatuta. Orduan herri kontzientzia zen nagusi (...) orain, berriz, familia sendotu egin da eta gazteek familia-kontzientzia handiagoa dute eta kolektiboarentzat (herriarentzat) baino familiarentzat lan egin behar dutela uste dute (...) guk bizi izan genuen testuinguruan ez zitzaion hainbesteko garrantzia ematen norbanakoari. Nik herriaren alde egiten dut lan, eta berak, berriz, bere familiaren alde; hor dago aldea (Presidentearen Kabinetea).

Hala ere, eta batez ere dirua kanpamentuetan sartu zenetik, badirudi gizarteak atzera egiten duela, eta senidetasun harremanak direla garrantzitsuenak. Hori adierazten du aurreko informatzaileak, gazte saharararentzat familiak duen garrantzia aipatzen duenean, alboratuta geratu den komunitatearen aurrean.

Emakumeen eta gizonen eskubide-berdintzeak ere aldaketa garrantzitsua ekarri zuen ezkontzan eta, beraz, familia berriaren eraikuntzan; izan ere, gizarte gehienetan gaztarotik helduarorako urratsa markatu ohi duen erritual garrantzitsua baita. Aldaketa horren arabera, aitaren baimenaz gain, amarena ere behar zen ordutik aurrera, eta horrek ezkontza erraztu edo zaildu egin zezakeen. Dena den, gauza bat ez zen hainbeste aldatu: aurreko belaunaldiaren baimena behar izatea ezkondu ahal izateko. Gaur egun, badirudi baimen behar horrek zeregin bat izaten jarraitzen duela, baina iritziak oso desberdinak dira haren garrantzia baloratzeko orduan:

Lehen, familiak erabakitzen zuen, baina orain eurek erabakitzen dute. Hiztegi kontua da. Batzuek esaten dute familiak proposatu egiten zuela, eta beste batzuek erabaki egiten zuela, aukeratu. Baina, bistan denez, gauza bat aldatu da: orain emakumea eta gizona ados jartzen direla (UJSARIO).

Ezkontzeko orduan guk, gazteok, edozer planifikatu dezakegu, baina azken hitza beti gurasoen galbahetik pasatu behar da. Errespetu kontua da. Baina badira aldaketak ere... (NOVA).

Gaur egun ohikoa da kanpamentuetan entzutea gazteek zailtasun handiak dituztela ezkontzeko, oso garestia delako. Kexa hori ulertzeko bertako ezkontza-ohiturak ezagutu behar dira, hau da, senar-emazteen artean gertatzen diren truke material eta sinboliko ugarien eremuan. Hamarkada hauetan ezkontza-ohitura horiek aldatuz eta eraldatuz joan dira. Erbestealdiaren aurreko garaietan, ezkontzak truke sistema konplexua zuen: senargaiaren familiak emaztegaiaren familiari ordain bat eman behar zion –sadāq izenekoa–; emaztegaiaren familiak opari batzuk ematen zizkion senargaiaren familiari –faskhah izenekoa–; eta emaztegaiaren familiak alabari ezkontzagatik ondasun batzuk ematen zizkion –rhīl delakoa–, besteak beste bizileku zuten denda.

Sadāq edo emaztegaiarengatiko konpentsazioaren bidez, garai hartako hierarkiak erreproduzitzen ziren, bai kabilen artekoak, baita kabila barnekoak ere. Logikoa zen erregimen iraultzailea praktika hori deuseztatzen saiatzea, baina ez zen desagertu. Islamean senargaiak emaztegaiari prestazio hori ematea eskatzen da, ezkontza legezkoa izan dadin. Horregatik mantendu zen sadāq-a, baina prestazio sinboliko gisa. Ordain hori estandarizatzeaz gain, nazio askapenerako mugimenduak lehen kabilak betetzen zituen rol batzuk bere gain hartu zituen: hainbat batzorde ezberdinek antolatu eta prestatzen zuten ezkontza, gonbidatuei ostatua eman, eta bikote berria



nazioarteko laguntza humanitariotik zetorren ekipamenduaz hornitzen zuten. Erregimen berriak bere gain hartu zuen emaztegaiari familiak eman ohi zizkion ondasunak emateko ardura.

Baina 90eko hamarkadatik aurrera, ekonomiaren monetarizazio testuinguruan, ezkontzak berriro ere aldaketak jasan zituen. Wilson-ek (2016) sakon aztertu ditu ezkontza-praktiken aldaketak, eta haren arabera 2007rako, ezkontzaren alderdi materialen areagotzeak zera ekarri zuen: sadāq-aren zati handi bat senargaiaren bizkar geratzea. Aldaketa horren arrazoiak izan daitezke gizonen zirkulazio eta mugikortasun testuinguru gero eta handiagoan, emakumearentzako nolabaiteko bermea izatea dibortzio posibleei aurrean (Solana 2022; Caratini 2006). Kontuan hartu behar da, halaber, iraultza aurreko garaian emaztegaiaren familiak hornitzen zuela etxola berria, eta, gerora, nazio askapenerako mugimenduak hartu zuela rol hori. Laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrerako aldaketen ondorioz, berriz, gobernuak hornitu ezin dituen ondasun eta material berriak agertu zaizkigu kanpamentuetan.

Horrenbestez, gaur egun, emaztegaiarentzako ordaina berriro azaldu da, baina aldaketa nabarmenekin, bai forman, bai edukian, baita izenean ere: dabash izena hartzen du, eta sadāq zaharra ez ezik (nahiz eta jada ez diren

gameluak, etxeko ekipamendua baizik) lehen gobernuak estaltzen zituen elementuak ere barne hartzen ditu, iraultza aurreko garaian rhil deitzen zena. Prozesu horrek guztiak ezkontzaren garestitze nabarmena ekarri du, kanpamentuetako gazteriarentzat aurre egiteko zaila, eta ezkontzeko adina atzeratzea eragiten du.

Guk ikusten dugu ezkontzetan gehiegizko gastu desegokia dagoela, eta gero eta nabarmenagoa den handinahikeria (Emakume gaztea, eztabaida taldea 25/29 urte, Dajla).

Orain, ezkontzetan, gehiegikeria asko ikusten da, diru asko gastatzen dute, eta horrek zaildu egiten du gazteak ezkontzea eta seme-alabak izatea (...) gu biztanle gutxi gara eta gehiago behar ditugu, umeak behar ditugu, baina doteen garestitze horrek eragozten digu ume gehiago izatea... (Gazte gizonezkoa, 35/39 urteko eztabaida taldea, Auserd).

Egoera horrek, Wilsonek (2016) deskribatzen duen bezala, kezka eragiten du Fronte Polisarioaren baitan, ezkontza garestiek zerikusi zuzena dutelako krisi demografikoarekin (jaiotza- eta migrazio-indizeen beherakada), eta horrek, azken batean, arriskuan jar baitezake nazio askapenerako mugimendua. Komeni da, iradokizun gisa, nazio-askapenerako mugimendua gero eta gehiago bereiztea gero eta protagonismo eta autonomia handiagoa hartzen ari diren gizarte-joera guztietatik.

Hala eta guztiz ere, eta aldaketak aldaketa, familia funtsezko zutabea da saharar gizartean, eta, noski, familia bere gain hartzeko betebeharrak bere horretan jarraitzen du iraganetik; horrek azaltzen du geografikoki lekuz aldatuta ere loturak (ekonomikoak, sozialak eta afektiboak) bizirik jarraitzea. Familia da, oraindik ere, haur eta gazteentzako oinarritzko sozializazio-erakundea, eta gerontokraziaren printzipioarekin bat datorren autoritate-mailari eusten dio.

Orain arte, familia bakoitzeko adineko pertsonak dute azken iritzia. Iritzi hori beti ateratzen da aitarengandik edo aitonarengandik. Adinekoekiko errespetu horrek bizirik jarraitzen du. Adibidez, familien arteko gatazka sortzen bada, konponbidea adineko pertsonen bidez etortzen da beti. Saharar komunitateak adinekoekiko errespetuari eusten dio (NOVA).

Indarrean dagoen errespetu horri eusten saiatzen gara. Gazteek nolabaiteko lotura izan behar dute. Erabakietan aske izan daitezela, baina errespetu hori barne hartzen duten arauak urratu gabe. Gorde eta errespetatu beharreko tradizioak ditugulako. Nolabaiteko oreka behar da bi poloen artean: askatasuna edo beraiek nahi dutenaren eta benetan izan behar duenaren artean (UJSARIO).

Familia sahararraren rola aldatuz doa testuinguruen eta garaien arabera (...) baina funtsean, gazteen eta helduen hezkuntzaren rola familiaren gain egongo litzateke. Familiak rol hori jokatzeko jarraitzen du... (Fronte polisarioko Idazkaritza).

Baina badira esandakoa erlatibizatzen duten ahotsak ere, uste baitute egungo familiek autonomia handiagoa ematen dietela gazteei:

Ez dut uste familiak horrenbesteko eraginik duenik gaztearengan gaur egun. Orain pentsamolde berriak daude, asmo berriak eta iraganean ez bezalako testuingurua. Nire ustez, pentsamoldea aldatzen ari da, ez bakarrik beste gauza batzuk nahi eta espero dituen gazteari dagokionez; baita familian ere (...) familietan autonomia handiagoa dago eta leku gehiago ematen zaio askatasun pertsonalari. Pixka bat aldentzen dira, eta gazteari autonomia handiagoz jokatzeko eta erabakitzen uzten diote (UMS).

Familiak zutabe izaten jarraitzen du, familia da zurruntzat joko nituzkeen elementuetako bat (...) eta hori ezin da denboran luze mantendu. Lehen, familiek erabakitzen zuten ezkontza edo lana moduko gaietan, baina orain jada ez. Oraindik erabakiak hartzen dituzte; bestela, bakarrik geratzeko arriskua duzu. Adibidez, bikotekide jakin batekin zenbat eta gehiago tematu, orduan eta gutxiago lagunduko dizute. Baina hortik harago ez dute eragin handirik (Gazteria eta Kirol Ministerioa).

Gaurko familia ez da duela urte batzuetakoa bezalakoa. Aldaketak izan dira pentsatzeko moduan, gauzak ikusteko moduan, ikuspegian, elkarbizitzan, emakume edo neska batek izan dezakeen autonomia mailan... (Osasun Ministerioa).

Hala ere, azken pertsona horrek esaten duenari dagokionez, eta familiak izan dituen aldaketak onartuta ere, beste informatzaile batek adierazi digu autonomia hori handiagoa dela gizonezkoen kasuan, emakumeenean baino:

Familiak gazteekiko duen autonomiak, aldaketek eta bilakaerak mesede handiagoa egiten diete gizonezkoei. Ez diskriminazio, indarkeria edo antzeko kontuengatik, baizik eta gizartean oso errotuta dauden ezaugarri jakin batzuentzat. Adibidez, emakumeak berak uste du mugak daudela, eta bere buruari ezartzen dizkio muga horiek (UNMS).

Badirudi informatzaile hau guraso-harremanak egituratzen dituzten genero-jarraibide jakin batzuei buruz ari dela, eta eredu horiek mugatu egiten dutela familietan gertatu diren aldaketa jakin batzuek eragiteko duten gaitasuna, hala nola autonomiak, eta, konparatiboki, neskei mesede gutxiago egiten dietenak. Egia da emakumeek etxeko espazioari dagokionez duten lekua oso definituta dagoela, eta, zalantzarik gabe, emakumeak arduratzen dira etxeaz eta horrek dakarren guztiaz (adinekoen eta haurren arreta eta zaintza, otorduak prestatzea, garbiketa, bisiten ardura eta abar). Bestalde, emakumeak izan ziren errefuxiatuen kanpamentuak eraiki, antolatu eta kudeatu zituztenak, eta horrek bizitza kolektiboan presentzia zentrala izatea ekarri zuen.

Agian, presentzia da aldatu dena. 80ko eta 90eko hamarkadetako emakume gaztea oso presente zegoen bizitza kolektiboaren egunerokoan. Baina orain emakume gaztea erretiratuago dago, barrurago dago, eta are gutxiago kanpoan. Kanpokoarekin esan nahi dut jardueretan, parte hartzean, erakundeetan eta mugimenduan. Gutxiago ateratzen da, gehiago dago familiarekin, haiman eta bere baitara bilduta (Presidentearen kabinetea).

Garai bateko presentzia hura aztertu da, eta badirudi gerra garaian gizonen ausentziarekin lotuta dagoela. Emakumeak arduratu ziren oinarriko lanaz, eta beraiek zuzendu zuten kanpamentuetako bizitzaren dimentsio kolektibo osoa. Agian prozesua honela garatuko zen: bizitza kolektiboa ahultzen joan zen dirua kanpamentuetan sartzen hasi zenean; ondorioz, familiak bere baitan ixten hasi ziren; eta horrek ekarriko zuen emakume sahararraren rol komunitario hura ahultzen joatea, eta aldi berean, familiaren baitan rol tradizionalenak bete zitzala exijitza.

Desberdintasunen gaian sartzen bagara, nik ikusten dut ez dagoela oso alde handirik, baina emakumeari batzuetan gehiago kostatzen zaiola lana bilatzea edo formakuntza jasotzea. Kontuan izan behar da emakumeak beti dituela etxean egiteko gauzak, gizonezko gazteek

baino gehiago. Izan ere, mutilek lan egin dezakete, eta kito (Emakume gaztea, eztabaida taldea 30/34 urte, Bojador).

Emakumeek ez dute politikan aurrera egin nahi, ezta politikan sartu edo parte hartu ere, bi arrazoirengatik. Lehen arrazoia porrotaren beldurra litzateke (...) Eta bigarren arrazoia da neska gazteek normalean familia eta seme-alaben bizitza hasten dutela gizartean parte-hartze politikoan murgildu baino lehen (Barne Ministerioa).

Gazteen (batez ere emakumezkoen) dimentsio kolektibo eta parte-hartzaile horri geroago helduko diogu, parte-hartzearen gaia jorratzen dugunean.

Erlijioa

Beti esan ohi da Saharar gizarteak erlijio islamikoa modu berezian bizi duela. Erlijiotasunaren praktika eta bizipena ohitura-sisteman (erlijio kulturalen) txertatuta dago; ondorioz, gizabanakoak, bereziki emakumeak, beste gizarte eta herrialde batzuetan baino askatasun handiagoa du bertan. Fede musulmanaren bertsio dogmatiko eta erradikalenak, printzipioz, arrotzak zaizkio populazioari.

Sinesmenari eta idiosinkrasiari dagokionez, guk ez dugu arazorik, eta islama aitortzen dugu. Hor ez dago beldurrik. Eta ez dago muga hertsirik erlijioari dagokionez. Ez gara bizarra neurtzen dizuten gizarteak bezalakoak eta hemen beloa erabiltzeko askatasuna dago (...) guretzat islama berezkoa da. Belaunaldiz belaunaldi transmititzen diren familia balioen parte da (...) batzuek diote gu sahararrak... komunista eta ateoak garela, edo hala kontsideratzen gaituzte. Gure emakumeek gobernatzen gaituztela diote, eta ez dugula erlijio musulman islamiarra zorrotz betetzen (...) esaten digute gure emakumeak oso liberalak direla eta edonor agurtzen dutela (Kultura Ministerioa).

Egia da, halaber, erlijioaren praktika, haren zentzua eta garrantzia ezberdina dela belaunaldi gazteen artean. Fenomeno saihetsezina da, kontuan

hartuta kanpamentuetan gertatu diren aldaketak: mugikortasuna, teknologia berrien erabilera eta abar.

Ez dira gauza bera nire amaren belaunaldiko pertsonak, 60 urtetik gora dituztenak eta Korana aitarekin edo alboko jaunarekin ikasi zutenak, edo oraingo gazteak, Kuban egon direnak, adibidez. Hainbat lekutatik datorren heziketa erlijiosoa daukagu, baita kanpoko eragin batzuk ere (NUN SAHARA elkarte).

Baina, batez ere, elkarrizketatutako pertsonak adierazten dutena da gazteen artean erlijiotasuna areagotu egin dela, eta gazte batzuk, batzuetan, muturreko edo erradikalizatutako erlijio-jarreretara hurbildu direla, jarrera horiek denbora luzez Saharako erlijio-esperientziatik kanpo egon badira ere.

Arazo bat dugu orain: muturrekoenak ez dira zaharrak, gazteak baizik. Meskita batzuetan hori erakusten dizute (...) orain diote Arabiatik



inportatu dutela. Baina ez dio hainbeste axola nondik datorren, baizik eta nola sinesten duten (Gazteria eta Kirol Ministerioa).

Nik duela hogei bat urte baino askoz jende gazte gehiago ikusten dut kanpoko eragin erlijiosoarekin. Eta Saudi Arabiako islamaren eraginei buruz ari naiz, adibidez (NUN SAHARA elkarte).

Gobernutik uste dute, fenomeno hori egon badagoen arren, gaur egun ez dakarrela arrisku berezirik, kontrolatzen ari baitira. Agintarien asmoa da erlijioa bere dimentsio kulturallean geratzea, erlijio politiko bihurtu gabe. Hain zuzen, bi dira kezka nagusiak: erlijio kontutan ez dadin inboluzioa gertatu, eta Fronte Polisarioaren jatorrizko helburu izan zen sekularizazioan atzerabiderik ez izatea. Modernizazio-prozesuetan –eta tartean nazio-askapenerako fronteetan–, erlijioa politikaren mende jartzea izan ohi da asmoa. Denbora batez hori hala izan bada ere, gaur egun ez dago hain garbi, eta litekeena da zalantzan jartzea ere. Honela dio Justizia Ministerioak:

Egia da azkenaldian adierazpen erlijioso batzuk nabaritu ahal izan ditugula, batez ere bizardun edo pentsamendu jakin bat duen jendea egon daitekeela, baina gu beti saiatzen gara orientatzen eta lotuta izaten (...) gure ministerioarekin, meskitetan ditugun kontrolekin, uste dut egoera kontrolpean izan dezakegula. Uste dut ezin dugula esan gure gazteen artean estremismo erlijiosoa nabarmena denik (Justizia Misterioa).

Zergatik hurbiltzen dira gazte batzuk muturreko erlijiora? Bertako meskita batean asko aipatzen dira bi gai hauek: gazte batzuek dirua lortzeko neurrigabeko anbizioa dutela, eta gazteek kanpamentuetan bizi duten egoera zaila dela.

Oso txikitatik nahi dute gazteek dirua eta diru gehiago eduki, gero eta gehiago. Orduan, badirudi lanari eta enpleguari ez diotela garrantzi handirik ematen. Eta horrek desbideratu egiten ditu debekatuak diren bide batzuetara: drogetara, adibidez. Batzuek debekatutako bide horiek hartzen dituzte, eta beste batzuk, berriz, hainbeste sartzen dira erlijioan, ezen horrek terrorismoaren bideetara eramaten baititu. Gazte horiek ikasketak egin dituzte, eta asko unibertsitateko ikasleak dira, baina ikusi dute azkenean etxean eserita geratzen direla, lanik gabe, beste ezer gabe. Eta horrek eramaten ditu bide horiek hartzera (Imam-a).

Bistan denez, estremismo erlijiosoaren ibilbidea eta drogetarako bidea paraleloan doaz, antzeko prozesuen ondorio gisa. Bi kasuetan, gazte batzuek egiten duten bide horrek egoera sozioekonomiko eta politiko latza du atzean, oso zaila baitzaie gazte horiei lana aurkitzea, eta beraz, familia bat osatu ahal izatea. Etorkizun beltza izateak erraztu egiten du integrista erlijiosoaren hazia ernamuintzea; hau da, erlijioan babes bilatzea, babesgabetasun sozioekonomikoaren aurreko erreakzio gisa. Droga-trafikoa edo erradikalizazio erlijiosoa aukera erakargarri bihurtzen dira egoera horretan

Logikoa ez dena da gaztea zirkulu itxi batean bueltaka ibiltzea, ezer egin gabe. Eta, horrela, gaztea prest dago edonori ateak zabaltzeko, dirua emango dion edonori, izan legez edo legez kanpo (...) mugak irekita daude eta trafikoa librea da, eta horrek ere norabide horretan bidea egiten laguntzen du. Eta hori gutxi balitz, Marokok eskualde osoan estupefaziante kopuru handien hornitzaile izaten jarraitzeko interesa du. Eta denboraldi horren ondoren, beste bat etorri zen, estremismoaren gorakada ezaugarri zuena (Armada Sahararra).

Duela gutxi armetara itzuli izana ere aipatzen da, eta, beraz, gerraren testuingurua berpiztu izana, ez hainbeste erradikalizazioaren kausa gisa, baizik eta martiriaren figurari lotutako erlijio-sentimendua eta presentzia areagotzearen kausa gisa.

Orain gazteak erlijiosoagoak dira. Orain, gerra hasi zenetik, jendeak otoitz gehiago egiten du. Zergatik? Ba jendea gerrara joaten delako martiri izateko (UJSARIO).

Badakigu martiriaren figurak leku nabarmena duela erlijio musulmanean, baina Sahararen kasuan ez da berdina, ez dauka konnotazio erlijiosoa fede musulmanaren defentsaren zentzuan; bestelako osagaiak ere baditu, norbanakoa baino garrantzitsuagoa den kausa politiko baten alde jartzen da: Marokoren legez kanpoko okupazioa bukatzea Mendebaldeko Saharan²⁶.

26 Ekainaren 9an Martirien Egun Nazionala ospatzen da, Luaili Mustafa Sayed Saharako Iraultzaren buruzagi eta sortzailearen erorketaren urteurrenean, alegia.

Sare sozialak

“Sare sozialetan badago beste gerra bat: gerra mediatikoa”
Gazte bat, Auserd

Mugikorrek erabiltzen dituzten pertsonak kanpamentuetako paisaiaren parte bihurtu ziren aspaldi, batez ere, mundu osoan bezala, sare sozialak (Instagram, TikTok, X, Facebook eta beste) maneiatzen dituzten eta hainbat plataforma digitaletara sartzen diren gazteen artean. Elkarriketatutako pertsona guztiek sare sozialen erabilera ikuspuntu ezberdinetatik ikusten dute, beti ere, haien alde onak eta txarrak ikusita. Gizarte-harremanen mailan eta, bereziki, familia-harremanei eta adinekoekiko harremanei dagokienez, nabarmentzen den gaietako bat da nola aldatzen dituen mugikorraren erabilerak komunikazio-dinamikak eta -jarraibideak:

Abantaila batzuk ekarri ditu, baina baita desabantailak ere. Eta ikusten ditudan kalteen artean, hauxe azpimarratuko nuke: hemen badugu ohitura on bat: elkar bisitatzea. Umeek adinekoak bisitatzeko dituzte, eta, hala, aitonarekin eta amonarekin gertatzen denaren berri izaten dute. Eta horrela, giro familiarra sortzen da, eta lotura eta harreman handia (...) baina telefonoa dugunetik elkarri deitu eta ez gara elkarrekin egoten (UJSARIO).

Lehen tea familian egiten genuenean, denok hitz egiten genuen, eta bakoitzak bere gauzez hitz egiten zuen. Baina orain aita edo aitona bakarrik geratzen dira, ez dutelako smartphone-rik. Eta hori oso aldaketa handia da, seme-alaben eta gurasoen arteko harremana hausten duelako, baita bestelako pertsona adinekoekin ere (NOVA).

Lehen, gure denbora librean, Mendebaldeko Saharako lurraldeetatik kanpamentuetara nola joan ziren galdetzen genien adinekoek, bataila batzuei buruz hitz egiteko eskatzen genien, erbesteko lehen kontuei buruz (...) Orain, berriz, denbora gehiena telefonoari begira pasatzen dugu, eta ez da inor salbatzen, familiako kide guztiak, tonto-tonto eginda, bakoitza bere telefonoari begira, zurrupatuta, sare sozialetan murgilduta (Emakume gaztea, 40/45 urteko eztabaida taldea, Smara).

Interesgarriak dira neska gazte honen hitzak; izan ere, aurreko munduarekiko haustura esplizitatzen du, hau da, kulturaren transmisioa, memoria eta subjektu kolektibo terminoetan, funtsean ahoz eta familia giroan gertatzen zen mundu harekiko haustura.

Gaur egungo gizarte guztietan gertatzen ari da: gero eta bisita gutxiago egitea, edo etenak sortzea, mugikorra erabiltzen dutenen eta erabiltzen ez dutenen artean, elkar urrunduz. Aztertu beharko da familiako eta komunitateko gizarte-loturaren porrot horiek zenbateraino eragiten dioten saharar gazteriarri, aparteko inguruabarretan baitago, bai eta gizarteari berari ere. Hain zuzen ere, egoera horietan eta bizi-baldintza zailetan, sare sozialek aukera ematen diete gazteei mundu oso ezberdinetara birtualki hurbiltzeko, eta mundu horiek ispilu gisa beraiek ez dituzten aukeren mundu bat erakusten diete gazteei:

Bat-batean sare sozialak sartzen dira, eta haiek mundu osoa jartzen diete begien aurrean. Irudimenean, dena oraindik eskurago dutela pentsarazten die (Kultura Ministerioa).

Sareek mundu bat erakusten digute, eta gero desengainua hartzen duzu, hemengo jendeak ez dituelako gauza horiek... ni ikusten ari naizelako nire adineko pertsonak edo gazteagoak, beste mundu batean bizi direnak, eta nik ez daukadalako horrelako ezer eskuratzeko aukerarik. Eta uste dut hori guztia ez dela positiboa hemengo gazteen osasun emozionalerako (NUN SAHARA elkarte).

Azken informatzaile horrek sakelakoaren erabilerak gazteengan izan ditzakeen eragin psikosozialak aipatzen ditu. Ondorio horiek larriagotu egin daitezke, edo ez, kontuan hartuta aisialdia, ezer ez egiteko denbora, zerekin bete ez jakitekoa, gazteen egoera ohikoenetako bat dela.

Saharako gazteek denbora libre asko dute, eta egoera berezi horiek egunerokoan eragiten dieten arazo psikologikoak sortzen dizkiete (Fronte Polisarioko Idazkaritza).

Izan ere, denbora librea erabiltzea eta gozatzea lehentasunezko politiketako bat da (batez ere nerabesarorako), lehenago aipatu ditugun delituzko jarduerak agertzea saihestu baitezake. Denborari edukia emateko jarduerarik ez badago, mugikorra pertsonaren isolamendua eta bakardadea eragin ditzakeen faktorea izan daiteke:

Pertsona isolatu egiten da denbora librea aurkitzen duenean, ezer egiten ari ez den denboran. Pertsonak zer egin behar duen aurkitzen ez duenean, beste mundu batean isolatzen da mugikorrarekin (UESARIO).

Nolanahi ere, denbora libre gehiegiari dagokionez, esan behar da, generoaren ikuspegitik, gehiegikeria horrek ez diola berdin eragiten emakumeari eta gizonari. Hain zuzen ere, azken horrek du denbora librea; izan ere, emakumeak borondatezko lana edo beste edozein lanaz gain, beti du hor etxeko lana ere:

Gizonak du denbora librea. Zeren emakumeak, beste lanik ez duenean, etxekoa du. Eta etxearekin ez bazaude, gonbidatuekin edo bisitariekin zaude. Askotan gizonagatik etortzen dira, baina emakumeak hartzen du bere gain ardura (UMNS).

Teknologia berrien alderdi negatiboekin batera, horiek erabiltzeak kanpamentuetan ematen dituen aukerak ere azpimarratzen dira:

Badago jendea plataforma digitaletan sartzeko eta formatzeko, tituluak eskuratzeko edo unibertsitateetan sartzeko baliatu dituen. Baina uste dut hori egiten dutenak oso gutxi direla, guztizkoaren %0,5. Eta beste %1ek ekimen berriak martxan jartzeko edo dena delakorako aprobeitza dezake. Baina hori ez da joera nagusia (UNMS).

Positiboena da orain formatuago daudela eta badakitela bitartekoak erabiltzen. Ez dakit ezagutzen duzuen gazteek sortu duten fundazio bat, gune egokiei buruzko berriak eta informazioa emateko komunikabide bat bezalakoa dena (CONASADH).

Gazteen diskurtso askotan, saharar herriaren kausarekin elkarlanean aritzeko sare sozialak erabiltzearen ideia agertzen da, salaketaren, hedapenaren, informazioa partekatzearen eta abarren bidez. Badira elkarteak, bai kanpamentuetan, bai lurralde okupatuetan eta diasporan, beren lanean teknologia digitala²⁷ txertatu dutenak. Hala ere, badirudi hemen hobetzeko tarte handi bat dagoela:

Saharar gisa dugun esperientzia alderdi horretan negatiboa da. Palestinarrek eta irakiarrek ez bezala, erabilera ona egiten baitute,

27 Ikus, adibidez, @Equipe_Media plataforma digitala edo Nushatta Fundazioa, @Nushatta_WS.



guk ondo pasatzeko eta gauza pertsonaletarako erabiltzen ditugu. Podcast-ak bezalako bitartekoak erabil genitzake sahararren kausarako edo eguneroko bizitzari buruz... (NIDAL Sahara elkartea).

Duela urte batzuk jendeak edo gure herriak gatazka gerraren bidez konpon zitekeela pentsatzen zuen, ez zeudelako Internet eta sare sozialak bezalako presio bideak. Uste dut presio mediatikoagoa egin dezakegula gure aldeko sareak erabiliz gure auzia konpontzeko (Gizon gaztea, eztabaida taldea 25/29 urte, Bojador).

Izan ere, kanpamentuetatik hainbat gaztek Taleb Alisalem bezalako figurek egindako lana nabarmentzen dute, mundu osoko komunikabideetan eta, noski, sare sozialetan²⁸ hizlari eta iruzkingile gisa lan handia egiten duena:

Taleb Alisalem ekintzaile sahararrak bere kabuz egiten du lan, eta sare sozialen bidez partekatzen du bere auzia, munduko plataformarik handiena baitira eta handik ikusten baitu mundua, eta horregatik eraman dezakezu zure ahotsa mundura, eta jende askoren artean azaldu kausa... (Emakume gaztea, 35/39 eztabaida taldea, Auserd).

28 Ikus X @TalebSahara. "Sahara Occidental. Un viaje a la libertad" (2023) lanaren egilea.

Parte-hartzea

Gazte sahararren parte-hartzeari buruz hitz egiten dugunean, elkarrizketatutako pertsonen diskurtsoan bi dimentsio bereiz ditzakegu: gazteek nazio askapenerako mugimenduan parte hartzea, erakundeetako lanaren bidez, eta gazteek berezko duten elkarte-mugimenduan parte-hartzea.

Lehenengoari dagokionez, plano orokor batean gazteriarri eta Saharako auzian duen inplikazio-mailari buruz galdetzen denean, ia guztiek gorai patzen dute iragana ahazten ez duen eta etorkizun bat izateko borrokan jarraitzen duen gazteria dela:

Gazte askok kanpoan ikasi dute. Baina ez dira inoiz aldatzen. Hona itzultzen direnean ondo baino hobeto dakite herri baten alde itzuli direla (UMNS).

Ez dugu beldurrik, belaunaldi hauekin borrokak jarraituko duelako. Kausa eta kultura gordetzen ari diren belaunaldiak dira. Ez dizut esango argi distiratsua izango dugunik, baina beti mantentzen da hor motiboa (UNMS).

Ia berrogeita hamar urteren ondoren, mundu eta eskualde mailako zailtasunak gorabehera, gazte sahararrek politikoki konprometituta jarraitzen dute. Politika ez da filosofia, gure bizitza da. Beste herrialde batzuetan esan ohi dute ez dela politikaz hitz egin behar, baina gure egoeran DNA n sartuta daramagu (Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa).

Saharako gazteriarri egindako laudorioekin batera, hor dago borrokan dagoen herri baten ondare politikoa gazteriarri transmititzeko beharra ere, baita gazteria legatu horren mailan egoteko eskakizuna ere.

Zertarako egiten dugu lan hemen, Saharan, gazteekin? Ba autodeterminazioaren helburuarekin bat datorren prestakuntza emateko, ideal nazionala eta nazionalistaren bat etorriko dena. Beti saiatzen ari gara gazteak norabide horretan bideratzen eta kokatzen. Orduan, herriarentzat, oro har, eta gazte horientzat, lehentasuna askapena da (...) Gazteak dira gizartearen zatirik biziena. Lortu den

guztiaren oinordekoak dira, eta orain herriaren ibilbide iraultzaileari forma ematen ari direnak (Fronte Polisarioko Idazkaritza).

Ez dugu langile gaztea soilik nahi, kausaren alde borrokatuko den langile gaztea baizik. Ez ditugu gazteak formazio hutsean prestatu nahi, ezta lan egiteko soilik ere; Saharako kausaren alde borrokatuko duen eta kausa horren etorkizunaren alde borrokatuko duen gazte langilea nahi dugu (UESARIO).

Gazteek erakundeetan duten parte-hartzearen egoera zehaztean, soldata eskasei lotutako zailtasunak agertzen dira berriz ere:

Gazteak, gutxi gorabehera 1997. urtetik 2016. urtera arte, borondatezko lanetan aritzen ziren (...) Eta horrek gizartea eraikitzen lagundu zuen. Baina 2016aren ondoren hori murrizten hasi zen, eta gazte gutxiago aritzen ziren borondatezko lanetan. Hainbat faktorek eragin dute hori, tartean ekonomikoak. Horren ondorioz, gazteek lan eginez bilatu behar izan zuten bizimodua... (NIDAL Sahara elkarte).

Kontua da kanpamentuetako lan boluntarioa ez dela Espainian bezalakoa (...) gazte batzuei esaten badiete bi edo hiru eguneko lan boluntarioa dutela horrekin zer irabaziko duten galdetuko dute. Izan ere, ezin dira hiru egun baliabiderik gabe geratu haien egoera oso gogorra delako. Horregatik, hemen borondatezko lana egitea zail samarrak da (NOVA Mendebaldeko Sahara Taldea).

Gazteen zailtasun ekonomikoek gazte batzuen emigrazioa eragiten dute. Izan ere, biziraupena bermatzen duen enplegu bat lortzeko aukera gero eta zailagoa da gazteen artean, eta horrek bultzatzen ditu alde egitera. Gainera gazteek beren buruak beste lekuetako gazteekin konparatzen dituzte. Egoera hori aurreko orrialdeetan aztertu dugu jadanik, eta esan bezala, ez lan, eta ez ikasketarik gabeko sahararrak sortzen ditu; ikasketarik eta lanik gabeko belaunaldi hori arazo-iturri potentzialtzat hartzen da:

Badira instituzioetan inplikaturik dauden gazteak. Adibidez, hezkuntza sektoreko, osasun sektoreko, administrazio sektoreko edo sektore militarreko langile gazteak. Eta ikasten ari diren gazteen kopuru handi bat ere badago (...) baina erakundeetatik kanpo dagoen gazteen beste ehuneko handi bat ere bai. Ez hezkuntzan, ez osasunean, ez sektore horietako bakar batean ere lan egiten ez duten eta ikasten ere ari ez diren gazteak. Eta horiek dira beti arriskuan

daudenak. Eta kontua ez da ez direla ezer egiten ari, baizik eta ezin dugula kontrolatu egiten ari direna (Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa).

Egoera ekonomikoari eta ezartzen dituen mugei lotuta, belaunaldien auzia ere agertzen da parte-hartze politikoaren eremuan. Gazteek uste dute instituzioetan pertsona nagusiek gehiegizko pisua dutela, eta erreleboa eman behar dutela:

Gazteria instituzioetatik nahiko kanpo dago, eta azkenean konturatzen zara, Gazteria Ministerioan izan ezik, erakunde gehienetan gazte baino askoz ere adineko jende gehiago dagoela (NUN Sahara Elkarte).

Gazteek errelebo horren inguruan duten pertzepzioak mesfidantza sortzen du belaunaldien artean. Konfiantza falta hori areagotu egiten da gatazka denboran luzatu ahala, gazteek ez dutelako aldaketarik sumatzen epe ertain edo laburrean.

Urteak aurrera doaz, eta gazteak egoera psikologiko berri batean aurkitzen dira eta Polisarioko agintariei galdetzen diete ea zer egiten ari diren eta norekin ari diren lanean. Eta horrela, gero eta tarte handiagoa dago gazteen eta agintarien artean, ez baitute emaitzarik ikusten. Polisarioak dio negoziazioak martxan direla, eta beti dago bla, bla, bla asko, esanez gu garela independentzia lortzeko gure borrokarekin jarraitzen dugun herri sahararra. Baina non dago independentzia? Ez dago emaitzarik. Eta, horregatik, gazteria nekatu egiten da, eta kontu berriak planteatzen eta galdera indartsuak egiten hasten da. Eta egoera horrek eragin negatiboa du, eta gazteek esaten dute zergatik lagunduko dioten jende horri (...) beren ustez ez dutelako ezer egiten. Bidaiatu eta itzuli besterik ez dute egiten, hitzaldiak ematen dituzte, NBEra joaten dira eta besterik ez (Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa).

Jarrera desberdinak daude erakundeetako eta gobernuko belaunaldi-erreleboari dagokionez. Gazteek, batez ere diasporan, uste dute beren jarrerak gurasoek izan zituzten eta orain dituzten inguruabar eta bizi-esperientzietatik abiatuta marraztuta daudela. Eztabaida honetan, belaunaldi zaharrenek kargu politiko berdinetan jarraitzeko erabiltzen duten argudioa da Fronte Polisarioak, bereziki lehen gerran, bete zuen zeregina historikoa izan zela, horrek zilegitasuna ematen duela iradokiz.

Erbestea bizi izan duten adineko jendeak, gure gurasoek, erabateko errespetua eta konfiantza diote Fronte Polisarioaren nukleoari. Eta jakina, nik ez daukat ikuspegi hori, nik ez dudalako bizi izan beraiek bizi izan duten gauza bera (...) Jende nagusiak konfiantza itsua du haiengan, haiek defendatu zituztelako, haien alde beren bizitzak eman zituztelako leku salbu batera iristeko. Nik eztabaida hori amarekin daukat. Nik esaten diot jende horrek aldatu egin behar duela. Eta berak esaten dit “nahiago nuke zuk haiek egin duten gauza bera egingo bazenu” (...) Beti egongo da zatiketa hori, harik eta belaunaldi nagusia desagertu arte... (Gizon gaztea, 17/32 eztabaida taldea, diaspora).

Nire ustez, gazte batek honela esatea: “aizu, adineko jende jakin batek ez luke agintean jarraitu behar”, eta norbaitek honela erantzutea: “nahiago nuke zuk egin izan bazenu haiek egin dutena” ez du hainbesteko pisurik, ez baitugu egoera bera bizi izan, ez baitugu gauza bera bizi izan; zuk ezin duzu jakin pertsona horrek, egoera horretan egonda, gauza bera egingo lukeen ala ez; ez nau ez gaiztoago, ez hobea egiten, desberdin egiten nau... (Emakume gaztea, 17/32 eztabaida-taldea, diaspora).

Hala ere, beste gazte batzuentzat, Fronte Polisarioaren lanari buruz nagusiek emandako argudioek indarrean jarraitzen dute, eta haien buruzagiengan konfiantza sortzen dute, zalantzarik gabe:



Nik oso desberdin pentsatzen dut; adin berekoak gara, baina justu kontrakoa pentsatzen dut. Itsu-itsuan fidatzen naiz egiten dutenarekin, eta haiek hil arte hor egotea nahi dut... Gazte guztiok ez dugu berdin pentsatzen, eta zaharrek ere ez, aniztasuna dago (Emakume gaztea, 17/32 eztabaida taldea, diaspora).

Aldaketa baten jarraitutasuna edo aukera zalantzan jartzen dutenek aipatu dute egoera asko aldatu dela joan den mendeko 70eko hamarkadatik, eta, ziurrenik, agertoki berriek (tokikoek eta globalek) beste estrategia- eta erantzun-mota batzuk eskatzen dituztela.

Garai horiek gauza batzuk eskatzen zituzten, eta garai hauek beste batzuk... Hor dago eztabaida. Zertarako eduki nahi dut antzinakoari ainguratuta geratu den pertsona bat, gaur egungo garaiak beste gauza batzuk eskatzen baditu. Geure buruari galdetu beharreko gaiak dira. Errespetua eta miresmena beti hor egongo dira. Hori ez du inork kenduko. Baina egia da geure burua berrasmatu eta gaurko egunaren mailan egon behar dugula... (Gizon gaztea, 17/32 eztabaida taldea, diaspora).

